

20
urte
SORTZEN



XX.

IDAZLAN KOADERNOA
DBH/BATXILERGOA

2020-2021

gemika-lumoko
suskara zerbitzua



GERNIKA
LUMO





Argitaratzailea

**Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua
eta Hezkuntza Saila**



Laguntzaileak

**Barrutialde Institutua
Gernika-Lumoko Institutua
Mertzedeko Ikastetxea
San Fidel Ikastola
Seber Altube Ikastola**

Portadaren egilea

Elisei Nita (DBH2. mailako ikaslea)

Babesleak

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila
(Euskara Zuzendaritza)



Maketazkoa

11barri (Markina-Xemein)

Inprimaketa

Lizaso Grafikak (Zornotza)

2021eko edizioa.

egilea	maila	idazlana	orr.
Senen de Bilbao Ortega	DBH 1.	<i>Mendian bizitako abentura</i>	1
Miren Bartolome	DBH 1.	<i>Bigarren aukera</i>	4
Amaiur Urrutikoetxea Fernandez	DBH 1.	<i>Desagertzeko arriskuan</i>	7
Haizea Martinez Rico	DBH 2.	<i>Bizitza ez da dirudiena</i>	11
Markel Lejardi Zugazaga	DBH 2.	<i>Amets bat</i>	14
Alain Martin Domínguez	DBH 2.	<i>Birus astuna</i>	17
June Gisasola Gandiaga	DBH 2.	<i>Eguneroko maitea</i>	19
Xabat Irazabal López	DBH 2.	<i>Euskal Herriko misteriorik handiena</i>	22
Alexandra Spanu	DBH 2.	<i>Robert Gernikan</i>	27
Maialen Flores Arriaga	DBH 2.	<i>Errazagoa zirudien</i>	30
Jon Omagoxeaskoa Garay	DBH 2.	<i>Askatasunaren prezioa</i>	33
Maddi Gorostiaga Alzaga	DBH 2.	1960	36
Alluitz de Bilbao Ortega	DBH 3.	<i>Kira</i>	39
Ibai Prieto Aguirre	DBH 3.	<i>Munduko lapurketa</i>	42
Bianca Craciun	DBH 3.	<i>Zerbait berria</i>	45
Alaitz Robledo Goirizelaia	DBH 3.	<i>Santa Katalina barnetegiko sekretuak</i>	48
Ines Allika Gerrikagoitia	DBH 3.	<i>Bizitzak eta noriak</i>	53
Izaro Barruetabeña Larruskain	DBH 4.	<i>Arimetatik erne</i>	56
Martxel Asteinza Ansola	DBH 4.	<i>Maitasunak itsututa 1</i>	62
Oihane Martin Basterrechea	DBH 4.	<i>Pentsamenduen ahotsaren azpian</i>	65
Peio Enbeita Kaltzada	DBH 4.	<i>Emagaldua</i>	69
June Zameza	BATX 1.	<i>Bat-bateko aldaketak</i>	74
Leizuri Barruetabeña Larruscain	BATX 1.	<i>Haurraren eskuak</i>	76
Itsaso Olea Urionabarrenetxea	BATX 2.	<i>Gogoaren baitan</i>	82
Izaro Ezkurdia Beaskoetxea	BATX 2.	<i>Zu ni zarelako</i>	86
Oier Negro Alegria	BATX 2.	<i>Zein arraroak garen/ Hitzak/ Zuri, niri</i>	89
Aitor Bilbao Landa	BATX 2.	<i>Nahiaren eta ezinaren borrokatoki ekaitzez betea</i>	92
Ekaitz Martín Pérez	BATX 2.	<i>Boterearen dantza amaigabea</i>	96
Elai Oleaga Goikolea	BATX 2.	<i>Biluztutako arima</i>	99
Izar Arronategi Mugeta	BATX 2.	<i>Dena hasi zenez geroztik</i>	103
Paule Zugaza-Artazar Anitua	BATX 2.	<i>Eta horrexegatik gorroto zaitut</i>	106
Janire Arrizabalaga	BATX 2.	<i>“Munstro”</i>	109
Francisco Javier Mendiano / Oier Bacigalupe / Oier Lavin / Aitziber Albizua	HHI/EPA	<i>Pandemiako istorioak</i>	115

20
urte
SORTZEN



XX.

IDAZLAN KOADERNOA

DBH/BATXILERGOA

2020-2021



Senen de Bilbao Ortega
DBH 1. maila

MENDIAN BIZITAKO ABENTURA

Udako egun batean, tabernan zeuden Xabi, Peio, Amaia eta Maddi. Hurrengo asteburuan mendira joateko asmoa zuten. Baina ez zekiten nora joango ote ziren. Xabik proposatu zuen Anbotora joatea, Peiok Gorbeia, Amaiak Aralarrera eta Maddik Oizera. Orduan erabaki zuten bide luzea egin behar zutela.

Lehenengo egunean, Anboto eta Gorbeia igoko zuten, eta gero aterpetxe batera joango ziren lo egitera. Hurrengo egunean Aralarreko aterpetxe batera joango ziren lo egitera, Anbototik Aralarrera egingo zuten bide luzeagatik nekatuta egongo zirelako. Azkenengo egunean Oiz igoko zuten, eta jaisterakoan berriro joango ziren etxera, Nabarnizen bizi ziren eta.

Eguna heldu zenean, motxilak hartu eta kotxez Gorbeia inguruko herri batera heldu ziren. Orduan hasi zen haien abentura. Gorbeia igotzen zeudenean, bat-batean Amaia lurreko zulo batera jausi zen, baina bere lagunak arin hartu zuten, bestela, hobe ez pentsatu zer gerta zitekeen. Baina Xabi pentsakor gelditu zen:

- Baina ni igo naizenean zulo hori ez zegoen hor.

Orduan harri txiki bat hartu eta bota egin zuen. Ez zen oso sakona zeren eta arin jo zuen lurra, baina zulo horren barruan beste bide batzuetara bidaltzen zituzten zuloak zeuden. Orduan Xabik pentsatu zuen hori ez zela naturak egin baizik eta animaliak egin! Eta ziztu bizian alde zuen handik.

Handik eta denbora batera, Peiok geldetu zion Xabiri

- Zergatik irten zara korrika basoko bidetik?

Eta Xabik esan zion ez zela zulo bat bakarrik, baizik eta animalia baten zuloa. Hori esan eta berehala Peio oso urduri jarri zen, eta bere motxilako kamara ipini eta hantxe gelditu ziren zer gertatuko zenaren zain. Goizeko hamabiak ziren eta amaitu zutenerako berrogei minutu pasa ziren.

Kamara hartu eta konturatu ziren zuloa azeri batena zela eta goiz horretan gosaltzeko txori bat jan zuela. Peiok pentsatu zuen:

- Azeriak ez digu ezer egingo, baina ez naiz hortik ibiliko.

Aurrera joan ziren, Gorbeiaiko gurutzeraino, eta handik ikusi zuten hurrengo mendia, Anboto.

Anbotoraino kotxez joan ziren. Oraingoan kotxearekin gora egin zuten, goiko parking batean utzi eta gora abiatu ziren. Nekatuta zeuden eta eguraldiak ez zuen onera egin nahi, euria zen eta hantxe zegoen txabola batean gelditu ziren txorizo bokata jaten. Euria gelditu zenean lainoa zegoen, ez zen ezer ikusten, baina Xabik eta lagunak aurrera jarraitu zuten. Lainoa garbitu zenean, ez zeuden Anboton! Galduta egon ziren, baina ez ziren hantxe gelditu, mugikorra hartu eta 112ra deitu zuten eta Peiok esan zion Amaiari:

- Ez dakizu galduta gaudela baso batean, hemen ez dago kobeturarik!
Amaiak mobila gorde eta esan zuen:

- Ederto, eta zuk zer egin nahi duzu Peio? Ba al duzu planen bat?
Peio tontolapiko baten moduan gelditu zen eta isildu egin zen.

Xabi eta Maddi aurrera joan ziren eta Peio eta Amaia haien atzetik. Arratsaldeko zazpiak ziren eta eguzkia jaisten hasi zen. Kanpamendu bat egingo zuten, hantxe lo egiteko.

Gauean Xabik soinu bat entzun zuen, eta ez bat bakarrik, baizik eta hiru soinu batera egiten:

- Auuuuuuuuuu!

Orduan denak altxatu ziren eta makila batzuk hartu zituzten. Otsoak ziren, baina ez ziren haiengana joan baizik eta basurde batengana. Denak joan ziren berriro lotara.

Hurrengo egunean soinu handi batzuk entzuten zituzten, San Pedro eguna zen! Orduan denak poztu ziren hantxe herri bat zegoelako. Hortik deitu eta Ertzainak haien bila joan ziren. Eta denek pentsatu zuten bere artean...

- Hobe hurrengoan eguraldia ikusten badugu berriro ez galtzeko, jajajaja!

Eta hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Barrutialdeko plazan.





Miren Bartolome
DBH 1. maila

BIGARREN AUKERA

Domeka da, maiatzaren 16a eta arratsaldeko bostak dira. Nire gurasoek Liberen etxean nagoela uste dute, baina hori ez da egia. Izan ere, orain dela askotik joan nahi nuen toki baterantz abiatzen nago, nire sekreturik sakonena kontatzeko prest. Oso azkar noala iruditzen zait, eta ez dakit ulertuko nauzuen. Egingo dudan hau guztia zuek hobeto ulertzeko, hasieratik kontatuko dizuet.

Hilabete batzuk atzeratuko gara, udara. Dena hasi zen hor. Mundu guztiarentzat uda da dagoen urtarorik onena, eskolarik gabe, kezkarik gabe, hondartzan lagunekin egun guztian, gau luzeak kalean... baina nire uda guztiz kontrakoa izan zen.

Abuztu hasieran etorri nintzen bueltan oporretatik eta nire betiko lagunak hotz sentitzen nituen, ez ziren betikoak. Ez nuen nire lekua aurkitzen beraien artean, denak asko aldatu zirela konturatu nintzen. Oso desberdinak ziren. Lehen, denak oso pozik egoten ziren beti eta oso ondo pasatzen genuen denok batera. Bueltatu nintzenean, drogekin hasi zirela ikusi nuen eta axola zitzaien gauza bakarra beraien burua zen. Sentitzen nuena kontatu nien, eta erantzun zidaten gauza bakarra nire txorradak alde batera uzteko izan zen. Beti triste nengoela eta ez zitzaizkidala besteak axola esan zidaten. Oso txarto nengoen, bakarrik sentitzen nintzen eta ez nekien zer gehiago egin nezakeen dena beti bezalakoa izateko. Beraz, amari dena kontatzea erabaki nuen, eta biok amaitu genuen berdina pentsatzen: nire onerako erabakirik onena beste batzuekin elkartzea izango zen. Ez nekien oso ondo zer egin; nire betiko lagunak ziren eta ez zitzaidan beraiengandik aldentzeko ideia asko gustatzen. Baina ez zegoen beste erremediorik, ez nintzen ondo egongo beraiekin jarraitzen banuen.

Oso txarto pasatu nuen, bakarrik sentitzen bainintzen. Uda guztia etxean egon nintzen, bakarrik, triste, egun guztia negarrez. Ama oso kezkatuta zegoen. Ez zekien zer egin ni animatzeko. Berak ere ez zuen ondo pasatzen. Gau batean, ura edatera joan nintzen eta negarrez entzun nuen ama bere logelan. Aita ama lasaitzen zegoen, baina ezin izan zuen. Ezin nuen jasan ama niregatik horrela egotea. Munduko pertsonarik txarrena sentitzen nintzen.

Egun batean, jaten geundela, gurasoek institutuz aldatuko nindutela esan zidaten. Ez nuen institutu berriko inor ezagutzen, eta beldurtuta nengoen. Institutura hasteko eguna heldu zenean, oso arraroa egin zitzaidan kotxez joatea, txikitatik joaten bainintzen lagunekin ibiltzen. Amak urduri nengoela nabaritu zuen, eta ni lasaitzen saiatu zen. Lehenengo eguna ez zen pentsatzen nuen bezain txarra izan, are gehiago, nahiko ondo joan zen. Oso pozik iritsi nintzen etxera. Amari dena kontatu nion eta asko poztu zen hori entzutean. Gauzak onera zioazela ematen zuen. Etxeko giroa hobera joan zen. Nire gurasoak horren kezkatuta ez zeudela nabari zen, zoriontsuago zeudela. Ni ere hobeto nengoen, denbora dezente igaro ondoren, pozik nengoen. Berriz ni neu nintzela nabaritzen nuen. Baina egunak pasatzen joan ziren eta gauzak aldatu egin ziren, berriro txarrera joan zen dena. Etxera heltzen nintzenean amari etxerako lanak nituela esaten nion eta nire gelan negarrez geratzen nintzen arratsalde guztia. Ez nion ezer kontatu nahi, ez kezkatzeko. Zerbait galdetzen zidanean, gezurra esaten nion beti. Txarto sentitzen nintzen, ez zitzaidan amari gezurretan aritzea gustatzen, baina ez zegoen beste erremediorik; ezin nion pasatzen ari zena kontatu.

Hileak pasatu ditut txarto, bakarrik, isilpean negarrez. Zulo sakon baten barruan banengoen bezalaxe sentitzen naiz, irtenbiderik gabeko zulo batean. Mundu guztiarentzako traba bat naizela sentitzen dut, eskolan, etxean, lagunekin... denei txarto egiten diet, eta uste dut bizitza errazagoa izango zela ni bertan ez banengoen. Hau izan da kontatu nahi nizuena, heldu naiz amaierara, barkatu egin dizuedan min guztiagatik. Hemendik aurrera ez da horrela izango. Agur.

Urte asko pasatu dira hau idatzi nuenetik, eta zuek pentsatu ez arren, nik hemen jarraitzen dut, nire momenturik onenetariko batean. Gauzak asko aldatu dira azken urteetan, eta ez gauzak bakarrik, ni ere bai. Zuek zerbait oso larria egin nuela pentsatzen duzue, eta ez zoazte bide okerretik. Bai, nire buruaz beste egiteko asmoa neukan, horregatik idatzi nuen eskutitz hau, denek jakiteko zergatik egin nuen, zer pasatu zen une horretara heltzeko eta gehienbat, zelan sentitzen nintzen ulertzeko. Baina bizitzak bigarren aukera bat eman nahi izan zidan. Salto egiteko prest nengoenean, ama agertu zen. Arin batean hartu ninduen, justu-justuan, bi segundo beranduago helduko bazen...

Urteak eman ditut psikologoetan, laguntza askorekin, eta azkenean, idatzi nuen eskutitza irakurtzea lortu dut. Ez da erraza izan, ez pentsa. Askok kostatu zitzaidan hau guztia ahaztea baina azkenean lortu dut. Eskutitza irakurtzeko indarrak hartu ditut gauza bat egin nahi dudalako. Beste amaiera bat eman nahi diot honi, ez delako dena hain txarra izan, gauzak asko hobetu dira denborarekin. Orain, bizitza beste ikuspuntu batetik ikusten dut, eta zuei kontatu nahi dizuet.

Lehenengo eta behin, gogoan izan ez zaudela bakarrik. Beti egongo dela maite zaituen norbait, beti, zuk ez pentsatu arren, eta beti egongo da norbait zuri laguntzeko prest. Ez da dena dirudien bezain txarra, gauza onak beti etorriko dira, dena bere denboran. Egin behar den gauza bakarra pazientzia izatea da, eta oso txarto sentitu arren, ez egin txorakeriarik, ez dakizu zer gertatu daitekeen etorkizunean. Triste egoten ere ikasi behar da, pozik edo haserre egotea bezala, ez da erraza, ez digu inork horretaz hitz egiten, baina hala da.

Jendea joan eta etorri egingo da, beste gauza asko bezalaxe, baina zu beti egongo zara hor, eta zeure burua maitatzen ikasten duzunean, dena oso desberdina izango da. Zaila izan arren, jendeak esaten dizkizun gauza txarrei, ez egin jaramonik, eta ez alderatu zeure burua beste inorekin; denak gara desberdinak, baina perfektuak, bakoitza modu batean ala bestean.

Mundu guztiak esaten dituen gauzak direla pentsatuko duzue, baina nik benetan aldatu nahi nuen, pozik egon nahi nuen, eta hitz horiek buruan sartzea lortu dut. Hortik aurrera, nire burua maitatzen ikasi dut apurka-apurka eta poztasuna berreskuratzen joan naiz. Momentu honetan oso pozik nago, eta asko maite dut nire burua, baita nire inguruak ere, beraiek gabe ez nintzelako orain naizen bezalakoa izango. Nire ondoan egon zareten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkizuet nigan sinetsi duzuelako, gehienbat nire amari, beti maite izan nauelako, eta berarengatik ez balitz, ez nintzelako hemen egongo.





Amaiur Urrutikoetxea Fernandez
DBH 1.maila
“Lagunekin egotea gustatzen zait”

DESAGERTZEKO ARRISKUAN

Bai, desagertzeko arriskuan, baina zer dago desagertzeko arriskuan? Lehenengo gauza burura etortzen zaizuna animaliak dira. Animaliak bai, eta beste gauza asko, baita norberaren maitasuna ere.


Laura, neskatila bat da, orain 14 urte dituena. Herri txiki batean bizi da, bere gurasoekin, nebekin eta bere 2 txakurrekin. Ikastolan lagun asko ditu, baina berari ez zaio iruditzen lagun asko dituenik. Lehen oso neska alai zen, uda heldu zen arte. Berak 5 urte zituenetik lagun on bat du, Paula. Lagun gehiago ditu, baina Paulari dena kontatzen dio.

Uda heldu zen, eta neska-mutil guztiek bezala, lagunekin geratu nahi zuen. Bere lagunak: Carlak, Paulak, Anek eta Martak, hondartzara joatea erabaki zuten, Laurarekin noski.

Uztailaren 3a zen, goiza, eta arratsaldean lagunekin geratu zen hondartzara joateko. Esnatu eta lehenengo gosaldu egin zuen, hortzak garbitu eta ohea egin zuen, 10:23 ziren. Arratsaldeko 17:00etan geratu zen. Hori dena egin ostean dutxatu eta arratsaldeko arropa aukeratu zituen, baita motxila ere, bertan toalla eta eguzkitako-krema sartu zituen. Bazkaldu ondoren ia 15:30ak ziren, eta, bera oso puntuala denez, janzteia erabaki zuen. Paulari galdetu zion ea bikinia edo bainujantzia eramango zuen, eta esan zion denek eramango zutela bikinia. Orduan, berak ere bai. Paulak argazki bat bota zion. Laurak bikinia jarri eta ispilura begiratu zuen. Ez zuen bere gorputza gustuko, Paularen argazkiarekin konparatu zuen, eta ez, ez ziren gorputz berdinak, baina biak ziren oso politak, gorputz guztiak politak direlako diren modura. Laura txarto sentitzen

hasi zen, ez zegoelako gustura bere gorputzarekin, lodi ikusten zuen. 16:30ak ziren, eta etxetik irteteko ordua iritsi zen.

Hondartzara heldu zen eta bera amari “agur” esan zion. Bertan Carla eta Anerekin topatu zen, geroago Marta heldu zen eta Paula berandu iritsi zen, betiko moduan. 17:25ean denak zeuden hondartzan. Orduan bainu bat hartzea eta eguzkitara joatea erabaki zuten. Laura txarto sentitzen zen, berarentzat denek zutelako gorputz polita, berak izan ezik, baina hori gezurra zen, nahiz eta argal edo lodi egon.



Handik egun batzuetara...

Laura oso ahul zegoen, ez zuen indarrik ezer ez egiteko, gau asko negarrez pasatzen zituen... eta hori, ez zuelako bere gorputza maite. Kirol asko egiten hasi zen, gero, jatekoa gutxitu zuen eta azkenean jateari utzi zion.

Iraila heldu zen, eta, neska-mutil guztiek bezala, ikastolara joan behar zuen. Goizeko 9:30etik 17:00ak arte egon behar zuen bertan, orduan, ikastolan bazkaltzen zuen. Bere lagunek ez zekiten ezer, Paulak ere ez. Lehenengo eguna zen eta Laura txarto zegoen ez zuelako nahikoa jaten. Ikastolan, bazkaltzeko ordua iritsi zen, dena bazkaldu zuen eta gero, komunera joan eta dena bota zuen. Horrela aste bat edo bi gutxienez, Paula konturatu zen arte. Paulak nabaritu zuen Laura ez zela betikoa, bere jokatzeko erarengatik, emozioengatik..., orduan Paulak bere gurasoei esatea erabaki zuen. Paularen gurasoak eta Lauraren gurasoak nahiko ondo eramaten ziren, orduan Paularen gurasoek Lauraren gurasoei kontatu zieten pasatzen zen guztia. Lauraren gurasoek ez zuten sinesten pasatzen ari zena, baina geroago konturatu ziren itzelezko arazo larria zela.

Hasieran haiek saiatu ziren zerbait egiten, baina ez zuten lortu, orduan konturatu ziren espezialista baten laguntza behar zutela. Laurak “Anorexia” zuen, eta bai, oso errez esaten da, baina oso zaila da gaixotasun horretatik irtetea. Laurak ikastolara joateari utzi zion, bere gaixotasun larrian zentratu behar zelako. Espezialista batengana eramane zuten, baita psikologarengana ere.

Hilabete batez ematen zuen dena berriz ondo zegoela, baina ez. Laurak berriz utzi zion jateari eta bat-batean, sukaldean zegoela, alditxartuta lurrera jausi zen. Momentu hartan bere neba nagusiarekin zegoen etxean eta nebak bere amari deitu zion. Ama jarraian iritsi zen eta anbulantzia bati deitu zion. Anbulantzia ere, jarraian heldu zen, orduan, Laura ospitalera eraman zuten eta bertan ingresatuta utzi zuten.

Bere gela berean beste neskatila bat zegoen, Nahia, eta berak ere arazo bera zuen: Anorexia! Bata besteari kontu-kontari egon ziren, eta lagun oso onak egon ziren.

Egunak aurrera joan ahala, Laura hobetzen joan zen, ez zegoen guztiz ondo, baina hasieran baino hobeto bai. Eskerrak eman nahi zizkion Nahia, bera izan zelako “bizitza salbatu ziona”, berak ez bazion ezer ez esango gurasoei, oraintxe Laurak ez daki non egongo zen.

Hiru hilabete geroago... (Oraindik ingresatuta dago)

- Urte Berri on! -esan zuten ozen guztiek-.

Urtarrilaren 1a zen, eta oso pozik zeuden, Nahia ia etxera joaten utzi zioten, baina Laurari oraindik ez. Hala ere, gutxi faltatzen zitzaion.

Hilabete batera Laura ondo zegoen eta, etxera itzuli zen, oso pozik jarri zen, gainera bere lagun taldeak sorpresa bat egin zioten, oso-osoz pozik zegoen, inoiz bezala, bere familia eta lagunak ere pozik zeuden, ia-ia urte batean ez zutelako pozik ikusten.

Hilabete bat geroago...

“Kaixo! Ni Laura naiz, eta kontu honetan erantzun eta hitz egingo dut gaintitu berri dudana gaixotasunari buruz, anorexiari buruz”.

Bai, neska hori ni naiz, Laura, sare sozialetan kontu bat zabaldu dut, nire esperientziari buruz hitz eta galderak erantzuteko, hau da, jendeak dituen galderak erantzuna emango diet, eta uste dut ideia ona izan dela, jende askori lagundu ahal diolako.

Gaur otsailaren 3a da, eta anorexiarekin uztailearen 3an hasi nintzen, 7 hilabetetan osatu egin naiz, nahiko arin ematen du, baina... niri luzeegiak egin zaizkit. Nik, orain, nire gorputza den bezala maitatzen dut, ni naizen bezalakoa naizelako, eta, gainera, nik nire burua ez badut maite, nork egingo du? Ni naizen bezala polita naiz, eta ez diot inori kontrakorik esaten utziko. Eta bai, akatsak ditut, baina akats horiek dira bakarra bihurtzen nautenak.

Urte batzuk geroago...

“Eskerrik asko, 2,3 M jarraitzaileengatik!” Bai, berriro ni, orain dela 3 urte hasi nintzen sare sozialekin, 14 urterekin, orain 17 ditut eta 18 egingo ditut laster. Zein arin pasatzen den denbora, oraingo urtean unibertsitatera sartuko naiz! Psikologia ikasiko dut, nire arazo berdinarekin dauden neska-mutilei lagundu nahi diet eta.



Urte batzuk geroago...

“Kaixo, Laura Garziak osasun-gune bat zabaldu du, anorexia duten neska-mutilentzat”.

Zelako notizia! Bai, ni naiz eta osasun-zentro bat zabaldu dut, langileak ditut eta horietako bat Nahia da. Osasun zentroan, aholkuak ematen dira eta laguntzen saiatzen gara, Nahiak eta biok anorexia izan genuen eta badakigu zer den. Sare sozialetan nahiko ospetsua egin naiz, eta pozten naiz Interneten “Familia” bat izateaz.

Lauraren zentroa famatua egin da, oso-oso ona da eta jende askori lagundu diote bertan. Laura pozik dago, eta, bere txikitako ametsa bete du, Estatu Batuetara joatea, irabazi duen diruarekin, noski.

Hogeitabost urte geroago... (Notiziak)

“Laura Garzia, zoritxarrez, gaur abuztuaren 13an, hil egin da, bere paziente batek eraso egin ondoren... Bere osasun zentroan izan da...”

Hauxe da Lauraren istorioa, anorexia izan du, gainditu du, lagundu du eta gainera ospetsua egin da. Zoritxarrez, bizi garen gizarte honetan, jendeak gainerakoak kritikatu behar ditu, bere buruarekin gustura sentitzeko. Ez dakit nor den Lauraren istorioa irakurri berri duena, baina gogoratu zu ederra zarela zaren bezala, eta ez zarela aldatu behar beste bati gustatzeko, eta maite itzazu zure akatsak, horiek baitira bakarra bihurtzen zaituztenak.



Haizea Martinez Rico
DBH 2. maila

BIZITZA EZ DA DIRUDIENA

Bazen behin, Zaragozako herri txiki batean, Cariñena herrian bizi zen familia bat. Amona Maria eta haren biloba Ane. Anek ez zuen gurasorik, txikia zenean bere gurasoek istripu larri bat izan zuten eta bertan hil egin ziren.

Oso pobreak zirenez, etxe txiki batean bizi ziren. Ez zuten ia jatekorik, baina Ane, dena den, pertsona zoriontsua zen. Goizetan, jaikitzen zenean Anek esne pixka bat hartzen zuen, arropa jantzi eta hiriko plazara joaten zen. Bertan berak margotutako margolanak saltzen zituen, horrela diru pixka bat irabazten zuen. Irabazitako diruarekin janaria erosten zuen. Etxera bueltatzen zenean amona Mariari gosaria ematen zion eta etxeko beharrak egiten zituen, arratsaldeetan behiak jezten zituen eta janaria ematen zieten.

Maria herriko tabernara joaten zen kartetara jolasten, eta horrela egiten zuen egunero. Ane ez zen eskolara joaten, etxean geratu behar zen bere amonari laguntzen, beraz, Aneren bizitza oso gogorra zen. Mariak gurrpil-aulki bat behar zuen alde batetik bestera joateko, asko kostatzen baitzitzaion ibiltzea. Domeka guztietan herritik buelta bat ematen zuten, eta ilunabarra ikusten zuten.

Anek ez zuen inoiz telebista bat ikusi, ezta eskola bat nolakoa zen barrutik, amonak irakatsitakoa ikasten zuen. Gauetan beti pentsatzen zuen nolakoa izango ote zen bere bizitza beste leku batean biziko baziren. Ane ez zen inoiz oporretan joan, ez zen ezta Cariñena herritik irten ere. Goizero bezala, Ane plazara joan zen marrazkiak saltzera. Bat-batean neska bat hurbildu zitzaion eta galdetu zion zergatik zegoen marrazkiak saltzen, eskolan egon beharrean. Anek pobreak zirelako eta ezin zutelako eskola ordaindu erantzun zion, orduan neskak begiratu zion eta marrazki guztiak erosi zizkion eta diru gehiago ere eman zion. Ane oso pozik jarri zen, eta besarkada bat eman


zion. Egun hartatik lagun minak egin zirenez, leku guztietara joaten ziren batera marrazkiak saltzen zituzten bitartean. Irati ere ez zen inoiz oporretan joan, baina hitz eman zioten elkarri nagusiak zirenean batera joango zirela oporretan munduko edozein lekutara, baina batera joango zirela. Irabazitako diruarekin, erdia lapiko batean gordetzen zuten dirua aurrezteko. Lapikoa Anek gordetzen zuen ohe azpian, inork ez lapurtzeko.

Egun batean Maria gaizki sentitzen hasi zen. Ez zutenez mugikorrik, Ane korrika batean Iratiren etxera joan zen, eta gertatutakoa kontatu zion, eta anbulantzia bati deitu zioten. Anbulantzia etorri zenean barrura sartu ziren eta ospitalera joan ziren.

Heldu zirenean, Maria gela batean sartu zuten, eta Ane itxarongelan geratu zen. Orduak eta orduak eman zituen itxarongelan. Bat-batean mediku bat irten zen, eta Anerengana hurbildu zen. Era guztietako probak egin zizkiotela eta garuneko tumore bat aurkitu ziotela esan zion. Anek, momentu hartan, entzuteari utzi zion eta amonarekin igarotako momentu guztiak eta zein pozik zeuden pentsatzen hasi zen, pixkanaka malkoak hasi zitzaizkion begietatik irteten, medikuak zapi bat eman zion malkoak garbitzeko eta amona ikustera joan zitekeela esan zion. Ane gelan sartu zenean, hotzikara bat sentitu zuen gorputzean, Maria ikusi zuenean ohean etzanda. Mariak Aneri eskua eman zion, Anek gogor eutsi zion, eta aulki batean eseri zen. Medikuak galdetu zion ea gurasorik bazeukan, beraiei deitzeko, Anek malkoz beteriko begiekin begiratu zion eta ezetz erantzun zion, baina izeba bat zuela esan zion. Medikuak mugikorreko zenbakia galdetu zion, Anek izebari gertatutako guztia kontatu zion eta izeba berehala etorri zen. Ane korrika batean joan zen izebari besarkada bat ematera, izeba Mainer Arabatik etorri zen kotxez, gelara sartu zenean eta Maria ikusi zuenean berehala pentsatu zuen laster hilko zela, baina ez zuen ezer esan, Ane kezka ez zedin. Anek Iratiren etxean eman zuen gaua, hurrengo egunean Anek ez zuen margolanak prestatuta plazan saltzeko, arratsalde osoa eman zuelako ospitalean eta gaua Iratiren etxean. Ane negarrez hasi zen, bazekien amona Maria gaixorik zegoela eta ospitalean egunak iraun behar zituela eta bakarrik geratuko zela etxea zaintzen. Momentu hartan bakarrik sentitu zen.

Lau hilabete igaro ziren Maria ospitalean sartu zutenetik, Ane goizetan, beti bezala, plazara joaten zen margolanak saltzera; arratsaldeetan Iratiren etxean jaten zuen. Gero behiak jeztea amaitzen zuenean, Maria ikustera joaten zen ospitalera eta gauz bueltatzen zenean Iratiren etxean egiten zuen lo.

Izeba Mainerrek ospitalean ematen zuen egun osoa Maria zaintzen. Egun batean Ane plazan zegoela Irati bizikletarekin agertu zitzaion, ospitalera berehala joateko esan zion eta Ane ospitalera heldu zenean izeba Mainer ikusi zuen aulki batean negarrez eta biak batera sartu ziren Mariaren gelara. Medikuak Maria gero eta okerrago zegoela esan zien, eta ez zuela egun bat gehiago iraungo bizirik. Ane negarrez hasi zen, ez zuen imajinatu nahi nolakoa izango zen bere bizitza amona Maria gabe. Gogor hartu zuen Mariaren eskua eta esan zion nonoiz diru asko lortuko balu berari esker izango zela; besarkatuta zeudela, Mariak begietara begiratu zion eta hil egin zen.



Egunak pasatu ziren Maria hil zenetik, Ane ez zen plazara joaten, ezta behiak jeztera ere. Etxean zegoen giltzapetuta irten barik. Mainerrek berarekin bizitza proposatu zion, baina Anek ez zuen nahi, Mariaren etxean bizi nahi zuen. Bost urte pasatu ziren, Anek jada hemeretzi urte zituen, eta pisu batean bizi zen Zaragozan, Mainerrekin batera. Ane margolaria zen, eta diru asko irabazten zuen margotutako koadroak saltzen, laster famatua egin zen Espainia osoan. Amerikako margolari oso famatu batek esan zion koadroak margotzeko kontratatuko zuela diru askoren truke. Anek ezin zuen sinetsi esaten ari zitzaiona, baina egin nahi zuela seguru zegoen. Horrela Ane mundu osoan famatua bihurtu zen margotutako koadroekin eta munduko margolaririk onenetarikoak ere bihurtuko zen. Eta emandako hitza betetz, Anek eta Iratik elkarrekin bidaiatu zuten mundutik zehar.





Markel Lejardi Zugazaga
DBH 2. maila

AMETS BAT

Bazegoen Aimar izeneko mutil gazte bat, 15 urte zituen eta Gernikan bizi zen. Aimar txikitatik oso oso lotsatia zen, ez zuen hitzik egiten kalean ezta institutuan ere. Lagun gutxi zituen, gero eta gutxiago, oso aspergarria zelako. Bere gurasoek arazo bat zuela konturatu ziren, eta psikologo guztiengana eraman zuten, baina psikologoek esaten zuten ez zuela ezer, bera horrelakoa zela eta lasai egoteko.

Bazegoen institutuan bere gustuko neska bat, Maite, pila bat gustatzen zitzaiona. Bere etorkizuna berarekin batera ikusten baitzuen, poz-pozik. Imaginatu ere egiten zuen, hori zen berari poza ematen zion gauza bakarra. Baina, noski, hain lotsatia izanda ez zuen berarekin hitz egiten, ez zuen harremanik. Horregatik whatsapp-etik hitz egiten zuten. Horrek animatu egiten zuen, baina ez zen berdina bizitza errealean, edo mugikorretik hitz egitea.

Aimar, nahiz eta lotsatia izan, oso buruargia zen, eta teknologian eta ingeniarietan oso ona zen. Bere beste amets bat handitan formula 1ean korritzea zen, eta horretara heltzen ez bazen, behintzat F1eko mekanikoa izatea.



18 urtekin hasi zen F1ean korritzen, afizionatuetan. Oso ona zen eta ederra zen bera ikustea. Bere bizitzako momentu famatuenean zegoen, eta neska asko bere atzetik zituen. Bi gauza zituen hor aukeratzeko: Neskei kasu egin edo karreratan zentratu. Azkenean karreratan zentratu zen, une kritikoenean zegoelako.

Bere bizitza aurrera zihoan eta 22 urte inguru zituenean, jada Fleko profesionaletan zegoen, munduko esanguratsuenetarikoa eta famatuenetarikoa zen. Euskalduna, gainera. Familia eder bat zuen jada, bere emaztea, Maite zuen! A ze poza hortik aurrera, ospetsua izateak lagunartekoagoa ere izatea eragin zion, bere bizitza aurrera zihoan, eta ondo gainera! Bi seme-alaba zituen, Eneko eta Ane, bikiak.

Baina bizitzan gauza onak gertatzen diren moduan, gauza txarrak ere gertatzen dira. Hori karrera batean gertatu zen, Nurburgring-nordschleife-eko zirkuitoan (Alemania). Lehenengo joan zen, aldearekin gainera, pista oso bustita zegoen eta labankor. Bera oso seguru zihoan, jada buelta bat falta zitzaion. Baina bat-batean, kurba zarratu batean, balaztak hondatu zitzaizkion, eta hormaren kontra izugarritzko istripua eduki zuen. Kotxeak su hartu eta bera kotxe barruan konortegabe gelditu zen.

Bi egun pasa eta gero ospitalean esnatu zen, pixka bat izututa eta min handiarekin. Han zuen familia berarekin, laguntzen. Medikuek esan zion gorputzean erredura larri batzuk zituela, eta oina izorratuta zuela. Hortik aurrera ezingo zuela berriro F1ean parte hartu. Aimarrek itzelezko etsipena sentitu zuen. Umore txarrez jarri zen eta asko tristetu zen. Hortik aurrera ezingo zuen bere ametsa bete.



Urteak aurrera zihoazen Aimarrentzat, eta bere bizitzak ez zion batere pozten, oraindik oina izorratuta zuen, eta muletekin ibili behar zen.

Hogeita hamar urte zituela, ez zuen ondo jokatu. Auzo txar batetik zihoala, aparteko kale batean hiru mutil gazte aurkitu zituen, nahiko arraroak ziruditen. Arropa beltzak zeramatzen, eta beraien artean zeozer egiten ari zirela zirudien.

Aimar beraien ondotik pasatu zenean, haietako batek labana batekin mehatxatu zuen. Hauxe esan zion:

- Aizu, gure taldean sartzen ez bazara, bihotzetik labana sartu, eta hemen kale erdian utziko zaitut !

Aimar, beldurtuta, beraien taldean sartu zen. Azkenean konturatu zen droga saltzaileak zirela. Auto-gidaria izendatu zuten, polizien arteko pertsekuzioetatik ihes egiteko. Bere autoa aldatu zuten, eskuekin gidatzeko. Eta horrela joan zitzaion bere bizitza. Familiari ez zion kasurik ere egiten eta Maite haserretzen hasia zen. Aimarrek beti esaten zion berdina, trankil egoteko.

Azken finean Aimarrek negozio horietan pila bat diru lortzen zuen, eta Maite harrituta zegoen. Hilean, bataz bestekoa eginda 3.000 € lortzen zituen. Baina egun batean, Aimar eta bere “lagunek” ihes gogorrean zebiltzala, poliziek harrapatu egin zituzten, eta noski, kartzelara sartu. Aimar orduantxe konturatu zen txarto egin zuela hasiera-hasieratik. Kartzelan 5 urterako sartu zuten. Kartzelan zegoen egunetan, Maite eta bere seme-alabak joaten zitzaizkion bisitan. Azkenean Maiteri guztia kontatu behar zion, eta orduan Maite benetan haserretu zen. Egun gutxitan joaten zitzaion Maite bisitan, zeozer eramaten. Gero eta gutxiago, gero eta gutxiago, azkenerako etorri ere ez zen egiten, eta Aimar konturatu zen utzi egin zuela. Eta ez zen bere bizitzan hain txarto sentitu. “Nire ametsetako emakumea, gaztetatik! Galdu dut, ezin dut sinetsi!” Pentsatzen zuen beti. Eta gainera bere seme-alaben bizitza ere galduko zuen.

Bost urte igaro eta gero, azkenean irten zen, eta egin zuen lehen gauza Maiteren bila joatea izan zen. Hasieran, beraien hasierako etxera joan zen, han ez zegoen, jadanik etxea salduta. Azkenean aurkitu zuen, bere izebaren etxean. Eztabaida gogorak edukita, azkenean Maitek aitortu zion, oraindik maite zuela. Gero F1era berriro sartzen ahalegindu zen, eta ez zuten utzi, baina beste ametsa bete zuen, F1eko mekanikoa izatea! Ez zuen famarik, dena galdu zuen kartzelara joan zenean, baina han zegoen, berriro hasieratik hasten.



Alain Martin Domínguez
DBH 2. maila

“Izan zirelako gara, garelako izango dira”

BIRUS ASTUNA

Jazoera anitz izan dira,
aurtengo gertakizunak,
batzuetan gauza alaiak,
eta beste batzuetan ilunak,
ospitaleak bete ditugu azkar,
eta hustu herriko plazak.

Etxean geunden sofán etzanda,
entzuten albisterik txarrenak,
ordenagailuekin gau eta egun,
egiten bideo dei astunak,
eta asteburuak igaro,
ikusten film atseginak.

Orain pozik gaude,
famiárekin pasatzen gabonak,
kalean dabilta tabernan gazteak,
eta etxean daude besaulkian aiton-amonak.

Berrogeialdia bukatu da,
eta daude jendez beteta tabernak,
birus nekagarria kontuan hartuta,
zapuzten dira momenturik zoragarrienak.

Janari ugari antolatu digu,
pozaren-pozez amonak,
eta izekok erosi digu atseginez,
kale nagusiko okindegian madalenak.

Ailegatu da urte berria arin,
eta joan dira geldo urteko egun astunak,
etxekeekin gaude telebistaren aurrean,
jaten gozo-gozo mahats denak.

Kalean gaude jakarekin jantzita,
ikusten aitonak botatako su-artifizialak,
apurtu dira teilatuko antenak,
ezin dira ikusi telebistako kanalak,
horregatik nago idazten olerkiak.



June Gisasola Gandiaga
DBH 2. maila
“Bihar ere argituko dun”

EGUNEROKO MAITEA

Kaixo eguneroko maitea, egunerokoan idazten dudana lehen aldia da eta ez zait asko gustatzen nire buruaz hitz egitea, baina gure euskarako andereñoak jardura hau gomendatu digu gure idazlanetako euskara-maila hobetu dezagun.

Beno ba nire burua aurkeztuz hasiko naiz. Shaira dut izena eta jatorriz afrikarra naiz, hain zuzen ere, Malitarra; baina euskalduna ere banaiz; izan ere, ia hiru urte daramatzat hemen bizitzen eta izugarri maite dut Euskal Herria, eta batez ere bere hizkuntza, euskara. Oso interesgarria iruditzen zait; hori bai oso zaila da hau ondo menperatzea, horregatik saiatzen naiz horrenbeste eskolan. Bai denbora asko pasatzen dut ikasketetan, baina baditut arrazoiak! 14 urte ditut eta hurrengo hilean 15 egingo ditut. Nire urtebetetzean hiru urte beteko dira Euskal Herrira etorri nintzenetik.

12 urterekin etorri nintzen Euskal Herrira; izan ere, lehen nire gurasoekin eta nebarekin, Marekekin, bizi nintzen Malin, beste familia batekin partekatzen genuen kanpin-denda txiki batean. Badakit, oso triste da, eta oraindik milaka familia, milioika ez esateagatik, egoera horretan bizi dira.

Nahiz eta bizimodu pobrea izan, oso haurtzaro zoriontsua izan nuen nire lagunekin, nire nebarekin... batzuetan nire jaioterria faltan botatzen dut; baina hemen bizitzea paradisu baten bizitzea bezalakoa da niretzat, eta ezingo nuke ikasteko eta dirua irabazteko eman didaten aukera izugarri hau galdu.

Dagoeneko galdera asko izango dituzu, beno ba, istorio guztia kontatuko dizut.

Esan dizudan bezala, ni Malikoa naiz. Han gerra handi bat hasi zen eta jende asko hil zen eta hildakoen artean, nire aita zegoen. Egunsenti batean gizon beldurgarriak gure kanpin-dendara etorri ziren beraien armekin. Bere momentuan ez nuen ulertu, baina gizon beldurgarriek nire neba nagusia, Marek, erreklutatu nahi zuten. Beraiek bezalako monstria bihurtu nahi zuten Marek, nire anaia xelebrea eta alaia. Nire aita gizon madarikatu haiek zetozeela konturatu zenean, nire amari osaba aurkitzeko agindu zion; eta egun hartan ikusi nuen gure kanpin denda eta aita azkenengoz. Nik ez nuen ezertxo ere ulertzen, baina banekien ez zegoela ezer onik pasatzen, zeren eta nire ama negarrez zihoan urruntzen ginen bitartean. Bost minutu gindoazen korrika ama eta bi seme-alabak tiroa entzun genuenean, orduan nire anaia nagusia eta ama inoiz ez bezala hasi ziren garrasika eta negarrez. Nik ez nuen ezer ulertu eta beldurtu egin nintzen, baina berehala ulertu nuen zarata hori tiro bat izan zela, eta zerbait txarra gertatu zitzaioela gure aitari. Orduan hasi nintzen ni ere ama eta Marekekin batera negarrez.

Denbora bat negarrez aritu eta gero, amak bere malkoak igurtzi zituen eta berari segitzeko keinua egin zigun, eta guk ezer esan gabe bere pausoak jarraitu genituen hitzik esan gabe. Egun osoa oinez ibili ginen, ez dut inoiz ahaztuko pasatu nuen bero izugarria eta eztarria inoiz baino lehorrago utzi zidan egarria. Gure zorteak apur bat hobera egin zuen gizon nagusi batek bere kamionetara igotzera gonbidatu zigunean, baina ez geunden bakarrik, beste hamar bat pertsona zeuden kamioian; eta horrela egin genuen ia egun bateko bidaia hura, gure osabaren kokalekuraino, Ghanaraino.

Osaba lehen aldiz ikusi nuen gau hartan, aitaren antz handia zuen eta horrek goibeldu ninduen, aita galdu genuela gogorarazi zidalako; baina neska ausarta izan nahi nuenez, malkoak gorde nituen. Kontua da gau hartan bere etxean egin genuela lo, etxe txikitxo batean (baina behintzat etxe bat zen). Hurrengo egunean goiz altxatu ginen, bostak inguru eta osabak auto batera sartzen ginen bitartean esan zigun:
- Agur! Ondo pasatu Espainian eta zaindu zuen ama!

Nire buruak eztanda egin zuen, Espainiaaa? Amak eta Marekek ez zuten erreakziorik izan orduan susmatu nuen beraiek bazutela horren berri (eta horrela zen), beraz, ez nuen ezer esan eta autoa gidatzen zuen gizonarengan bildu nuen nire arreta. Gizon gaztea zen, 25 urte ingurukoa eta osabaren laguna zela uste dut , beroni begira geratu nintzen berriz ere lo.

Amaren ahotsak izartu ninduen, gidariarekin zebilen hizketan eta sobretxo bat ematen ikusi nuen (dirua zela uste dut) jarraian, gidariak hogeit hamar minututara geundela esan zion. Amak Mareki eta neuri deitu zigun, eta helburu ezezagunerantz abiatu ginen. Bost minutu inguru ibili genituenean horma txikitxo bat ikusten zen urrunean, eta zer izango zen galdetu nion nire buruari. Hurbildu ahala, gero eta handiagoa bihurtzen zen horma hura eta azkenean galdetu nuen:
- Zer demontre da horma hura?
- Hesi bat da, eta saltatu egin behar dugu - erantzun zidan Marekek.

Imajinatzen duzu nire aurpegia hori entzun nuenean, harrituta gelditu nintzen, eta noiz saltatuko genuen galdetu nion, gauean izango zela erantzun zidan. Nire burua ez nuen gai ikusten hesi erraldoi hura saltatzeko, eta nola saltatuko genuen galdetu nion. Berak beti bezala txantxa batekin erantzun zidan:

- *Hegan egingo dugu!*

Gaua iritsi zen, eta berarekin hesia saltatzeko momentua. Beste hainbat pertsona zeuden gu bezala saltatzeko asmoz, haurrak, emakumeak, gizonak (gehienbat)... Baina ez zuten denek lortu. Marekek lagundu zidan saltatzen, eta guk pasatu genuen, baina ama lurrera erori zen, eta bertan gelditu zen, etzanda. Ez zuen berriro saiatzeko indarrik, eta Mareki ni zaintzeko agindu zion. Berdez jantzitako poliziek adingabekoen zentro batera eraman eta bertan hilabete bat igaro ostean banandu egin gintuzten. Nire zorionetan, urriaren 17an, ni Euskal Herriko harrera etxe batera eraman ninduten, orain nire etxea dena, eta Marek, Kataluniako beste batera eraman zuten. Ni oso pozik bizi naiz hemen, baina faltan botatzen dut nire familia. Beraiek gogoan ditudala, egunero joaten naiz institutura, eta hainbeste ahalegintzen naiz ikasketetan, handitan medikua izan nahi dut nire lurraldean; txarto pasatzen ari diren pertsona guztiak laguntzeko, eta lortuko dut!



Xabat Irazabal López
DBH 2. maila

“Denborak ontzen ditu intxaurreak”

EUSKAL HERRIKO MISTERIORIK HANDIENA

Bazen behin... Ez. Baziren behin hiru pertsona arraro, baina oso lagunak zirenak. Gernika hirian bizi ziren, herri txikia, polita, trankila.. baina sekretuz betea. Beno, harira, istorio honetan, gure misterioaren parte hartuko zuten protagonistak Kepa, Naroa eta Jon ziren. Haien arteko harremana bitxia zen. Izan ere, nahiko ezberdinak izanda oso lagunak ziren.

Istorio honetan, protagonista Kepa zen, mutila zen, oso pertsona ona, argia eta pixka bat inozoa. Homosexuala zen, eta ez zitzaizkion besteen iritziak axola. Bere aita, bera jaio eta aste batzuk geroago hil zen. Amak kontatu zionaren arabera, ez zekiten bere heriotzaren arrazoa, baina Kepari oso arraro egiten zitzaion hura, eta amak zerikusia zuela pentsatzen zuen; izan ere, ama oso pertsona txarra eta homofobia zen, eta gainera, Kepari mehatxuka hasten zitzaion nobio bat zuela eta; herritik joango zirela esanez. Nahiz eta amak aita hilda zegoela esan, Kepak bazekien hura bizirik zegoela, eta hilda zegoela egia izanda, amak zerikusia zuela ondorioztatu zuen, zeren eta bere aita aberatsa zen, eta agian aitak zuen dirua dela eta hil zuen. Baina horri buruz pentsatzen hasten zenean, teoriak alde batera uzten zituen, eta mundu errealerara bueltatzen zen, oso bakarrik sentitzen zen mundura. Hori dela eta, asko estimatzen eta maitatzen zituen bere lagunak, oso garrantzitsuak ziren berarentzat, haiekin bere bakardadeaz ahazten zen.

Naroa lagunaren artean neska bakarra eta Keparen lehen laguna izan zen. Baita nahiko optimista, jatorra eta entzuten zekien pertsona zen. Bere janzkera oso arraroa zenez, bulling-a jaso zuen beste ikasleen partetik eskolan. Zuzendaritzari gertatzen ari zitzaiona esatean, barre algaretan bere errua zela esan eta pertsona normal baten moduan janzteko esan zioten. Egun hartan ezagutu zuen Kepa, izan ere, Kepak neska defendatu zuen beste ikasleen aurrean.

Handik aurrera, lagun min egin ziren, eta beti berbetan zebiltzan haien arazoak bata besteari kontatzen, horregatik, Naroak bazekien Keparen gurasoen artean gertatutakoa. Lagun minei, detektibeak asko gustatzen zitzaizkielako eta neskaren ama EHPST-ko (Euskal Herriko Polizia Sekretuen Taldea) agentea izanda makina eta informazio asko lor zitzaizketen, bere aitaren misterioari buruzko informazioa bilatu zuten. Ez zuten ezer ere ez aurkitu, bakarrik hilda zegoenaren albiste bakarra eta funerariaren argazki batzuk intzineratu zutela demostratzen zutenak; horrez gain Kepak aita bizirik zegoela bazekien.

Gure koadrilako azken kidea Jon da. Jon ez zen batere arraroa eta gaur egun normala dela esango genuke. Altua, ilehoria, begi urdinekoa... perfektua dela ematen zuen, hori dena Kepari oso arraroa iruditzen zitzaion, nola zen posible horrelako pertsona bat beraiekin egotea? Jonek zioen besteak oso gaiztoak zirela, beti zeudela alkoholaren eta sexuaren munduan; eta berak ez zuen hori nahi aita alkoholikoa zelako eta hura gogoratzeak triste jartzen zuelako. Nahiz eta harrera etxe batean bizi aita ez zelako bera zaintzeko gai ikusten, Jonek aita askotan bisitatzen zuen, aitarekin zegoen psikologoak bere semerekin askotan egoteko gomendatzen ziolako, amaren heriotza gainditzeko eta alkohola uzteko laguntzen ziolako. Hasieran, bi lagunek, hau da, Norak eta Kepak, ez zuten berarekin egon nahi, esandakoa gezurra bazen, baina denbora pasa ahala, berarekin egon nahi zuten eta berarengan zegoen konfiantza handitzen hasi zen. Jon Keparekin maiteminduta zegoen, besteen begietan heterosexuala zen eta ez zen gai Kepari sentitzen zuena esateko, baina denbora pasa ahala bazekien Kepari sentitzen zuena esango ziola, agian prest zegoenean.

Urtea hastear zegoen eta lagunak, beti bezala, Europa parkeko zuhaitz handienaren zuhaizpean zeuden litxarkeriak jaten eta berba egiten. Orduan, momentu hartan, Naroak dei bat jaso zuen. Antza, bere katuari, bihotzeko batek eman zion etxe aurrean bota zituzten petardoak zirela eta. Berehala, Naroa negarrez hasi zen, eta lagunek, patxadaz, trankil egoteko esan zioten hileta egingo zutela esanez. Naroa trankildu eta bere etxerantz abiatu ziren. Jonek mezu bat jaso zuen eta esan zion Naroari ezin zela hiletara joan. Naroak bere haserrea ezkutuan utzi nahian, joateko esan zion, ez zuela garrantzirik. Hura joan zenean, Naroa, Jonek egindakoari buruz sentitzen zuena esan zion Kepari garrasika eta haserre. Kepak, neska berriz ere trankildu zuen esanez gauza garrantzitsu bat izango zela, izan ere, ez zuela uste Jonek bere lagunak abandonatuko zituela gehien behar zutenean. Beraz, elkarrekin etxera joan, katua lorategian lurperatu eta afaria jan zuten.

Bat-batean, gaueko ordu bietan, Naroaren gurasoak lotan zeuden bitartean eta haiek pelikula bat ikusten zeuden bitartean, Kepa txamarra Europa parkeko zuhaizpean utzi zuela konturatu zen. Hortaz, biak batera, gurasoak konturatu gabe, etxetik irten, hara joan, atea zarratuta zegoenez, hesitik salto egin eta sekula inork pentsatuko ez zukeena aurkitu zuten. Keparen ama, arbolako adar batean zegoen soka batekin zintzilik, hura sinestezina zen, bere buruaz beste egin zuen. Egoera ikusita, arineketan ertzainei deitu eta inguruak aztertzen eta ikusten hasi ziren frogak edo aztarnak aurkitzeko. Kepa oso txarto sentitzen zen, ezin zuen egoera gainditu, horregatik eserleku batean eseri zen egoera gainditu nahian Naroak ingurunea aztertzen jarraitzen zuen bitartean.

Bost minutu pasa eta ertzainak heldu ziren, haiei galderak egiten hasi ziren eta bikotearen mugikorren azken posizioak ikusita, ertzainek, haiek errudunak ez zirela eta ez zutela hura bere buruaz beste egiten ikusi ondorioztatu zuten. Galderak egin eta gero, bertako eserlekuan eseri ziren. Momentu hartan, Kepak ez zekien zer pentsatu, izan ere, bere ama, jotzen eta askea izaten uzten ez zion pertsona, baina bere familiako pertsona bakarra hilda zegoen. Baina, ez zekien zer sentitu, ama gorroto zuen, baina aldi berean maitatzen zuen, gutxienez ez zuelako abandonatu.

Ordu bat pasatu eta ez zuten inor deitu Kepak ez zuelako nahi, bakarrik Joni deitu zioten, baina mugikorra itzalita zeukan. Amaren gorpua, lurrean zegoen eskailera eta lepotik zintzilik zuen soka batzen eta kamioian sartzen zebiltzan bitartean, ertzain bat hurbildu zitzaizen gertatutakoa ezkutuan uzteko esanez. Antza, gobernuak, diru asko ematen zien ertzainei eta polizia EHPST-ko agenteak Euskal Herrian zegoen suizidioen berri ez izateko eta jendea ez konturatzeko gobernuak baieztatu zuena, hau da, Euskal Herrian bere buruaz beste egitearena amaituko zela gezur hutsa zela. Beno, kontua da gobernuak oso botere handia zuela Euskal Herrian eta kontrola izateari uztekotan, leku arriskutsua bihurtuko zela. Lagunak, ados zeudela esan zioten dena lehenbailehen amaitzeko; eta bakoitza bere etxerantz abiatu zen bidean gertatutakoari buruz ezer esan gabe.

Gure protagonista etxera heldu zen, leher eginda zegoen eta sartzean distira handiko objektu bat ikusi zuen zoruan. Erloju txiki bat zen, berehala hartu eta bere amarena zela pentsatuta bere patrikan gorde zuen. Gau hartan Kepa ezin zuen loak hartu, amarekin gertatutakoa oso tragikoa zen eta ezin zuen inori kontatu gobernuak kontuak zirela eta. Gauza asko sentitzen zituen aldi berean: beldurra, askatasuna, tristezia, bakardadea.. Orduan, bere sentimenduak alde batea utzita, suizidioaren arrazoiak zeintzuk izan zitezkeen pentsatzen hasi zen, gehien gustatzen zitzaion detektibea imitatuz, besteak beste, Sherlock Holmes. Bizitza sekretu bat zuela edo aitaren heriotza dela eta egin zuela pentsatu zuen, baina ez zegoen seguru, amak bere buruaz beste egiteak ez zuen zentzurik, izan ere, ama, ez zen etxetik irteten, beti zegoen sofan etzanda ezer egin gabe eta ez zuen bizitza sozialik. Ez zekien zer pentsatu, baina egia nahi zuena bazekien zer zen, orduan ikertzen jarraitu zuen bere erantzunak aurkitu nahian.

Hurrengo egunean, tinbreak Kepa esnatu zuen. Bere idazmahaietan esnatu zen, antza ikertzen zegoen bitartean lokartu zen. Ate aurrean, sekula inoiz ikusi ez zuen pertsona bat agertu zitzaion. Atea apurka-apurka zabaldu eta ama gaixorik zegoela esan zion kanpoan zegoen pertsonari. Hark, postaria zela esan zion eta etxe barrura sartu zenean, denbora gutxi zuela esanez Kepari gutun bat eman zion. Kepa, harrিতuta, bera benetan nor zen galdetu zion, forensea zela argitu eta gutunean zegoen informazioa inori ez erakusteko esan zio; gobernuak min handia egin ahal ziolako, izan ere, Euskal Herriko boteretsuenak ziren eta haien boterearekin gauza asko egin zezaketen jende aurrean ondo gelditzeko, heroiak bezala. Baita ere esan zion ezin ziola hura berari eman, baina bere amagatik eta zor zion errespetuagatik eman ziola gutuna. Esan beharrekoa amaitzean, forenseak, erlojua begiratu eta bertatik joan egin zen arrastorik utzi gabe. Kepa ikaratuta eta harrিতuta zegoen, izan ere, pertsonak ez zuen forensea ematen eta espia baten antz gehiago zuen.

Bat-batean mugikorrean mezu bat jaso zuen, Naroa zen, oso larrituta zegoela eta bere etxera joateko esanez, horrela, biak hobeto sentiarazteko eta ondo zegoela konprobatzeko. Kepak nahiz eta gogorik ez eduki, bere ikerketa paperak hartu eta Naroaren etxerantz abiatu zen, ikerketarekin laguntzeko eta lagunari ondo zegoela adierazteko.

Minutuak pasatu eta Kepa Naroaren etxera heldu zen, triste aurpegiarekin. Naroaren gurasoei arraro egin zitzaaien aurpegi hura, izan ere, haien etxera joaten zenean, beti irribarre bat ekartzen zuen. Horregatik, berehala konturatu ziren zerbait txarto zihoala, Kepak, disimulatu nahian, txarto egin zuela lo esan zien. Haiiek Kepak esandakoa sinestu eta Naroaren logelara joan ziren haiiek sukaldean zeuden bitartean. Naroari, hark gauean egindako ikerketena eta forensearekin gertatutakoa azaldu zizkion. Berehala, neskak gutuna zabaltzeko gogoia izan zuen, barruan zer zegoen ikusteko irrikan. Orduan, gutuna zabaldu eta bertan zegoenak asko harritu zituen. Amaren gorpuaren argazkiak ziren eta bertan, itota hil zela jartzen zuen, baina horrez gain, “Burundanga” deritzon droga bat zuela gorputzean. Kepak ezin zuen hura ikusi, triste eta inpotente sentiarazten zioten argazkiek, horrez gain, ez zuen negarrik egin Naroaren gurasoak ez enteratzeko. Lagunak, “Burundanga” zer den bere buruari galdetu eta Interneten bilatu zuten hura zer zen eta zer eragiten zuen. Internetek zioen arabera, “Burundangak” pertsonen borondatea murrizten zuen eta gainera, oroimena ezabatzen duen, bere efektuek irauten duten bitartean, egiten zuen droga da; laburbilduz, jendea zonbi antzeko bat bihurtzen duela beraiekin nahi duzuna egiteko. Hori irakurtzean, biak, bere amak, bere buruaz beste ez zuela egin eta norbaitek hil zuela ohartarazi ziren. Denbora pasatu eta bien artean, parkean gertatu zenaren teoria bat sortu zuten. Hiltzaileak pentsatutako plana perfektua zen, gaua helduz, emakumea drogatu, arbolaren erraman zintzilikatu sokarekin, itxaron bera bakarrik ito arte, bi ordu itxaron “Burundangaren aztarnak” gorputzetik ateratzeko eta gobernuak, poliziek eta ertzainek, suizidioa dela eta, gaia ezkutuan utziko zutela konprobatu. Baina ezusteko batzuk gertatu ziren. Naroa eta Kepa, ama hil eta minutu batzuk pasa ondoren agertu ziren, horregatik, forenseak gorpua analizatzean, droga aurkitu zuen; baina hark, arineketan forenseari diru asko eman zion gobernuak direla eta suizidio sinple bat izan zela informean jartzeko esanez; ondore, forenseak, hura traizionatu eta benetako informea Kepari eman zion egia merezi zuelako. Lagunak informazio asko izateaz gain ez zekiten nork edo nortzuk eta zergatik egin zuen gauza hura.

Egunak pasatu zituzten gaia ikertzen, baina ondorio eta teoria berdinerara helduz ziren beti. Ez zuten ikerketan aurrerapenik egiten eta gainera gurasoei ez kontatzeak, itzelezko egonezina ematen zioten. Jon oporretan zebilen bere harrera etxeko kideekin, horregatik, arratsalde guztiak libre zituzten gaiari bueltak emateko Jon konturatu gabe. Kepa, Naroaren gurasoekin geratzen zen eta aitzakia bezala, bere ama oporretan hilabete baterako joan zela asmatu zuten. Kepak amarena pixka bat gaindituta zuen eta psikologikoki hobeto sentitzen zen eta Naroaren gurasoekin, bere bakardadeaz ahazten zen. Kasuan lanean zebiltzan bitartean, Naroak Kepari galdetu zion ea zerbait aurkitu bazuen etxean lehen ez zegoena, izan ere bere ama etxetik ez bazen irteten, hiltzailea bera sartu behar zen hura hiltzeko eta seguraski zerbait ukitu edo jausi zela. Kepak neskari, patrikan zuen erlojua eman zion etxe barruko lurrean aurkitu zuela eta amarena zela uste zuela esanez. Naroak, objektua kontu handiz hartu eta bereziki ama konturatu gabe, armairu batera sartu zen.

Kepak ez zuen ezer ulertzen, baina patxadaz itxarotea erabaki zuen. Hamar minutu igaro ondoren, Naroa harrituta, atera zen armairutik. Kepari gertatu zena esan eta biak negarrez hasi ziren pozaren pozez, baina ikaratuta zeuden hiltzailea beraiengandik oso hurbila zelako. Antza, bere amak armairuan kaxa bat zeukan eta bertan sartzen ziren objektu guztiak, norenak diren esaten zizuten eta horrekin, haien informazio guztia. Haien hiltzailearen kasuan, sorpresa bat izan zen. Bere amaren suizidio misteriotsuaren misterioa ebatzi zuten. Bazekiten nor izan zen baina zergatia falta zen. Horregatik berarekin geratu ziren, izan ere, bere mugikorraren posizioak ikusita, ez da Gernikatik atera, konkretuki bere aitaren etxetik.

Azken Ikerketak egin ondoren, berarekin hitz egiteko eguna heldu zen eta betiko lekuan, hau da, Europa parkean zegoen zuhaizpean, geratu ziren. Pertsonak ez zekien zertarako geratu ziren, baina lagunak normal egongo ziren moduan egongo zutela adostu zuten, izan ere, hiltzaileari beti bezala geratuko zirela esan zioten. Bat-batean, pertsona agertu zen eta elkarrizketa hasi zen:

- *Kaixo Jon!* – Esan zuten biak batera.
- *Kaixo Naroa, kaixo Kepa!* – Erantzun zuen pozik.
- *Hitz egin behar dugu.* – Esan zuen Naroak lasaitasuna adieraziz.
- *Barkatu Naroa baina Kepari gauza garrantzitsu bat esan behar diot.* – Erantzun zion Jonek.
- *Ongi.* – Erantzun zion Naroak bere ama hil zuela konfesatu zuela esango ziolakoan-
Kepa. – Esan zion hari eskua eman ez eta ahotsa pixka bat aldatuz-. *Mundu honetan ez dago zu baino mutil guapo, jator, alaiagoa... den pertsonarik. Larregi zara niretzat baina... nahi duzu nirekin egon nahi lagunak baino zerbait gehiago bezala izaten, hau da, nobioak izaten? Orain dela asko nago zutaz maiteminduta, baina ez nintzen zuri hau esateko gai ikusten. Badakit zure amak ez zizula uzten gu nobioak izan gintezan baina arazo guztiak konponbidea dute.* – Esan zion Kepari berak sentitzen zuen guztia esanez.
- *Barkatu Juan, baina ez!* – Erantzun zion Joni edo bere benetako izenaz deituta Juani, Juan izena argi eta garbi esanez.
- *Nola enteratu zarete?* –esan zuen haserre.

Orduan, Naroak, Keparekin egin eta ikertutako guztia azaldu zion Juani pausoz pauso, egindakoa konfesatu ahal izateko edo baieztatzeko eta horrela kartzelara eramateko. Berak, ez zuen ezer ere ez esan eta korrika hasi zen, baina Naroaren amak hura harrapatu zuen, izan ere, parke guztia EHPST-ko agentez zegoen beteta. Ondoren, ea zergatik egin zuen hura galdetu zioten, bera, kartzelan ikusten zelako, egin zuen onartu eta Keparengan sentitzen zuen maitasunarengatik egin zuela esan zuen, izan ere, bere amak ez zion mutil batekin egoten uzten, nobio bezala, horregatik berak, bere ama drogratu zuen eta bere buruaz beste egin zuen bezala mozarrotu zuen inor ez konturatzeko. Baina forenseak ez balu ezer egin, bera eta Kepa betiko batera egongo zirela esan zuen. Horrela Juan, Euskal Herriko kriminalik listoen, baina aldi berean tontoena izaten amaitu zuen, hau da bera kartzelan eta gure protagonista bizirik eta aske. Naroaren amak, kasuaren merito guztia bi neska-mutilei eman zien eta egun hartatik aurrera, Euskal Herriko detektiberik onenetak izan ziren.



Alexandra Spanu
DBH 2. Maila

“Dantza egiteak bizitza alaitzen dit”

ROBERT GERNIKAN

Dena hasi zen orain dela zortzi urte. Oraindik gogoratzen dut noiz heldu zen nire lehengusu maitea. Robert errumaniakoa da. 10 urte zituenean etorri zen; ile marroikoa, begi urdin bizikoa eta altua. Gaur egun Robertek 18 urte ditu eta euskararekin ondo moldatzen da andereño Mireni esker. Miren, aldiz, Gernikako andre ederra, ile horia eguzkia bezalakoa eta begi marroi biziak ditu. Orain, 2020ko abenduaren 12an, Robert alkatea izateko ikasten dago Deustuko Unibertsitatean.

Orain dela hamar urte, ni ohean patxadaz nengoela, bat-batean mugikorra *txirrin-txirrin* egiten hasi zen. Sakelekoa ikusi eta zenbaki ezezagun bat ikusi nuen. Beldurrez erantzun nuen; ahots hori ezagutzen nuen eta galdetu nuen:

- Nor zara?
- Ni naiz, zure lehengusua, Robert.
- A zenbat denbora ikusi barik! Oraintxe noa zure bila.
- Ze ondo. Gero arte!

Ni ohetik jauzi batekin jaiki eta abiadura bizian jantzi nintzen, eta aireportura joan nintzen bere bila. Berrogei minutu geroago, aireportura heldu eta Robert ikustean, korrikan besarkada handi eman nion. Autora iritsi baino lehen, gauzak galdetzen hasi nintzaion. Pentsatzen jarraitu nuen berak galderak erantzun bitartean. Etxera iritsi ginenean ideia bat proposatu nion:

- Robert, zure ustez, gustatuko litzaizuke euskara ikastea?
- Ez da ideia txarra, beno bale, euskara ikasiko dut.

Ni pozik nengoen. Bat-batean, esan zidan Robertek:

- Aizu Alexandra, nork erakutsiko dit euskara?
- Ni badakit nori deitu.

Mugikorra hartu eta andereño Mireni deitu nion.

- Kaixo, Alexandra, zer moduz?
- Ni ondo nire errumaniako lehengusuarekin
- A ze ondo, ziur faltan botatzen zenuela.
- Egia.
- Zer nahi duzu?
- Nik nire lehengusuari proposatu diot euskara ikastea, eta berak onartu du.
- Ze ondo. Ni libre nagoen hiru egunetan etor daiteke: astelehenean, martitzenean eta eguenean.

Mirenek egunak zehaztu ondoren, Roberti esan eta berak onartu zuen. Telefonoaren beste aldean Mirenek galdetu zidan:

- Zer iruditzen zaio?
- Ondo iruditzen zaio.

Miren oso pozik zebilen eta Robert ere bai. Egunean bertan koadernoak erosi genituen eta euskarako liburu batzuk ere bai.

Astelehena heldu zen, Robert pixka bat urduri zegoen, ez zekien zelan irtengo zen. Mirenen gelara sartu eta Robert han utzi ostean, ni bueltatxo bat ematera joan nintzen. Ordu bat igarota Mirenek deitu eta esan zidan:

- Etorri zaitezke Roberten bila.

Heltzerakoan, Robert oso pozik ikusi nuen. Nik uste nuen ez zitzaiola gustatuko, baina harritu ninduen. Miren ere pozik zegoen. Zenbakiak ikasi zituen; 1etik 100ra eta koloreak.

Hurrengo egunean, Robert pozik, arrapalada batean jantzi zen. Mirenen gelara heldu ginen; Robert gelara sartu zen eta hasi ikasten. Martitzenean, animaliak ikasi zituen, aditz batzuk eta zer diren aditzak edota esaldietan aditzak bilatzea. Eguenean, gramatika apur bat landu zuten. Robert euskararekin ondo moldatzen zen; etxean, kalean... euskara mintzatzen hasi zen. Asteak igarota Robert euskararekin hobeto zebilen eta Miren pozago zegoen. Irailean, Robert eskolara hasi zen eta pozik zegoen. Hala ere, klase partikularretara joaten zen. Bi aste geroago Roberto maisuak ikasleei azaldu zien euskaraldiari buruz. Robertek ez zekien zer zen, orduan galdetu zion:

- Zer da euskaraldia?
- Hamaika egunetan euskara bakarrik egitea.
- A ze ondo
- Pozten naiz, horrenbesteko interesa duzula ikustean!

Robert etxera heltzerakoan, niri dena azaldu zidan oso emozionaturik. Astelehena zenez, Mirenen gelara joan zen eta berari ere azaldu zion, baina Robertek ez zekien zein datetan egingo zen.

- Aizu, Miren, noiztik norakoa da?
- Azaroaren 20tik abenduaren 4ra. Laster izango da, gainera, txapa bat ematen dute, eta halaxe jakiten dute euskaraz mintzatzeko edo entzuteko prest zaudela.
- Ondo iruditzen zait.

Azaroaren 20an, gelan maisuak gelako ikasleei txapa bana eman zien, eta ordutik, Robert kalean, eskolan, etxean... euskaraz mintzatzen zen.

Egunak, asteak, hilabeteak edota urteak igaro ondoren, 18 urte zituen. Gau batean Robert "Teleberri" albistegia ikusten zegoen, eta euskaraz ondo mintzatzen zen alkate bat behar zela esan zuten. Hauteskundeak zeuden. Froga bat zegoen euskararen maila jakiteko eta hautaketa egiteko. Hurrengo egunean, Robert hunkituta zegoen, eta momentu hartan autoa hartu eta telebistako norabidera joan zen. Heltzerakoan, autotik jaitsi eta ikusi zuen mutil eta neska betetako lerro luzea. Urduri zegoen momentu horretan. Lerroa txikitzen zegoen bitartean, bera gero eta gehiago urduritzen hasi zen. Hamar minutu ondoren, mutil altu batek deitu zion:

- Hurrengo! Nor da?
- Ni naiz. - Robertek erantzun zuen urduritasunez.

Sartu bulegora eta froga bat zegoen mahai gainean. Robertek hogeita hamar minutu zituen egiteko, baina hogeita minututan amaitu zuen, eta gizona harrিতuta zegoen. Ondorengo hamar minutuetan ahozko froga egin eta kaleko gizonari esan zion:

- Esan beste etxera joateko, badaukagu alkate bat eta.

Robert oso pozik zegoen. Hurrengo egunean alkatea izango zen!!! Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta Gernikako plazan Robert izeneko alkatea bizi zan.





Maialen Flores Arriaga
DBH 2. Maila

“Irudimenaren bidez, edozer da posible.”

ERRAZAGOA ZIRUDIEN

Kaixo, ni Kattalin deitzen naiz, eta Arteagan bizi naiz. Arteagan bizi naizen arren, Gernikako eskola batean ikasten dut. Ez dut lagun askorik, nire lehenengo urtea delako eskolan. Horrez gain, oso neska zintzoa eta ausarta naiz.

Gaur, iaz gertatutakoa kontatuko dizuet. Egun eguzkitsu batean, goiz jaiki nintzen eskolara arin heltzeko. Eskolarako bidean, Maiterekin topatu nintzen, eta zera esan nion:

- Egun on, Maite!
- Bai, egun on, pa..., ma..., barkatu nola deitzen zinen?
- Kattalin.
- Ah bai! Ahaztuta neukan. Beno, banoa!

Ikus dezakezuenetz, Maite ez zen oso atsegina. Berarekin egon eta gero, konturatu nintzen berandu helduko nintzela eskolara. Horregatik, korrikan hasi nintzen puntuala izateko. Heldu nintzenean andereñoak klasera sartzeko esan zidan. Oso lotsatuta nengoen arren, aulkian eseri nintzen eta klasean parte hartu nuen. Bertan zegoen Leire, nire lagunik hoberena. Baina klaseko beste puntan zegoenez, ezin genuen hitz egin. Jolasaldiko orduan, hamaiketakoa hartu genuen eta patiora jaitsi ginen.

- Kattalin! -ohiukatu zuen Leirek.
- Leire, zer moduz? -esan nion.
- Parte batetik ondo eta beste batetik txarto.
- Zer ba? Zer gertatzen zaizu?
- Datorren astean oporretara noa.
- Eta zer? Hori ez al da gauza on bat?
- Ez! Nork zainduko du “Lagun”? Eta “Bizkor”?
- Egia! Nahi baduzu nik zainduko ditut.
- Bai! Ideia ona! Ah! Ahaztu zait esatea “Kiri” eta beste animaliak ere zaindu behar dituzula.
- Bale!

Egun hartan, Leireren baserrira joan nintzen. Leirek pila bat animalia zituen: bi txakur, katu bat, lau oilo, bi zaldi eta sei ardi. Hurrengo astean, Leire oporretara joan zen, eta ni, ordea, bere animaliak zaintzen gelditu nintzen. Lehenengo animaliei janaria eman nien. Gero, zaldiak orraztu nituen. Azkenik, txakurrak paseatzera eraman nituen. Leireren baserrira itzuli nintzenean, norbaitek atea jo zuen.

- Kaixo, zer nahi duzu? -galdetu nion.
- Egun on! Pakete bat ekartzera nator -erantzun zidan.
- Eskerrik asko!
- Aizu! Zure txakurra ihes egiten dago!
- Zer?! Bizkor etor zaitez hona!

Momentu hartan, ez nekien zer egin. Bizkorrek ihes egin zuen, atea zabalduta zegoela aprobetxatuz. Oso urduri nengoen! Atea itxi nuen eta korrikan hasi nintzen. Orduan ulertu nuen zergatik deitzen zen Bizkor. Oso arina zen, eta ni nekatuta nengoen. Bat-batean, Leirek deitu zidan. Bizkorrek ihes egin zuela jakin ote zuen?

- Zer moduz Leire? -galdetu nion.
- Oso ondo. Eta zu? Dena ondo al dago? -esan zidan kezkatuta.
- Gu oso ondo gaude.
- Pozten naiz, beno banoa!

“Eta orain zer? Zer egingo dut? Ideia bat daukat! Kartelak jarriko ditut kalean zehar” pentsatu nuen. Kartelak jarri eta gero, beste kale batzuetara joan nintzen Bizkor bilatzera. Txirrin-txirrin!

- Kattalin?
- Bai?
- Bizkor topatu dut -esan zidan ezezagun batek.

Momentu horretan, oso pozik jarri nintzen eta txakurraren bila joan nintzen. Txakurra hartu eta gero, Leireren baserrira itzuli nintzen. Atea irekitzen nengoenean, etxea zikin zegoen, sofa zulututa zegoen eta sukaldeko platerak eta edalontziak lurrean apurtuta zeuden. Lagun eta Kiri izan ziren seguruenik. Lasaitzea erabaki nuen, musika jarri nuen, eta etxea garbitzen hasi nintzen. Lehenengo platerak eta edalontziak zakarrontzira bota nituen. Gero, haria eta jostorratza hartu nituen eta sofa josi nuen. Azkenik, auzoko dendara joan nintzen eta platerak eta edalontziak erosi nituen. Etxea garbi zegoen eta animaliak lasai zeuden.

Leire etorri baino egun bat arinago, egun trankil bat zirudien. Baina hori ez zen guztiz egia. Bat-batean, soinu arraro bat entzun nuen kortan. Kortara joan nintzenean, zaldi bat lurrean etzanda ikusi nuen. Une horretan, pentsatu nuen zaldia hilda zegoela. Baina zergatik? Zer arrazoiengatik? Zaldiarengana hurbildu nintzen eta hura laztantzen hasi nintzenean, zaldiak begiak zabaldu zituen. Oraindik bizirik zegoen, baina ez zuen indar askorik. Orduantxe konturatu nintzen bere sabela handituta zegoela. Haurdun zegoen! Beste zaldia kanpora atera nuen, haurdun zegoena lasai egoteko eta eskuoihal batzuk eraman nituen kortara. Janaria eta ura ere eraman nituen. Arratsaldea kortan eman nuen, eta gaua ere bai.

Goizeko 6etan, soinu bitxi batek izartu ninduen. Zein polita! Zaldikumea jaio egin zen! Oso txikia eta ederra zen. Bere begiak berde-berdeak ziren, eta bere ilea marroia eta zuria zen. Arrapaladan, mugikorra jaso nuen, eta Leireri deitu nion berria kontatzeko. Leire oso pozik jarri zen, eta heltzeko gutxi geratzen zitzaiola esan zidan. Etxea apaintzen hasi nintzen, eta berehala kotxearen soinua entzun nuen. Leire zen!

Ariniketan Leireri besarkada bat eman nion, eta oporretan egindako guztia kontatu zidan. Horren ostean zera esan zidan:


- Kattalin, oso pozik nago animalia guztiak ondo daudela ikustean.

Ez nekien gertatutakoa kontatu ala ez. Egia esanda, animalia guztiak oso ondo zeuden, eta ez nuen uste ideia ona izango zenik egia esatea. Horregatik, ez nion gertatutakoa kontatu. Hurrengo hilabetean, eskolara nindoala, Leirek deitu zidan:

- Kattalin, apur bat haserretuta nago zurekin.
- Zer ba? Zer egin dut?
- Zer gertatu zen Bizkorrekin oporretan negoen bitartean?
- Egia esan, zure baserritik ihes egin zuen.
- Zer? Eta noiz kontatzeko asmoa zeneukan?
- Barka iezadazu, mesedez.
- Oraindik ez dakit barkatuko dizudan.



Hilabetea amaitu zen, eta oraindik ez zidan barkatu. Ni oso triste nengoen, beraz, berarekin hitz egitera joan nintzen. Banku batean eserita zegoen, eta oso triste zirudien. Beregana hurbildu nintzen eta berarekin hitz egiten hasi nintzen. Txikitatik lagunak ginela esan nion, eta horrelako zerbaitek ezin gintuela banandu. Arrazoi nuela esan zidan. Orduetik aurrera dena kontatzen diogu elkarri.



Jon Omagoxeaskoa Garay
DBH 2 maila

ASKATASUNAREN PREZIOA

Portaleko txirrina jo genuen. Amak atea zabaldu zuen, niri eskua emanda.

Astiro-astiro eskailerak igotzen hasi ginen: lehenengo pisua, bigarren pisua eta hirugarrenean, gelditu egin ginen. Eskailera buruan gazte altu eta indartsu bat gure zain zegoen. Gazte irribarretsu hura asko poztu zen gu ikustean, baina ama negarrez hasi zen bera besarkatuz. Amak, “ez dago” esan eta berak “badakit” erantzun zion. Nire tren-makina begiratu nuen, eta ni ere negarrez hasi nintzen. Gazteak nire izena esanez, besarkatu eta nire aita zela aitortu zidan. Hirurok bere etxera, gure etxera, sartu ginen.

.

Eskolatik etxerako bidea guztiz luzea zen. Aylanek eta nik ur botila astun bi eramaten genituen egunero inguruko oasi batetik. Gure kontuei buruz hitz egiten genuen: herriko jendeari gertatutakoak, gure ametsak.....Behin, etxera heldu ginenean ama oso urduri aurkitu genuen. Bidaia oso luze bat egingo genuela esan zigun pertsona oso garrantzitsu batekin elkartu behar ginelako; diru asko aurreztuta zuela, gure etxea utzi behar genuela, poltsarik ez ezer ez hartzeko... Guk beti betetzen genuen amaren esana, baina halakoan zerbait eramanez nahi nuen neurekin, horregatik kamiseta barruan, Aylanek eta nik txikitan biok elkarrekin jolasteko erabiltzen genuen egurrezko tren-makina bat ezkutatu nuen. Amak kontatuta, bagenekien gure aitona egindakoa zela, ekaitz baten ostean, oasian eroritako zuhaitz baten zuraz. Guk ez genuen aitona ezagutu eta bere oroigarri bakarra zen guretzat; horregatik Aylanek eta nik istorio asko asmatzen genituen aitona protagonista zutenak: aitona halako tren moduko bat gidatzen zuela, eta Afrikako punta batetik bestera jendea garraiatzen zuela... barre asko egiten genuen istorio haiekin. Egun askotako momentu onenak ziren. Ezin nuen utzi tren-makina hura. Nirekin eramanez behar nuen.

Bidaiaiko lehenengo hogeikilometroak oinez egin genituen. Bero handia egiten zuen, eta hareatzen ez zen erraza oinez joatea. Hartutako ura bidaia erdian amaitu zen eta ogia, pixka bat geroago. Herri txiki batera heldu ginenean, furgoneta zahar batera igo ginen, gu eta hainbat jende gehiago. Bertan beste hiru emakume zeuden, bakoitza bere bi seme-alabekin, baita lau gizon gazte ere. Furgonetan leku oso gutxi zegoen denak batera joateko. Baina gizon armatu batek barrura sartu behar genuela oihukatu zuen. Motorra martxan jarriaz batera denok mugitu ginen aurrerantz oreka mantendu ezinik, zutunik baikindoazen; errepideko karkaba guneetan bata bestearen gainera jausten ginen. Beroa, kolpeak bidaia oso txarra izan zen, baina niretzat oinez joatea baino hobea, gure oinak nekatuta eta zaurituta baitzeuden eta oraindik hainbat kilometro genituen aurretik.

Hiru ordu pasa ostean, egarri eta gose ere baginen portu txiki batera heldu ginenean. Zerbait jan eta edango genuela pentsatu nuen, baina ez. Furgonetatik atera ginenean, segidan txalupa txiki batzuetan banatu gintuzten. Amak lau milioi franko eman zizkion gizon bati eta hirurok -ama, Aylan eta ni-, txalupa beltz eta zahar batera igo ginen. Nik ez nuen ezer ulertzen. Zergatik amak ordaindu behar zuen hainbeste diru, txalupa zahar hartan joateko ezer jan ez edan gabe? Hain ikaratuta nengoen, ezen ezin bainuen ezer esan. Aylan nire moduan zegoen, dardarka, nekatuta eta beldurtuta. Itsasontzia jendez gainezka zegoen. Estu-estu geunden eta isilik. Gizon armatu haiek beldurra ematen ziguten eta euren aginduak isil-isilik betetzen genituen han geunden guztiok.

Orduak eta orduak itsasoan pasa eta gero, urrunean begien bistan ikusi genuen kostaldea. Amak Portugal zela esan zigun. Ni ez nintzen poztu. Oso urrun ikusten nuen, eta txalupa ur gainean ozta-ozta zihoan. Jende larregi ginen, eta ura ertzetik gero eta hurbilago zegoen. Bat-batean euria hasi zuen, eta olatuak gero eta handiagoak egin ziren. Ama urduri zegoela ohartu nintzen. Itsasontzia oso bortitz mugitzen zen. Tupustean olatu handi batek itsasontzia jo zuen. Nik ertzari heldu nion besteek egin zuten moduan, baina Aylanek kolpe handi bat hartu zuen buruan beste aldeko ertzarekin eta konortea galdu zuen. Ama Aylan astintzen saiatu zen, baina ezer ez, ez zuen begirik irekitzen. Ama negarrez hasi zen, ni ere bai. Nire Aylan maitea ... Hurrengo olatuarekin, gizon bat uretara jausi zen. Besoak luzatzen zituen, baina ez zekien igeri egiten eta minutu batzuen ostean, desagertu egin zen itsaso hondorantz. Antza denez txalupan ez zuen familia artekorik, inork ez baitzuen dolu keinurik egin. Beldur ginen guztiok, hilko ginenaren beldur. Ekaitza ez zen baretzen. Muturreko egoera hartan txalupako bidaiariak nire anaia itsasora botatzeko eskatzen hasi ziren itsasontziko pisua gutxitzeko asmoz. Amak eta nik oihuka ezetz esaten genien, baina ez ziguten kasurik egin eta segidan gure Aylan maitea itsasora jaurti zuten. Gainerako bidaia isil-isilik burutu genuen. Amari besarkatuta nindoan. Zergatik jokatu behar zuten horrela? Zergatik ezin genuen Aylan gurekin eraman? Zergatik geunden han? Zergatik? Zergatik?... Ez zegoen erantzunik, bakarrik tristura eta mina.

Itsasoan dinbi-danba lau orduz nabigatu ostean, kostaldera heldu ginen. Triste, hotzak hiltzen, gose eta egarri ginen denok. Baina era berean, pozik geunden, bizirik heldu ginelako eta bidaia amaitu zelako. Ama lur jota zegoen, baina era berean lasai, ni ondo nenguelako. Hondartzako hareatzen zuriz jantzitako pertsona batzuk zain zeuden. Arropetan gurutze gorria zeramaten. Manta bat eta ura eman zizkiguten bakoitzari. Hiru txalupa heldu ginen, eta denoi lagundu ziguten. Gero, ordu batzuk pasatu zirenean, zein

herriatik etorri ginen eta gure izenak galdetzera hurbildu zitzaizkigun. Bertan hondartzan baina zerbait urrunago, telazko etxe zuri handi batzuk jarri zituzten. Oso altuak ziren, eta punta zorrotz bat zeukaten. Etxe berezi haietan, zerbait jan eta gero, gaua pasa genuen.

Gaua ez zen hotza izan, baina bai oso neketsua. Amak eta nik ezin genuen ahaztu Aylan. Ezbeharrak oso arin gertatu zen. eta Aylanek ez zuen sufritu itotako gizonak beste, baina hilda zegoen, eta ez genuen berriro ikusiko. Berataz pentsatzen lo gelditu nintzen. Amak ez zuela lorik egin uste dut...

Hurrengo egunean zuriz jantzitako pertsona haiek esne beroa eta gaileta batzuk eman zizkiguten. Gure planei buruz galdetu ziguten. Amak bere kolkoan zeraman paper txiki bat atera zuen. Bustita zegoen, baina letrak nahiko ondo ikusten ziren. Helbide baten datuak ziren. Laguntzaileek ezagutzen zuten lekua eta handik bost kilometrotara zegoela esan ziguten. Amak eskerrak eman, mantak itzuli eta martxan jarri ginen euren jarraibideak zuhurtziaz betez.

Hondartzatik irten eta herri bat zeharkatu genuen. Nik ez dakit zelakoak diren Portugaleko herriak, baina niretzat hura oso-osoa handia zen. Jakiak horretarako apropos bideratutako lokaletan saltzen zituzten, eta ez kalean. Halako etxe haietako batean, lokal bateko pantailan, hondartza bat ikusi nuen irudietan eta bertan, jende asko, etzanda zegoen pertsona baten inguruan. Ni begira gelditu nintzaion. Beste irudi batzuei esker konturatu nintzen lurlean zegoen pertsona Aylan zela. Garrasika hasi nintzen: ama! ama! Aylan! Ama sinestu ezinik gelditu zen. Bera zen, bere arropak ziren. Buruz behera egon arren bagenekien bera zela. Bera zen. “Zer egingo dugu orain?”, galdetu nion amari. “Ezer ez” esan zuen. Mutu gelditu nintzen. Amak azaldu zidan ezin genuela jakin zein hondartza zen, non agertu zen, eta dirua amaituta zegoela bere bila joateko. Lurreratu ginenean lagundu ziguten pertsonak lurperatuko zutela argitu zidan, eta bere bila joateko dirua aurreztu behar genuela. Ez nuen ondo ulertu amak esandakoa, baina onartu nuen.



Gutziz atsekabetuta aldendu ginen toki hartatik. Gure bidaia jarraitu genuen, eta gutxi falta zela amak eskatu zidan lasai egoteko, laster etxe oso altu batera helduko ginela. Baina ni oso urduri nengoan. Ez dakit amak nondik ateratzen zuen adorea aurrera egiteko. Handik gutxira amak, lepotik helduta, pertsona garrantzitsua ezagutzeko momentua heldu zela aitortu zidan eta... portaleko txirrina jo genuen.



Maddi Gorostiaga Alzaga
DBH 2. maila
“Kirola dut gogoko!”

1960

1960an hasi zen dena Ameriketara, zehatz-mehatz Estatu Batuetan. Margeri gertatu zitzaion istorio hau. Beraz gain, Amerikan bizi ziren pertsona askori ere gertatu zitzaion bere gertaeraren antzeko zerbait. Marge, Amerikako Estatu Batuetan jaio zen neska bat zen, ez zen familia aberats baten parte, baina bere gurasoek gogor lan egiten zuten bere eskolara joan zedin. Marge neska beltzarana zen (beltzaranek garai hartan gaur egun baino eskubide askoz gutxiago zituzten, eta oso gogor borrokatu behar izan zuten beraien eskubideak lortzeko, baina zoritxarrez, gaur egun ere eskubide gutxiago dituzte, hori bai, lehen baino gehiago), oso alai zen eta asko gustatzen zitzaion ikastea eta gauza berriak ikastea. Umetatik oso interesatuta zegoen gauza berriak ikasteaz, eta umetatik zientziak asko gustatzen zitzaizkion. Umea zenean, bera ez zen asko konturatzen gizartean gertatzen zenaz, izan ere, ez zen kontziente gizartea bitan banatuta zegoela eta eskubide gutxiago zituztela, baina bere gurasoek asko sufritu zuten egoera hori zela eta. Bere haurtzaroan bere lagun minarekin pasatzen zuen denbora asko beti batera zeuden, baina bera laguna baino aurreratuago zihoan eskolan.

1960an hasi zen gertakaria, esan bezala, 1960ko urtarrilaren 25an zehatz- mehatz Estatu Batuetan, Texasen. Margek 18 urte zituen, eta lanerako elkarrizketa bat zeukan, NASAn ez, baina espazioa eta bertako fenomenoak aztertzen ziren talde batekin. Taldea ez zen pertsona beltzaranena, zuriena baizik (zuriak deitzen zieten beltzaranak ez diren pertsonei), eta ez zuten lehenengoan Marge onartu. Bere gurasoek lan hori izatea nahi zuten, eta berak ere nahi zuen. Lan asko egin eta gero lortu zuen taldean sartzea. Taldeak lan egiten zuen eremuak bi eraikin zituen, batean astronomo onenek egiten zuten lan eta bestean ofizinak zeuden. Marge ofizinetan hasi zen lanean beste beltzaran askorekin batera, baina bera beste eraikinean egon beharko zen.

1960ko maiatzaren 17a zen, eta berak lanean jarraitzen zuen beti bezala. Goizean goiz esnatzen zen, eta lanera joaten zen arratsaldean irten arte. Bere lana gutxi zen berarentzat, berak gauza gehiago eta zailagoak egin nahi zituen.

Egun batean bere nagusiarengana joatea pentsatu zuen. Nagusiak proba bat pasatu behar zuela esan zion. Margek onartu egin zuen, eta proba egin zuen. Jakintsua zenez erraz pasatu zuen, eta astronomo onenen eraikuntzara pasatu zuten. Eraikuntza horren barruan ere mailaka banatuta zeuden, argiakoak zirenak gela batean eta besteak bertako ofizinetan. Eraikuntza horretako denak, bai, zuriak ziren, eta momentu horretan Marge zen beltzaran bakarra.

Margek astronomo onenen gelan egon nahi zuen berarentzat gela hori beste mundu bat baitzen. Zailtasun piloia izan zituen. Beltzarana zenez, bere eskubideak gutxi ziren. Kafea nahi bazuen ezin zuen denen kafetera berdina erabili, “kolorekoak” jartzen zuena baizik. Liburu bat nahi bazuen ere ezin zuen edozein hartu, izan ere, liburutegia bi zatitan banatuta zegoen, beltzaranak eta zuriak eta handiena bera zegoen eraikuntzan ezin zituen komunak erabili, lehen lan egiten zuen eraikuntzakoak baizik. Izan ere, astronomo onenen eraikuntzan komunak zurientzat ziren, eta ezin zen bertara sartu, eta lehenengo eraikuntzara arte joaten zen txiza egin nahi bazuen, bost minutu joan eta etorrian. Lehen esan dudana bezala, Margek astronomo haien gela hartan egon nahi zuen. Neska gauez sartzen zen gela hartara, eta bertan zeuden paper guztiak arakatzen zituen eta berak berarentzat ikertzen zuen astronomoek ikertzen zutena. Besteak bezalako gau batean, nagusiak harrapatu egin zuen paperak arakatzen, eta bere idazkaria izango zela esan zion. Marge alde batetik pozik jarri zen gelan sartzeko aukera izango zuelako eta hango papalak izango zituelako, baina beste aldetik, berak ez zuen idazkaria izan nahi, berak astronomoa izan nahi zuen. Margek ikerketak egiten jarraitu zuen eskuratzen zituen paperekin, eta bere nagusiak arreta gutxi jartzen zionez, berarentzat hobeto zen.

Ikertzen ari zen egun batean, nagusiak bere aurkikuntzak deskubritu zituen. Nagusiak berak ikertu zituela esan zuen, eta nola Margeri ez zioten sinestuko berak ikertu zituela, ba, onartzea pentsatu zuen, baina ez zuen amore emango, eta ikertzen jarraitu zuen gela hartan sartzeko eta mahai bat izateko. Nagusiak egiten zituen aurkikuntzak berari emateko esaten zion, horrela berak eramaten zuen meritua eta Margek ez zuen ezer eskuratzen.

Baina horrelako egun batean, Margek mehatxu egin zion, ikerketen ordez gelan mahai bat izateaz. Kaleratzeko beldur zen, baina berak beldurrari aurre egin zion. Nagusiak ez zuen kaleratu, izan ere, mahai bat eman zion gela hartan. Nagusiak bazekien neska hura denetatik jakintsuena zela, eta bera behar zutela behar zuten guztirako, baina ez zuen nahi Margek meritua eramatea, izan ere beltzarana baitzen. Margek gogor lan egiten jarraitzen zuen, eta ikertutakoa nagusiari ematen zion, zoritxarrez. Oraindik ere kafea desberdina hartu behar izaten zuen eta komunera beste eraikinera joan behar izaten zen, baina berak esaten zuen bezala, astronomoen gelan zegoen. Nagusiak lan errazena egiten zuen, meritua eraman eta Margek egiten zuen lan gogor guztia. Marge eskubideak bultzatzen saiatzen zen une oro, baina ez ikusiarena egiten zioten besteek. Beste eraikinean zeudenak Margeri asko laguntzen zioten. Nagusiak beste eraikineko denak mesprezatzen zituen, eta ez zieten kasurik egiten. Marge eta beste beltzaran guztiak mugimendu handi bat prestatzen zeuden ezkutuan, besteen kontra joateko eta beraien eskubideak lortzeko.

1960ko urriaren 26an egin zuten mugimendua, ez zen hain arrakastatsua izan, beraiek arrakastatsuagoa izango zela pentsatzen baitzuten, baina lehenengo eraikuntzakoak, hau da, beltzaranak, beste eraikuntzara mugitzea lortu zuten eta beraientzat komunak jartzea ere. Ez zeuden guztiz konforme, izan ere, besteen mesprezuegatik asko sufritzen zuten, baina onartu egin zuten. Margek ikertzen jarraitu zuten, eta nagusiak meritua eramaten zuten.

Horrelako beste egun batean, 1961ko urtarrilaren 9an zehatz-mehatz, Marge nagusiarekin hizketan joan zen. Nagusiak bere aurkikuntzak ematera ez bazihoan ez zion bere bulegoan sartzen uzten, baina Marge ausartu egin zen. Nagusiari sufritzen zuten dena kontatzera joan zen, beraien eskubide faltak, jendeak egiten zioten mesprezua,... Momentu horretan, nagusiak aizkora bat hartu zuen, baina ez zion Margeri ezer egin, mahaitik altxatu zen eta “kolorezkoak” jartzen zuen kafetera apurtu zuen eta ondoren “kolorezkoak” jartzen zuen komunetako kartela ere bai.

Egun hartatik aurrera, Margeri esker, eskubide gehiago izatea lortu zuten, gutxiago mesprezatzen zituzten eta Margek meritua eramatea lortu zuen. Gainera, urteak pasa ahala, eraikinei izen bat jartzea erabaki zuten eta Margaret Johnson jarri zioten, hau da, Margen izena.

“1960ko istorio hau Margek berak kontatu zidan, baina eguneroko baten bitartez. Nik Marge ez nuen ezagutu, baina Amerikara egin nuen bidaiaria batean bere egunerokoa aurkitu nuen, eta bere istorioa kontatzea erabaki dut, zein emakume gogorra eta azkarra zen erakusteko. 1960tik 1970ra gutxi gorabehera, Ameriketako beltzaranek asko sufritu eta borrokatu behar izan zuten beraien eskubideengatik, eta gaur egun, eskerrak eman behar dizkiegu gizarte hobeko hau sortu izanagatik.”



Alluitz de Bilbao Ortega
DBH 3. maila

Kira

Drivers license, Olivia Rodrigoren azken singela jarrita nuen, liburu bat irakurtzen nuen bitartean.

- “And he kiss me”

Pum! Eta horrela, liburua gogor itxita amaitu zen irakurtzen ari nintzen kapitulua.

15 urte ditut, eta Kalifornian bizi den “teenager” normala naiz. Bizi naizen lekua nahiko bitxia da, kotxeen ordez, ontziak ditugu, eta egun osoa ematen dugu kalean lagunekin, eta ez etxean telefonoekin eta pantailekin. Eskolan ez noa oso ondo, nahi dut esan ez diodala kasu handirik egiten, horren ordez lagunekin hondartzan edo mendian egoten naizela, ondo pasatzen. Egia esanda, lagun asko ditut, baina herri honetan taldeak bereizten dira. Nire taldean bost gara, beno ginen; Claudia, Olivia, Alba, Chloe, eta ni Aitana. Denak bizi gara urbanizazio berean, denak Espainiatik etorri ginelako.

Claudiak hamalau urte ditu, eta taldeko txikiena da, baina inteligenteena da. Gero Olivia dago, 16 urte ditu. Olivia beti da planak antolatzen dituena, esaten du film batean lan egin nahi duela, horregatik grabatzen ditu gure abentura guztiak. Albari nire adin bera du, 15 urte. Albari festak gustatzen zaizkio, baina taldeko arduratsuena da. Chloe taldeko nagusia zen, 17 urte dauzka.

Juerga asko gustatzen zitzaion, gainera bere aitak utzi zigun “Kira”, gure abenturetarako erabiltzen genuen ontzia. Dena apainduta genuen, eta nahiko ontzi handia zen, egun bat baino gehiagotan egin genuen bertan bostak lo. Eta nik, lehen esan dudan moduan 15 urte ditut, eta lagunekin egotea da gehien gustatzen zaidana. Ez nuen nire aita inoiz ezagutu, eta nire ama beti dago lanean, orduan nire lagunak dira dudan guztia. Seguraski konturatu zarete Chloetaz lehenaldian hitz egin dudala, orain dela sei hilabete desagertu egin zelako.

2019ko abuztuaren 15a

Aurreko egunean goizeko 11etan geratu ginen kaian, “Kirarekin” paseo bat ematera, eta bainu bat hartzera gure hondartza ezkutuan, baina Chloe ez zen agertu. Ez ginen bat ere harritu, oso normala zelako, askotan lokartuta geratzen zen, aurreko gauean telebista ikusten geratzen zelako. Bere etxera joan ginen, ea bertan bazegoen. Etxeko tinbrea jo genuen, bere aitak ireki zigun atea. Ea non dagoen galdetu genion, bere aurpegiatik ez ginen lasai geratu, baina bere aitak mutilen batekin egongo zela erantzun zuen.

Ez genuen gure hondartzara joateko modurik, Choek itsasontziko giltzak beti zituelako gainean. Olivari mendira paseoan joatea eta gero hondartzara jaistea bururatu zitzaion, gure hondartza ez bazen ere. Janaria genuen egun guztirako, eta bainujantziak prest genituen, eta horrela abiatu ginen gure abenturara.

Olivia paseo osoa eman zuen argazkiak ateratzen eta bideoak grabatzen. Mendi tontorrera ailegatu ginenean, Chloeren ontzia ikusi genuen kaian. Ez zen oso zaila “Kira” desberdintzea, dena margoztuta eta argiekin beterik zegoelako.

Menditik jarraian joan ginen hondartzara, eta gero bakoitza bere etxera dutxa bat hartzera. Zortzietan, herriko plazan geratu ginen, Chloeren bila joateko, eta kontatzeko egun hartan gertatu zitzaizkigun gauzak. “Kira”-k portuan jarraitzen zuen, orduan Chloe etxean egon behar zuen bai ala bai.

Berriz tinbrea sakatu, eta berriro bere aitak ireki zigun, erabat harrিতa geunden, Chloeren aitak ere ez zekielako Chloe non zegoen. Kaira bueltatu ginen ea Chloe “Kiran” bazegoen, baina ez, gainera bitxiena zen, “Kira” ere ez zegoela.

- Neska hau guri ziria sartzen dabil - esan zuen Albak.
- Trankil egon neskak, igual gure hondartzara joan da, mutiko batekin - esan zuen Claudiak
- Bai zera, mutil bat bertara eraman badu... - gehitu zuen Oliviak.

Azkenean, laurak etxera joan ginen, deskantsatu behar genuelako, egun oso luzea izan baitzen. Etxera nindoala, ezin nuen burutik gauza bat kendu; eta zerbait gertatu bazaio? Ez, ezinezkoa zela esan nion nire bururi, baina kezkatuta jarraitu nuen.

2019ko abuztuaren 16a

Ezin izan nuen lo askorik egin. Altxatu nintzenean pentsatu nuen lehenengo gauza Chloe izan zen. Telefonoa ez genuen askotan erabiltzen, baina badaezpada begiratu nuen: Chloeren hamahiru dei. Whatsappeko taldean idatzi nuen; kaian 9etan. Urgent.

Bederatzietan bertan geunden denak. Ez gu bakarrik, baita polizia asko ere. Chloeren aitak deitu zituen, duela 24 ordu baino gehiago zirela inork ikusten ez zuela. Orduak pasa eta ezin genuen ezer egin. Oso kezkatuta geunden, ezin genuen sinetsi.

2019ko abuztuaren 17a

Chloeren pultsera bat agertu zen gure hondartzan, agian bertan egon zen. Chloeren logela arakatu zuten, eta azkenean berak idatzitako nota bat topatu zuten.



Ez genuen ezer jakin Chloetaz lau astez, eta irailaren 17an Kira topatu zuten, ez oso urrun zegoen herrialde batean.

Egia esanda, ez dakigu oso ondo zer pasatu zen Chloerekin. Polizien teoria hauxe da; Chloe nekatuta dago, eta ihes egiten du, Bla, bla, bla. Nik ez dut sinesten, baina Chloek ez badu inork topatzea nahi, ez du inork topatuko.



Ibai Prieto Agirre
DBH 3. maila

“Niri futbolera jolastea gustatzen zait”

MUNDUKO LAPURKETA

Asier eta beste hiru lagun munduko lapurretarik onena nola egingo zuten pentsatzen ari ziren. Asierrek pentsatu zuen horietako bat bankuan lan egin beharko zuela, jakiteko zenbat diru zegoen jokoan, zenbateko segurtasuna zuten eta zein zen ihes egiteko irtenbiderik onena.

Denak ados zeuden eta nor izango zen pentsatzen hasi ziren. Azkenean erabaki zuten Koldo zela hoberena, bera baitzen banku batean lan egiteko ikasketa gehien egin zituen. Koldok onartu zuen, eta astebetean Madrilgo bankuan ari zen lanean. Plana abian zen, dena ondo zihoan, geratzen zen gauza bakarra zen eguna zehaztea, eta bankuan zenbat diru kopuru egon zen jakitea.

Denak bilduta zeuden, eta Koldok esan zien hilabeteko epean bankuan 15 milioi euro baino gehiago egongo lirakeela. Berehala denek esan zuten hori zela bankua lapurtzeko aukerarik onena eta Koldori informazioa emateko esan zien. Koldo informazioa ematen hasi zen, esan zien lehenengo gauza diru guztia egongo zen kutxa zentralaren pasahitza izan zen, zenbat polizia egongo ziren kutxa babesten, eta zein izango litzatekeen aterabiderik onena. Denek adi entzun zuten, eta hurrengo egunean, Asier eta Jon lapurreta egiteko armak erostera joan ziren. Asierrek lizentzia duenez, armak erosterako orduan ez zuten arazorik izan.

Denek primeran ezagutzen zuten plana, eta guztiek argi zuten zer egin behar zuten. Aste bat geratzen zen lapurreta egiteko, eta lapurreta egiteko asmoa hau zen: Asier eta Jon eskopetekin sartuko ziren bankura, eta bankua lapurtzen eta pasahitza

sartzen ari ziren bitartean, Ibai kanpoan egongo zen lapurtutako auto batekin. Irteten zirenean Ibai lurpeko garaje batera joango zen, eta bertan bi auto desberdin egongo ziren, batean, Asier bakarrik joango zen diru guztiarekin, eta bestean, Ibai eta Jon joango ziren. Koldo hartzera beste leku batera joango ziren Ibai eta eta Jon, eta beti elkartzen ziren toki berean elkartuko ziren, dirua banatuko zuten, eta beste herrialde batera joango ziren bizitzera. Plana oso ona zen, baina akats bakarrak traba egin zezakeen.

Koldo korrika sartu zen zarataka etxera, eta esan zien segurtasuna handitu zutela, baina, aldi berean, diru kopurua askoz gehiago handitu zela. Denek galdetu zuten ea oso arriskutsua ote zen bankua lapurtzea horrelako segurtasunarekin eta hain jende gutxiarekin. Asierrek, plana diseinatu zuenak, esan zuen taldean beste bi egongo balira bankua lapurtzea askoz errazagoa izango litzatekeela.

Egun bakar batean Ibaik konfiantzazko bi pertsona aurkitu zituen horretan interesatuta, eta batez ere, militar ohiak zirenak. Denek onartu zuten plan honek armetan eta horrelakoetan esperientzia duten bi pertsona horiek beharko zituela, eta ordu batzuk igaro ondoren, lehengo berdina zen plan osoa azaldu zieten biei.

Lapurretaren eguna heldu zen, eta denak zeuden prest haien lekuetan. Asier, Jon, Mikel eta Raul bankuan sartu eta kutxazainera joan ziren. Diru guztia hartu zuten. Oraindik poliziaren sirena ez zuten entzun, eta oso arraroa iruditu zitzairen. Bankutik irten eta guztiak kotxean sartu ziren. Plana oso ondo zihoan, baina hala ere oso bitxia iruditu zitzairen polizia oraindik agertu ez izana.

Aparkalekura iritsi eta azkenean hiru kotxetan banandu ziren. Poliziak planaren berri bazekienez, planean erabiliko zituzten bi irteerak estali zituzten, baina harrapatu zituzten autoak armarik gabe eta dirurik gabe zeuden. Beraz, denak joaten utzi behar izan zituzten.

Azkenean, 35 milioi euro baino gehiago lortu zituzten, baina dirua banatzeko orduan, denak besteak baino diru gehiago nork lortzen duen eztabaidatzen hasi ziren... Denek haserre amaitu zuten, baina Ibaik, Jonek, Raulek eta Mikelek erabaki zuten diru gehiago hartu beharko lukeena Koldo zela, bera zelako bankua lapurtzeko behar izan zuten informazioa eman zuena. Asier ez zegoen ados hartu zuten erabakiarekin, bera izan baitzen dena pausoz pauso planifikatu zuena. Beraz, Asier haserretu egin zen, pistola hartu zuen eta denei buruan tiro egin zien. Asierrek gorputz guztiak arretaz bota, diru guztia hartu eta herrialdetik alde egin zuen.

Asier Estatu Batuetara joan zen bizitzera, eta etxe handi bat erosi zuen. Egun batzuk geroago, telebistan Madrileko ibaian bost gorpu agertu zirela entzun zuen, eta geroago esan zuten Madrilgo bankuaren lapurretarekin lotura zutela guztiok.

Asier lasai zegoen, ez zutela aurkituko uste baitzuen. Baina egun batzuk geroago, poliziak Asierren etxe berrian sartu ziren, eta zerbait aurkitu nahian nahasten hasi ziren. Denbora behar izan bazuten ere, azkenean, hainbeste ahalegin egin ondoren,

poliziak diru guztia aurkitu eta Asier atxilotu zuten lapurreta eta hilketengatik. Epaileak Asier Estatu Batuetako kartzelara bizitzera kondenatu zuen.

Azkenean, Asierren zigorra 25 urtera jaitsi zen jokabide onagatik. Kartzelan, Asier bost aldiz ihes egiten saiatu zen, eta egun batean lortu zuen, baina hilabete batez ihes egin ahal izan zuen. Wasinghtonen aurkitu zuten, herrialdea utzi eta Kolonbiara bidaiatzeko nahian.

Orain, Asier kartzelatik atera berri da eta bere bizitza erreformatzen ari da. Bere familiaren enpresan mekanikari gisa lan egiten. Asier elkarrizketa batzuetan ere egon da, non lapurreta nola antolatu zuten eta bere ikuspegitik nola bizi zen azaltzen zuena "Nire istorioa" izenekoa.





Bianca Craciun
DBH 3. Maila

“Gustatuko litzaidake guztioi berdin tratatzea”

ZERBAIT BERRIA

Ostiraleko arratsaldeko bostak ziren, abuztuaren bigarrena. Jack 14 urte besterik ez dituen nerabe bat zen, azal zurikoa, begi ilunak eta ile luzea. Azafatak ordu erdi barruan Zerrako aireportura lurreratuko zirela iragarri zuen. Bere arrebak ikusten hasi zen filma itzali zuen eta oso pozik hasi zen Jacki oihuka. Bere ama, haren ondoan eserita, azafataren iragarkiarekin batera esnatu zen.

Jack pentsatzen ari zen zenbat botako zituen faltan jaiotzetiko lagunak. Argentinan bizitzen geratuko ziren, beraz lagun berriak egin beharko zituen. Dena den, ez zuen bere Estatu Batuetako lagunekin komunikatzeari utziko. Bulebarreko etxebizitza berrian kokatu ziren. Astelehen hasieran goizen, Jack Institutura abiatu zen, bere etxetik kale batzuetara kokatua. Zorionez, gaztelania, ikasi zuen eta horrek beren ikaskideen arteko komunikazioa erraztu zuen. Bere gela zein zen galdetu zuen, eta hara abiatu zen, hirugarren bere taldea zen. Lehenengo orduan klaseko mutilak agurtzera etorri ziren. Raul, mutiko ilehori altua, eta Jose, potoloa eta ilegorria berehala eman zioten eskua eta Jacki aurkeztu zizkieten bere buruak. Nondik zetorren esan zuenean, mutilak harrিতa geratu ziren Estatu Batuko ohiturei buruzko galderak egiten. Beraiek ere azaldu zioten Jacki urtero jaialdi bat egiten zutela. Oso garrantzitsua izaten zela esan zioten. Zentroko ikasleek, irakasleek, gurasoek,... parte hartzen zuten, eta benetan ikusgarria izaten omen zen. Ia ikasturte osoa ematen zuten prestatzen, baina horretarako, lehenengo zuzendariak baldintza pare bat ematen zizkietela; beraz, zuzendariaren hitzen zain zeuden prestaketa guztiekin hasteko.

Goiz erdian, zuzendaria klasera sartu zen, eta esan zien jaialdia abuztuaren 15ean zela, bi helburu argirekin: horietako bat, urte amaierako ibilaldirako dirua lortzea zen; eta bestea, giza eskubideen hedapena.

Idea eskola aurrean azoka bat jartzea zen, eta ikasleek egindako produktuak saltzea, beraiek landu zituzten gaiekin nolabaiteko lotura zutenak. Zerbait aurkeztu nahi zutenentzako eta janariaren salmentarako eskatutako gurasoen lankidetzarako agertokia ere egongo zen.



Raulek eta Josek elkarrekin zerbait diseinatzera gonbidatu zuten. Arratsalde hartan, Jack zinemaldian zer egin zezaketen pentsatzen ari zen, oso interesatuta zegoen haurren eskubideekin eta horrekin lotutako zerbait aurkeztu nahi zuen. Ez zuen kartelik edo liburuxkarik egin nahi, gainera, hori beti egiten zuten guztiek. Eta zertarako? Gero inork ez zituen irakurtzen, eta ez zuten gaiari buruz hausnartzen. Jendeak arreta jartzeko moduren bat egon behar zen, eta saiatu nahi zuen zerbait egiten gaur egungo haur eta nerabeei laguntzeko. Munduko leku desberdinetan bereizten dituzte larruazalaren koloregatik, beste hizkuntza bat hitz egitegatik, aukera desberdinak izategatik, gizenak, altuak, argalak edo motzak izategatik. Toki askotan, askoz baldintza izugarriagoetan lan egin behar dute bizi irauteko, eta beste batzuek indarkeria ekintzak jasaten dituzte. Eta horrek guztiak izugarri sutzen zuen Jack. Bera beti zegoen gizakien arteko berdintasunaren alde.

Haur bakoitzaren eskubideak errespetatzeko helburua lortzeko, beharrezkoa zen lan eta ahalegin asko, eta Jack prest zegoen egiteko. Sartu zenean goizean klasean, inork ez zion iseka egin bere ezaugarriengatik edo ohiturengatik. Bere jaioterria zein zen kontatu zuen, ez zioten barrerik egin bere izenagatik, hitzak gaztelaniaz ahoskatzeko zuen moduagatik. Hori zen haur guztiak merezi zutena, errespetua eta berdintasuna ... Baina argi zegoen, haur bakoitzaren jaioterriak baldintzatzen zuela besteek berarenganako portaera.

Egoera sozioekonomikoa maila ertainean dagoen haur batek edo kale gorrian bizi den ume batek jasaten dituen egoerak oso desberdinak zirela konturatu zen Jack eta onartezina zitzaion.

Beraz, ondo hausnartu ostean, umeen eskubideak urratzen zituzten bideo zatiak bildu eta beraiekin egindako aurkezpen bat jartzea bururatu zitzaion. Ideia hori esan zienean Rauli eta Josuri, berehala ados jarri ziren eta lanari ekin zioten. Egin zuten lehenengo gauza institutuko arduradunari ea jaialdiaren egunean, informatika gela handiko pantaila erraldoia erabil zezaketen galdetzea izan zen. Horrela, beraiek prestatutako bideoa, jaialdira bertaratuko zen jende guztiak ikusi ahal izateko. Horren gogotsu ikusi zituztenez ideia horrekin, erantzuna baiezkoa izan zen. Raulek argazki batzuk eta abesti konkretu bat jartzea proposatu zuen. Jackek ez zuen ezagutzen Raulek esandako abestia, baina entzun egin zuen, eta ideia bikaina zela pentsatu zuen, abestia oso ondo zetorren esan nahi zutenarekin. Eta argazkiek beste ukitu bat ematen zioten Jackek proposatutako bideo zatien artean jartzean.

Aste eta erdi geroago, hainbat irudi zituen bideoa bildu zuten, eta munduko hainbat tokitan arraza bereizkeriari buruzko hainbat bideo lortu zituzten Interneten. Herrialde desberdinetako haur eta nerabeen eskubideak defendatzen zituzten erakundeek ere hainbat material baliagarri bidali zizkieten.

Zinemaldiaren egunean, pantaila handia oholza gainean kokatu zuten, eta jende ugari bildu zuten bideoa ikusteko. Gazteek pegatinak banatu zituzten antzokira ikustera etorri ziren pertsonen artean, eta topaketari amaiera eman zioten kontzertu batekin, bertan Raulek proposatutako abestia jarri zutelarik. Denak mutilen lanarekin harrituta geratu ziren, beraiek izan baitziren horrelako zerbait egin zuten bakarrak. Gainontzekoek prestatutakoarekiko guztiz desberdina izanenez, beraiek nahi izan zutena lortu zuten: bertaratu zen jende guztia, haurren eta gazteen eskubideen inguruko hausnarketa egiten hasi zen.

Etxera bueltatzerakoan Jack oso pozik zegoen, amak zoriondu egin zuen eta esan zion oso harro zegoela pertsona enpatikoa izateagatik. Pozik zengoen munduko haur eta nerabeen eskubideak ezagutzera eman zuen urratsarengatik eta bidali nahi izan zuen mezuarengatik: tratu txarrak jasaten dituzten haurren irudiak, apurka-apurka aldatzen joatea, mundu honetako gizaki guztien elkarlanarekin batera. Eta denok izan gaitetzela, haurrekin eta nerabeekin bereziki, eskuzabalak eta baketsuak eta errespetua eta elkartasuna erakuts ditzagula.



Alaitz Robledo Goirizelaia
DBH 3.maila

SANTA KATALINA BARNETEGIKO SEKRETUAK

Begiak zabaltzerakoan gela zuri eta bakar batean nago, buruko min itzelarekin. Alboetara begiratu dut. Ezkerraldean ate beltz bat eta eskuinaldean telebista zahar bat leiho txiki baten aurrean. Ezinezkoa zait leiho kanpoan zer demontre dagoen ikustea. Mugitu naiz, baina alferrik. Halako batean, atea ireki da eta ile beltza duen emakume bat sartu da.

- *Sasoia zen, Eneko, lo ta lo egon zara! Ni Ana naiz, zure medikua. Zure amak eskatu digu esnatzean berak idatzitako gutun bat irakurtzeko.*

Hitz horiek esan ostean gutuna ohe gainean utzi eta alde egin du medikuak. Ni zur eta lur geratu naiz entzundakoarekin, eta gutunari kasurik egin gabe, gela txiki honetan nola bukatu dudan gogoratzen saiatu naiz.

* * *

Santa Katalina izeneko barnetegi honetan sartzeko eguna heldu da, eta oso urduri sentitzen naiz. Amak lau urte nituenean etxetik alde egin zuen. Bakarrik aurkitu nuen eskutitz bat azalpen gutxirekin. Orain bi hilabete dira aitak utzi ninduela. Autoan zihoala istripu larri bat izan zuen, eta ospitalean larri-larri egun batzuk igaro ostean, hil egin zen.

Barnetegiaren aurreko aldean nago, goizeko zortziak dira eta hemen ez dago inor. Etxe erraldoi bat da, gaztelu baten aurrean nagoela dirudi. Eraikina inguratzen duten lorategiak oso ondo zainduta daude. Orkideak, basabitxiloreak, tulipak... baina niri gehien gustatzen zaizkidanak larrosa gorriak dira, gustukoen dudan kolorea

dutelako. Sta. Katalinako kanpoko muga pinuz osaturiko baso beldurgarri batek osatzen du. Paisaia honek giro misteriozua ematen dio barnetegiarri.

Uste nuen norbait nire zain izango nuela, baina hoge minutu igaro dira jadanik, eta hemen segitzen dut bakar-bakarrik. Etsita. Maletak hartu eta ate eder horri ostikoak ematen hasi natzaio. Ez dut inor ate demontre hau irekitzen laguntzeko. Halako batean atzean norbait dagoela antzeman dut.

- Egun on. June naiz, barnetegiko monitoreetako bat. Barkaidazu berandu heltzeagatik, lokartu egin naiz-eta - argitu dit neskato ile beltzaranak.
- Ni Eneko naiz. Lasai, denbora gutxi daramat itxaroten - erantzun diot.

Gezur galanta esan diot, barnetegia barrutik ezagutzeko irrikaz nago eta. Junek atea ireki eta sartzeko eskatu dit. Nire aurpegi irribarretsua guztiz aldatu da barruko lehen losa zapalduaz batera.

Barrualdeak ez dauka zerikusirik kanpoaldearekin. Hormak, orain dela hamar urte zuri kolorea izango zutenek, orain marroiak dira. Zorua egurrezkoa da, eta olek, zapaltzerakoan, kraska egiten dute. Aurrez aurre arreta zerbitzua dago, eta atzealdean egurrezko eskailera handi eta zahar batzuek bigarren solairuko logeletara daramate. Eskaileren ezker aldeko ate txikitik jantokira hel daiteke, eta beste aldean dagoen atea zeharkatuz, korridore zabal eta luze bat zeharkatuz, ikasgela, liburutegi eta kiroldegira.

- Zure logela 344.a da, eta Maiterekin banatu beharko duzu -azaldu dit monitoreak, logelako giltzak emanaz.
- Eskerrik asko. Baina... nor da Maite? -erantzuten diot urduri.
- Laster jakingo duzu... eskailerak igo eta zuen pasilloko azkenengo logelan dago zure zain.- Hitz horiek esandakoan, Junek eskuarekin agur egin eta alde egin du.

Maletak hartu eta eskailerak igotzen hasi naiz. Bigarren pisua lehenengoa bezain zaharra da. Logelako atea iritsi naiz, eta karrajuan inorekin ez suertatzeak harritu nau. Atea ireki eta gelara sartu naiz. Alde bakoitzean ohe bana. Txukuna benetan. Maiteren alde oso ordenatuta dago. "One direction" taldea asko gustatzen zaiola argi dago, horma goitik behera musika taldea izan zenaren argazkiz eta afixez beterik duelako. Halako batean, gure begiradek topo egiten dute.

- Ongi etorri! Maite naiz. Zu Eneko izango zara, ezta? Junek gaur helduko zinela jakinarazi zidan atzo arratsaldean.- Maletak ohe gainean utzi eta barrualdera sartzeko eskatu dit.
- Zergatik ez dago inor hemen? - galdetu diot.

- Oraindik goizeko bederatziaik laurden gutxiago direlako. Gauero arratsaldeko bederatzietatik goizeko bederatziaik arte logeletako ate guztiak zarratzen dira. Ez dakit zergatia. Hemen urte bat baino ez daramat. Diotenez, orain dela hiru urte maiteminduta zeuden bi mutil desagertu ziren. Polizia uste zuen zuzendaria izan zela erruduna, baina ezin izan zuten frogatu. Mutilak ez zirenez agertu eta inolako arrastorik ez zutenez aurkitu, bertan behera geratu zen kontua - azaldu dit Maitek.
- Nor da zuzendaria? Oraindik hemen dago? - galdetu diot barnetegi horretatik korrikan irteteko nahian.
- Bai, oraindik hemen dago. Deiene deitzen da eta kriston beldurra ematen du. Bekoki iluna du, beti beltzez jantzita ibiltzen da. Oso altua eta argala da. Ile beltz luzea du eta motots batean batuta darama beti. Daukan sudur luze-luzeak betaurreko lodi batzuk eusten dizkio. Ezpainak beti gorritz margotzen ditu. Oso isila da, ez da berbalduna, baina hasten denean... bere oihuak barnetegi osoan entzuten dira. Hobe arazorik ez izan berarekin.

Konturatu garenerako bederatziaik eta laurdenak dira. Norbaitek atea jo du oihuka. Deiene da. Benetan! Emakume horrek izugarrizko beldurra ematen du, gorputzeko ile guztiak tente jartzeko moduan. Maitek eta biok elkarrri begiratu diogu eta korrika batean korridorera irten gara. Bertan gazte asko ikusi ditugu karrajuko mutur batetik bestera arrapaladan, jantokirantz gosaltzeko irrikitan.

Jantokiaren handitasunak txiki sentiarazi nau. Mahai asko daude, baina ia guztiak jendez beterik. Maitek eskutik heldu nau, eta gosariaren bila joan gara. Barnetegi honetako janariak uste nuena baino itxura txarragoa dauka. Azkenean kafe bat eskatu dut, eta Maiterekin batera mahai bakar batean jesarri naiz. Momentu horretan neska txiki eta ile horidun bat gure aurrean jesarri da.

- Nor da hemen daukagun mutiko berria? - galdetu du neskatilak niri begira goitik behera.
- Joan zaitetz hemendik, Simone! - erantzun dio Maitek. Eta Simonek eserlekutik altxatu eta alde egiten du.
- Nor da hori? - galdetu diot jarraian.
- Gu baino urte bat gazteagoa da, eta txarrena da gure zuzendariaren alaba dela - onartu dit Maitek.

Halako batean, jantokiko beste aldean dagoen mutiko batek deitu du nire arreta.

- Eta mutil hori? - jakin nahi izan dut, aho zabalik.
- Galdera asko dituzu zuk, gero, Eneko... Eta beharbada isilik gorde beharrekoak esaten ari naiz, baina Luken da. Mutiko oso azkarra da. Ni heldu nintzenean jadanik bera hemen zegoen. Oraintxe bertan gureganantz hurbiltzen ari da - jakinarazi diot.

- Egun on Maite eta...-esaldia bukatu ezinik geratu da mutikoa.
- Eneko - aurkeztu dut neure burua.
- Orduan... Egun on Maite eta Eneko - esan du Lukenek bere lagunen mahaira itzuli den bitartean, irribarretsu.
- Ez dakit zergatia, baina Luken begiratzen dudana bakoitzean, inoiz sentitu ez dudana sentitzen dut - aitortu dut nahi gabe eta alboan eserita dagoen neskatoa aho zabalik utzita.

Momentu horretan zuzendariaren alaba korrikan irten da. Ordu bat geroago gure logelara bueltatu gara arratsaldeko klaseak prestatzeko, eta Deiene aurkitu dugu nire gauzak kuxkuxeatzen. Baina ez diogu garrantzi handirik eman.

Egunak aurrera joan ahala, bertakotuta sentitzen naizela iruditu zait. Badira bi aste barnetegi honetara heldu nintzela. Zoritxarrez ez dut berriz ikusi Luken lehenaldi hartatik hona.

- Eneko!!!-oihukatu dute bat-batean Junek eta Maitek niregana korrika datozela - Uste dugu zuzendariak behealdeko gela batean daukala Luken. Gaur goizean Simonerekin hortaz hitz egiten entzun dut. Giltzak baditut, baina ni ezin naiz horra behera jaitsi, beldur handiegia ematen dit-eta - aitortu du Junek.
- Bale, orduan gaur iluntzean bederatziak jo baino lehenago bajatuko gara Maite eta biok - erantzun diot konbentzimendu osoz.

Bederatziak heldu direnean, logelako ateak zarratu aurretik, barnetegiko soto ilunera sartu gara. Uste gabeko oihu bat entzutean, Maite zarataka hasi da. Beldurturik, korrika aldendu da. Oraingoan bakarrik geratu naiz. Birritan pentsatu gabe, garrasia susmatu dudana aramu sarek beteriko ate zaharrerantz hurbildu naiz. Atea ireki eta Luken aurkitu dut, lurtean botata eta bi eskeleto alboan dituela. Seguruenik desagertu ziren mutilenak dira. Une horretan, zuzendaria agertu da negarrez eta dardarka. Tupustean metalezko mailu batekin buruan jo nau. Zartako ederra izan arren, konortea ez dut galdu. Inguruan zer gertatzen den ikusteko gai izan naiz. Junek eta Maitek atea zeharkatu dute poliziarekin batera. Gogoratzen dudana azken gauza da zuzendaria eskuburdinak jarrita eraman dutela izan da.

* * *

Neure buruari hitz egiteari utzi diodanean ohartu naiz Maite eta Luken ditudala ohearen alboan. Amak idatzitako gutuna ikusi dut. Nire amak 4 urte nituela utzi gintuen. Orduan... norena da gutun hori? Galdera hori buruan dudala idazkia irakurtzen hasi naiz.

Kaixo Eneko:

Deiene naiz, Santa Katalina barnetegiko zuzendaria, eta zure ama ere bai. Ez nekien nor zinen zu, zure logelan orain dela urte asko nik idatzitako gutuna ikusi nuen arte. Uste dut azalpen bat merezi duzula. Etxetik alde egin nuen egun hartan haurdun nengoela jakin izan nuen. Handik zazpi hilabetera jaioko zen Simone. Simoneren aita ez zurea ez dira pertsona bera. Andoni, Simonen aita, beste mutil batekin zegoen ezkontuta. Nire lagun mina izan zen, bortxatu ninduen arte. Egoera horretan ezin nuen egia kontatu, alde batetik zure aitak esango zuenaren beldur nintzelako, eta bestetik, ezin nuelako Andoni ikusi ere egin. Horregatik egin dut egin dudan guztia. Espero dut egunen batean barkatzea.

Konturatu naizenerako negarrez hasi naiz, eta alboan ditudan Maite eta Luken ere bai. Emakume horrek 4 urte nituela utzi egin ninduen lehen aldiz, eta orain, 16 urte berri eginda ditudala, bigarren ez utzi nau bakarrik. Ez dut ez tristeziarik ez poztasunik sentitzen. Egun hauetan gertatu izan denaren guztiaren ondorioz, beste pertsona bat naiz, eta behingoz, ni naizen bezalakoa izaten ahaleginduko naiz, eta hori ez du inork aldatuko.





Ines Allika Gerrikagoitia
DBH3. maila

“Hala ere, barkatzeak ez du iragana ezabatzen”

BIZITZAK ETA NORIAK

Bizitza noria bat bezalakoa dela uste dut.



Guztiok igotzen gara norian. Jaio egiten gara. Gure bidaia hasten dugu.

Batzuei, asko gustatzen zaie bidaia, liluragarria, eta oso laburra iruditzen zaie. Beste pertsona batzuei, aldiz, bidaia ez zaie ezer ere gustatzen, eta oso astuna edo aspergarria iruditzen zaie. Horiez gain, badaude beldurra izaten dutenak ere, eta askotan norian igotzen dira. Horiek bidaiaren momentu oso txarrak igarotzen dituzte, eta “zergatik igoko ote nintzen?” edo “zergatik jaioko ote nintzen?” galdetzen diote euren buruari. Erantzunik ez dute jasotzen. Horretaz gain, guztiei berdina gertatzen zaigu amaieran: bidaia bukatzen zaigu, *bizitza* bukatzen zaigu. Gure bidaiaren amaierara iristen gara.

Nire ahizpak 19 urte zituen bere bidaia bukatu zenean. Minbiziarekin bizi izan zen 17 urte bete zituenetik, eta azkenik, 19 urterekin, bakarrik utzi ninduen. Oso gogorra izan zen, baina jada denbora asko pasatu da. Ahizpa eta biok lagunik onenak ginen, eta gure ama harro zegoen horregatik. Barre, negar, dantzatu, kantatu eta beste hainbat gauza egin genituen batera egon ahal izan ginen urteetan. Ahizpa zen egunero salbatzen ninduen denaz. Egunero izaten nuen arrazoi bat ohetik altxatzeko. Nire ahizpa.

Nerea zuen izena. Begi urdin-urdinak zituen, itsasoa bezalakoak, eta ilea beltza, ikatza bezalakoak. Neska oso sinplea zen. Beti barre egiten zuen, beti zegoen alai. Barre hori bukatu zitzaion minbiziaren berri izan zuenean. Horren ondorioz, ondo zegoela adierazi nahi zuen, baina nik banekien ez zela hori gertatzen. Nereak bazekien noriako bidaiaren bukaerara iristen ari zela. Guztiok genekien. Begien distira ere joan zitzaion.

Duela denbora asko ez nuela nire ahizpaz pentsatzen horren sakon. Nerearen argazkiari begiratu diot esnatu naizenean, eta bizirik zegoen bitartean egin genuen guztia burutik pasatu zait minutu batean. Pentsamenduak airean daude, eta bat-batean gure burura datoz. Musika bezala. Txikitatik abesten ditugun abestiak airean daude eta, momentu batean, gogoratzen ditugu.

Nire ustez, bizitzan ez dago damutzeko arrazoirik. *Egin genuena gara*, edo hori esaten dute. Hala ere, nik badaukat damutzeko arrazoi bat. Nerea hil baino egun bat arinago, eztabaida bat izan genuen. Lerdokeria bat. Ahizpak sentitzen zuen bere noriaren bidaiako azkeneko minutuak zirela; nik, ordea, ez nuen uste. Horregatik, Nereak kalera atera nahi zuen, baina nik etxean gelditzeko esan nion. Ezetz izan zen bere erantzuna, baina nik ez nintzela aterako esan nion, behin eta berriz. Pelikula bat ikusi genuen, eta nik triste samar ikusten nuen. Ez genuen arratsalde osoan hitz egin, eta etxetik joan nintzenean, “agur” ere ez zidan esan. Txarto sentitu nintzen nire etxera heltzerakoan, baina txarrago hurrengo goizean, amak deitu zidanean Nerea ez zela esnatu esateko. Momentu horretan hasi zen nire damutasuna. Eta egun horretatik aurrera damutasunak nire gorputzeko zelula guztietan jarraitzen du.

Egunero bezala, plazara begira nago etxeko leihotik, gosaria jaten dudan bitartean. Kafea eta bi gaileta, txokolatzekoak, noski. Ana Marik ekarri dizkit, duela bost minutu. Ana Mari, gurekin bizi da. Ni eta senarrarekin. Nire semeak kontratatu zuen, duela sei hilabete, gutxi gorabehera, gutaz arduratzeko. Ez zela beharrezkoa uste nuen, baina orain, konturatu naiz, beharrezkoa dela. Orain, nire bizitza errazagoa dela esan ahalko nuke. Lehen, esnatzen nintzenetik, oheratu arte, ez nintzen gelditzen. Zerbait egin behar nuela esaten zidan nire buruak, eta ez nuen atsedetik hartzen. Orain, berriz, guztiz alderantzizkoa. Ez daukat ezer egiteko. Ez ditut platerak garbitu behar. Ez dut garbitzailea jarri behar. Arropak eskegi. Eta beste milaka gauza. Orain, esnatu, eta gosaria hartzen dut. Goizean buelta bat ematera ateratzen naiz, senarrarekin edo Ana Marirekin. Gero, bazkaldu, sofan eseri, eta ez nau inork hortik altxatzen. Telenobelak ikusten pasatzen dut arratsaldea, ezer egin behar izan gabe.

Gaur, ez da beste egunak bezalako izan. Nire senarra Iñaki ikusi dut hitz egiten Josurekin, leihotik begira nengoen bitartean. Duela denbora asko bi hauek hitz egiten ez zutela. Gazteak zirenean haserretu ziren, eta hortik aurrera, hitz egiteari utzi zioten. Ia ez ziren ezta begiratu ere egiten kaletik gindoazenean Iñaki eta biok, edo igandeetan elizara joaten ginenean. Lagun onenak izateari utzi zioten etsaiak izateko. Edo antzerako zerbait. Harrituta gelditu naiz hitz egiten ikusi ditudanean.

Nik banekien lagun onak zirela, oso. Horregatik, beti esaten nion Iñakiri Josurekin hitz egiten joateko, eta ez eramateko haserrea hilobiraino. Esperientziaz esaten nuen, nire ahizparekin gertatu zitzaidalako. Inoiz ez dakigu noiz bukatuko den gure bidaia, gure bizitza, horregatik uste dut arazoak lehenbailehen konpontzea dela hoberena. Poza sentitu dut momentu horretan, azkenik lagunak direla pentsatu dudanean. Horregatik, etxera iritsi denean, honela galdetu diot:

- *Iñaki, noiztik hitz egiten duzue Josuk eta zuk?* -harridura aurpegiarekin begiratu dit.

- *Herri honetan, esamesak gero eta arinago zabaltzen dira* -izan da erantzuna.

- *Hori ez da nire galderak izan* – nik.

- *Kontatuko dizut, herenegun, supermerkaturan, sagarrak hartu behar nituen, baina Josu zegoen, nik, ez nekien hura zenik, horregatik “barkatu, utzidazu sagar poltsa bat hartzen, mesedez”* -esan nion. Geldiune bat egin, arnasa hartu eta jarraitu zuen, “bai” erantzun zidan, eta bat-batean “barkatu” hitza atera zen bere ahotik, hondo-hondotik gainera. Nik ez nekien zer erantzun horregatik, sagarrak hartu eta ezer esan gabe atera nintzen.

- *Ez zenion hitz soil bat ere esan?* - orain harridura aurpegia jarri duena ni izan naiz.

- *Ba, ez. Ez nuen hori espero. Beno, eta, horregatik, gaur kalean hurbildu egin zait.*

- *Eta, zer esan dizu?*

- *Nik esan diot ez zela ezer gertatzen, barkatzen niola. Horregatik bihar goizean geldituko gara, kafea hartzen joateko, aspaldiko partez* - irribarre gozoa atera zaio.

Nik ez dut ezer gehiago esan. Isiltasuna izan da gure etxearen jabe. Pozten naiz, Iñaki eta Josuren arteko harremana konpondu izanaz. Beti nahi izan dut harreman ona izatea hauek biek. Eta gertatu da. Eta ni oso pozik nago. Gainera, uste dut Iñaki ere oso zoriontsu dagoela. Irri eginez iritsi da etxera. Ez nuen horrela ikusten anaia hil zaionetik. Momentu oso zailak izan ziren berarentzat, baina orain aurkitu du faltan botatzen zuen beste anaia. Anaiak, guztiak ez dira odol berdinekoak. Badaude bihotzeko anaiak, eta hemen adibidea.

Iñaki eta biok gure norietako bidaiaren azken momentuak bizitzen ari gara, eta pozten naiz, senarra beheraldi honen ondorioz bidaia gehiago disfrutatzen egoteaz. Espero dut horrela jarraitzea.

Nire bidaiaren amaierara iritsi naiz. Uste dut nire ahizpa ikusi ahal dudala. Edo ama da? Ez dakit, itxura berdina zuten edo dute.

Bidaia bukatu da, baina bizirik jarraitzen dudala sentitzen dut.

Bidaia liluragarria izan da nirea.



Izaro Barruetabeña Larruskain
DBH 4. maila

"Adiskide bako bizitza, auzo bako heriotza"

ARIMETATIK ERNE

Amak larreko ahuntzak tokiz aldatzera bidali ninduen. Egia esan, beste lan asko baino gustukoago nuen basora joan eta ahuntzak lekuz aldatu bitartean pasealdi txiki bat egitea. Ahuntzak aurreko egunean utzi nituen toki bereberetan zeuden, baina kateak sasi eta zuhaitz artean kateatu zituzten, betiko antzera. Kateak kostata askatu, eta hiru ahuntzak segika nituela mendi-garaira eraman nituen.

Bertan zuhaitz baten barrenean katea lotzen nembilela, inoiz ikusi gabea nuen landare bat begiztatu nuen. Izar gorri baten itxura zeukan. Arrautza formako bola zurixka batetik jaiotzen ziren izar formako garro haiek. Lurretik norbait edo zerbaiten atzaparrak ateratzen ariko balira bezala. Hamarratz baten tentakuluak ziruditen. Bere erroak pixka bat banandu nituen barrualdea ikusteko eta berde ilun koloreko gleba mukoso batez lohitu zitzaidan atzamarra. Miresgarria eta ohiz kanpokoa iruditu zitzaidan hura. Inoiz inon gehiago ikusi gabea.

Lur zati horretan zerbait berezia zegoen, beste lekuetan falta zena, landare berezi horrek bertan fruitu emateko. Zer ote litekeen pentsatzen nengoela, oroitu nintzen bai gurasoek bai aitonak askotan kontatu ohi zizkidatela gerra zibileko hainbat istorio. Eta zer ikusi daukate inoiz ikusi gabeko landare batek eta gerrako istorioek? Galdetuko diezue zeuen buruei. Bertan, momentu hartantxe oinak pausatuta nituen lurrean, lur mantu batzuen azpian, gerlari askori biziak salbatu zizkien lubaki bat zegoen. Oraindik ikus zitezkeen antzina bi metro ingurukoak ziren zanga horietan gelditzen ziren lurraren beheragune markatuak. Zer landare mota izango ote zen jakin-minez eta buruari bueltaka, etxera bueltako bidea hasi nuen.

Afalostean, amari landare hura deskribatu eta ea zer mota zen galdetu nion. Ez zuen erantzunik ematen jakin, baina landare eta onddo ezberdin mota askoren inguruko bi liburu mardul eman zizkidan. Gau-mahai gaineko argitxoa itzali aurretik, bi liburuak hartu eta irakurtzeari ekin nion.

Ordu eta erdi pasatxo irakurtzen egon ostean, eta ondoko ohean lo egiten zuen anaiaren argia itzaltzeko hainbeste kexa entzun ondoren, lehenengo liburuaren amaiera alderako orri batean ikusi nuen goizean basoan ikusi nuenaren argazkia. Haren beheko aldean landare horri buruzko informazioa ageri zen. *Anthurus archeri*. Horrela zuen izena horrenbesteko interesa sortu zidan onddo hark. 1860. urtean, Australiako hegoaldeko Tasmania irlan soilik existitzen zen, eta 1900. urterako, Australia eta Zeelanda Berrian zabaldu zen. Txundituta gelditu nintzen. Nola liteke ba munduko beste muturrean soilik existitzen den espezie bat etxe alboan aurkitzea? Irakurtzen jarraitu eta bertan aurkitu nuen erantzuna. Espezie asko, jendeak leku batetik bestera arropetan eramandako hazien bidez zabaltzen ziren. Egun hartan gertatutakoaren inguruko gogoeta eginez eta buruari bueltak emanaz, lo sakonean murgildu nintzen.

“Jacob, munduaren beste muturrean egongo zen ia hilabete bat barru, familia eta lagunetatik ezin urrunago. Azken agurra zen hura. Ez zekien denboraldi luze baterako, edo behin betirako. Hala ere, bere arbaso eta txikitatik bizi osoan zehar tinko eutsi zituen idealak defendatzeko beharra sentitzen zuen. Ez zen bidezkoa bere arbasoak horrenbeste maitatzen zuten lurretan gertatzen ari zena. Krudelkeria hutsa zen eta ematen zuen urte hartaraino, bai politikoki eta bai sozialki eman ziren aldaketa guztiak alferrikakoak izan zirela. Berrogeita hamar urte atzera egin izango balute bezala.

Papertxo bat sartu zion amak esku artean.

- *Heltzean nire amagatik galdetu behar duzu, Jacob. Askotan hitz egin dizut berataz, badakizu baina gogoratu Juanita Garaigordobil duela izena. Gu hona etorri ginenean Bizkaiko herri txiki batean bizi zen, Muxikan. Bertan eta inguruko herrietan galde dezakezu bere izena eta ea norbaitek zerbait dakien.*- azaldu zion amak negarrari ezin eutsita. Hurbildu, eta besarkada batean murgildu ziren.

- *Mesedez, zin egin iezadazu bueltatuko zarela... eta beste azken besarkada bat emateko aukera izango dudala* - xuxurlatu zion belarrira, negarrarekin itotzen ari zela. Ezin zion inolako promesarik egin bazekielako nora zihoan, baina, inoiz baino indar eta maitasun handiagoarekin estutu zuen. Banatu zirenean aitari begiratu eta inoiz eman gabeko besarkada eman zion.

- *Oso harro nago seme. Ikaragarri maite zaitut* - negar anpuluak erori zitzaizkion begietan behera aitari, inoiz baino gehiago sentitu zituen negarrak. Hala ere, bihozkadari eutsi ezinik itsasontzi erraldoi hartara igo zen Jacob.

Aroztegi batean peoi gisa lan eginda lortu zuen Queenslandetik Santurtzirako itsasontzi txartela. Lurretik itsasontzirako arrapala zeharkatu zuen atzera begiratu gabe, eta txarteltxoak erakutsi zion atearen ondoan zegoen gizonari. Buruarekin pasatu pasa zitekeenaren keinu bat egin zion, serio. Jende pila bildu zen Brisbaneko portuan, eta itsasontzia ere jendez gainezka zegoen. Ulertzekoa zen, ez baitzen erraza distantzia luzeak zeharkatzea, bai denboragatik baita suposatzen zuen gastu ikaragarriagatik.

Barruan zegoela, andre bat ikusi zuen bakoitzari kamarotea egokitzen. Laguntza eskatu zion, eta bere gelara lagundu zion. Oso txikia zen, eta beste hiru gizonekin partekatu beharko zuen gela. Zorte onez, andreari eskerrak ematen zizkion artean, leihatila txiki bat begiztatu zuen sakonean. Leihotxotik hurbilen zegoen ohean eseri eta agian berriro ikusiko ez zituen portua, dendak, hondartzak, eraikinak eta batez ere jendea kontenplazten gelditu zen.

Ordubete inguru egon zen barkua mugitu gabe, bidaiari guztiak sartzeko esperoan. Jacoben hiru gelakideak ere agertu ziren. Behingoz mugitzen hasi zenean, korapilo bat egin zitzaion eztarrian.

- *Zer mutilak, zer egingo duzue zuek ailegatzean?*- galdetu zuen bat-batean Jacoben gaineko ohatzean gora begira zegoen mutilak.

- *Nik ez daukat Santurtziraino joateko intentziorik, El Cabon geldialdia egiten dugunean jaitsiko naiz* - esan zuen beste ohatzeko gizon batek.

- *Ba nik gerra zibileko Bizkaiko frentean borrokatuko dut. Nire familia betidanik izan da euskalduna, nahiz eta, nire gurasoak Australiara etorri ziren pobrezia dela eta bizi hobe baten bila. Txikitatik jakin dut bertako egoera, baina inoiz baino zailago dago kontua orain. 18 urte bete berri ditut, eta borrokatzeko ahalmena dudanez, nire arbaso eta nire sinesmenekiko leialtasunez jokatzeko, eta hauen alde borrokatzea garrantzitsua da niretzat. Amak, bere ama, nire amona aurkitzen ahalegintzeko eskatu dit, bera eta bere familia lagungarriak egingo baitzaizkit.*- azaldu zuen Jacobek.

- *Nik Jesus dut izena, eta ni ere intentzio horrekin nator adiskide, onartzen banauzu, bidelagun paregabeak izan gintezke* - harritu egin zuen Jacob Jesusen proposamenak, baina gustura onartu zuen, egoera hartan ez baitzegoen gaizki inoiz norbait ondoan izatea.

Luzeak izan ziren egun haiek. Leihatilatik begiratzean, beti paisaia berbera ikus zitekeen, ez zegoen inolako denbora pasarik. Hala ere, historia eta sesto asko partekatu zituzten gelakideek elkarren artean. Jacob konturatu zen Jesus bidelagun aparta izango zuela. Hamar egun pasata Afrikako El Cabora iritsi ziren, eta gelakideetako bat agurtu behar izan zuten. Jacobek bazekien heltzean aurkituko zuena ez zela hobe izango, baina bidaia hura behingoz amaitzeko irrikitan zegoen. Beste astebete pasata Senegalen porturatu ziren. Lurralde haiek guztiak ezezagunak ziren Jacobentzat, baina egun batez lur eta jende ezberdina ikusteko aukera zuten.

Ia hilabete beranduago, Santurtziko portura iritsi ziren. Ohituta zeudenaren aldean, oso desberdina zen toki hura. Lur haiek zapaltzean, Jesusek eta biek elkarri begiratu eta besarkada bat partekatu zuten barre eta algara artean. Argi zeukaten soldadutzan izena emango zutela, beraz, horixe egin zuten. Hurrengo egunean kamioi baten joango zirela esan zieten, babestu behar zen frontieraino. Gaua Bilboko familia baten etxean pasa zuten, jendea oso esker onekoa baitzen frontera borrokan zihoan jendearekin. Gogoan zuen Jacobek bere familia aurkitu behar zuela, eta irrikitan zegoen haiek ezagutzeko.

Hurrengo goizean, etxeko andreak prestatu zuen gosari ederra jan ostean, kamioiak itxarongo ziela esan zieten tokira abiatu ziren. Guztiak bildutakoan bakoitzari egokitzen zitzaizkien armak eman eta bideari ekin zioten. Kamioiaren barrutik horrenbeste denboraz Jacoben bihotzean eta buruan izandako lurren irudiak aurrean zituen orain. Baserrien aurretik igarotzen zirenean, ortuan lan egiten ari ziren baserritarrak begira gelditzen zitzaizkien. Konexio bat sentitzen zuen. Bertakoa zela jakin zuen.

Herri txiki bateko elizaldean utzi zituzten, eta aurrean zuten aldapa igo eta “mendi-garai” larrea non zegoen galdetu behar zutela esan zieten. Aldapan gora oinez zihoazela, oso ezaguna egiten zitzaion dena Jacobi. Amak bere jaioterria deskribatzen zionean bezalakoxea zen den-dena. Larreak, zuhaitzak, etxeak... Gora heldutakoan etxeko etartean kodaina pikatzen ari zen adineko gizon bat txapela buruan jarrita zeukala.

- *Egunon! Ba al dakizu non dagoen “mendi-garai”?*- galdetu zion taldean zetorren gizonetako batek.

- *Bide hori jarraitu eta eskumara jo behar duzue* - azaldu zien eskuarekin seinalatuz.

- *Milesker!*- erantzun zuten guztiek aho batez.

Lehengo bidea berriro hartu zuten, baina buelta eman eta Jacobek barruan bueltaka izan zuen galdera egin zion gizon hari.

- *Hemendik bizi al da Juanita Garaigordobil?*- esan zion bat-batean

- *Ba bai...* - erantzun zuen gizonak harrিতuta- *Hortxe hirugarren etxe horretan.*

Txundituta zegoen. Toki horri buruz, amaigabe istorio eta kontu entzunda zeuzkan...

- *Ei, Jesus* - sorbalda heldu zion Jacobek- *Lagunduko al zenidake nire familia ezagutzera?* - *proposatu zion etxe hartarantz begira.*

Ezer esan gabe, bertarantz abiatu ziren. Baserri handi eta oso zahar bat zen eta ez zuen norbait bertan bizitzeko antzik. Atearen parean jarri eta ukabilarekin gogor jo zuten. Orduan, andre txiki eta argal batek atea ireki zuen. Ezuste aurpegia zeukan.

- *Pedro! Etor zaitetz ona, soldadu batzuk daude atean* - egin zuen oihu etxe barrurantz susmo aurpegiz.

- *Ez, ez, andrea, ez gatoz horregatik. Jacob naiz, zure Australiako loba* - Bere amonaren aurpegia guztiz aldatu zen. Irribarre bat eskaini zion.

- Ene bada! Zu zara, benetan? - emakumeak besarkada estu bat eman, eta bi eskuekin aurpegia heldu zion - Nola bururatzen zaizu hona etortzea?- esan zion negarrez eta beste besarkada bat emanez- Guztiok hilko garenaren beldurretan gaude, eta pentsatzen genuen zuek salbatuko zinetela, baina...nola okurritu zaizu...?

- Zuek guztionatik eta sinisten dudan guztiagatik etorri naiz, amona...- bota zion Jacobek, bera ere negarrari ezin eutsirik.

- Pedro! Gure loba da Pedro!- oihukatu zuen gogor eta pozez.

- Ene gure mutila...- esan zion aitonak besarkada estu batez.

- Hau Jesus da - esan zuen adiskidea seinalatuz- itsasontzian ezagutu dut, fidatzekoa da.

Betidanik ezagutuko balituzte bezalako tratua jaso zuten bien partetik. Oso atsegin eta abegitsuak izan ziren. Hurrengo egunean, bertan lo egin ostean frontera joan beharra zeukaten. Agurra gogorra izan zen, ia gurasoena bezain gogorra. Bidean zihoazela, Jacob buruari bueltaka pentsatzen hasi zen. Amak askotan egiten zituen keinu, eta esapide asko ez zituen inoiz ulertu. Orain denak ulertzen zituen. Amonak jestu eta esapide berdinak erabiltzen zituen.

Frontera heltzean, familia ezagutu izanaren poztasun guztiak desagertu eta sufrimendua eta beldurra nagusitu ziren. Metrailadore, fusil, pistola, granada eta abarren zaratak besterik ez ziren entzuten. Hainbat kide erretiratu, batzuk desertatu eta beste asko galdu zituzten.

Jacob konturatu zen leku hartan ez zegoela soldadurik. Denak zirela inongo prestakuntza gabeko etxe normaletako jende gaztea. Inork ez zekien zer egin, eta leku batetik bestera korrika denbora asko pasatzen zuen jendeak. Beldurrez. Bertan zegoen jende guztiaren artean, bat zegoen soilik Marokon soldadutza eginikoa, Peru. Beste aldean, berriz, jende prestatua zegoen arma eta hegazkin ikaragarriekin. Kasu honetan beste aldekoak Afrikar brigadakoak ziren.

Hiru egun bertan pasatu ostean beste aldeak egiten zuen presioa nabarmendu egin zen. Peruk, denotatik zaharrenak, trintxera bat egin behar zela agindu zuen, beste aldekoen hegazkin erasoaldi posible batez babesteko. Peru, Jacob, Jesus eta beste kide bat aritu ziren trintxeran lanean. Oso lan nekagarria zen hura eta beldurraren presioa ikaragarria zen. Bederatzi ordu inguru ibili ziren aitzurka eta lurra mugitzen trintxeraren barruan, bat-batean, hegazkinen mehatxuzko soinua entzun zutenean. Kide guztiak hasi ziren oihuka beldurraren beldurrez eta oraindik amaitu gabe zegoen trintxera barrurantz korrika. Jacob eta beste kideak bertan zeuden, eta beste guztiek gainera nola jauzi egiten zieten sentitu zuten. Hegazkinek botatzen zituzten bonba eta metrailadore zaratak entzuten ziren ozen. Jacob eta beste batzuk zapalduta gelditu ziren, eta ezin zuten arnasarik hartu. Jacobek bertan akabatuko zela uste zuen.

Hegazkinak erretiratu edo urrundu zirela sentitu zutenean, denak irten ziren lubakitik. Jacob bizirik irten zen bertatik baina beste hainbeste kidek ez zuten zorte hori izan. Oso gutxi ziren jada eta bat-batean metrailadore tiroak hasi ziren. Sublebatuak oso hurbil zeuden.

- Goazen! Azkar ostia!!! Erretiratu egin behar gara!- oihukatu zuen Jesusek, atzerantz korrika zihoala. Bat-batean lurrera erori eta odol-putzu bat sortu zen Jesusen inguruan.
- Ez,ez,ez... mesedez...- Jacobek, lagunari bizkarrean eman ziotela ikusi zuen.
- Jodeeeeer!!!Putasemeak!!!- oihu egin zuen Jacobek inoiz baino ozenago, amorru guztia bideratuz. Bazekien laguna hilda zegoela jada, baina ez zuen errealitatea onartu nahi. Jesus bertatik atera behar zuen eta lepoan hartzeko ahaleginetan zebilen.

Bat-batean erredura bat sentitu zuen izterraren atzeko aldean. Zutik ezin gelditu eta lurrera erori zen borobil, lagunaren ondora. Hanka zulatu zioten, tiro batez. Odol kantitate ikaragarria galdu, eta, zorabiatzen hasi zen. Baina orduantxe bukatu zen dena. Gizon bat hurbildu, metrailadore buruan jarri eta huraxe izan zen amaiera.

Gainerako soldaduak korrika pasatu zuten Jacoben aitona-amonen auzoa. Hurrengo trintxerara zihoazen, Esturora. Auzoguneko gazte guztiak ere haiekin abiatu ziren hurrengo frontean laguntzeko. Bazekiten bertan geldituz gero, Afrikar brigadakoak pasako zirela etxeetan zegoen apur guztia garbitzera eta parean enbarazu egiten zuen guztia hilko zutela.

Baina Juanitak ez zuen horrelakorik egin. Etxean sartuta gelditu zen. 80 urte zituen jada, eta ez zuen hiltzeko beldurrik. Ez zeukan ezer galtzeko. Etsaiak ailegatu zirenean, ezer gabe utzi zuten. Guztia eraman zuten, oiloak, untxiak, behiak, egin berri zeuden ogiak... Baina Juanita ez zen sukaldeko eserlekutik mugitu. Joanak zirela ohartarazi zenean bakar-bakarrik zegoen.

Orduan laguntzeko egin ahal zezakeen gauza bakarra egin zuen. Aitzur bat hartu eta menderatuta zegoen trintxerara joan zen. Beti erortzen zen norbait, beti zegoen norbait lurperatzeko. Tontorrera igo eta bere loba eta haren adiskidea ikusi zituenean ezin izan zion negarrari eutsi. Hurbildu eta negar algaraka, bere loba maitearen alboan belaunikatu zen gona luzearen gainean.

- Gizatxarrak!!! Hil egin nauzue!!!- etsita, denbora luzez egon zen Jacoben alkandora negarrez bustitzen. Negarrik egiteko ere indarrik gelditzen ez zitzaionean altxatu eta aitzurra hartu zuen.

80 urterekin eta egoera hartan izan daitezkeen indar guztiekin egin zuen bere iloba propioarentzako hilobia. Ahal bezala Jacob eta Jesus hilobian sartu zituen lurretik arrastaka.

Amaitutakoan, lurrera begira gelditu zen denbora batez. Buruan zeukan zapi beltza kendu eta hilobiaren gainean utzi zuen. Momentu hartatik aurrera, udazkenetan bertara joatean, oso onddo berezi eta beste inon ikusi gabeak hazten ziren hilobi haren gainean. Onddo haiek, arimetatik erneak ziren.”

Bat-batean begiak ireki nituen. Malkoak xukatu eta istorio horixe izan zen niretzako egia.



Martxel Asteinza Ansola
DBH 4. maila
“Izenetik izanera gogoa zubi “

MAITASUNAK ITSUTUTA 1

Utzi nazazu nire burua aurkeztea,
Balem nauzu eta hamazazpi urte dauzkat
Afrikako iparraldean bizi naiz
egoera txarrean nago, ezin dut ezer egin

Ez dut dirurik, ezta lanik ere
bakarrik nago, familiarik gabe.
Poliziari beldur, mutilak gustuko
beharbada European bizi beharko.

Aurrezkiak batu, etxetxea saldu
maleta egin, nire gauzak batu.
Diru nahikoa daukat, bidaiatzeko
trena eta patera prest hartzeko.

“Lagunak” agurtu gabe noa,
ez dute nire errrespetua merezi,
homosexuala nintzela esandakoan,
poliziari esan eta hasi nintzen ihesik.

Heldu zen eguna bidaia hasteko,
hobeto beldurrei aurre egin, hor egon baino.
Bi maleta baino ez neraman, pisu txikikoak
baina arriskutsuena dirua poltsikoan.

Tren bat hartu nuen, jendez beteta
bakarrik nekien kostarantz zihoala,
a zer bista ederrak leiho kanpoan,
ikus ditzaket urruneko arbolak.

Jesarri nintzen mutiko baten ondoan,
nire adinekoa zen eta oso jatorra,
hile horia, begi marroiak
hori bai zela mutiko ederra.

Portugalera zihoan pobreziatik ihes,
berdina nahi nuela esan nion irrifarrez,
benetan ez nekien zer zen Portugal
baina Europako leku bat uste nuen zela.

Landa berdeak, lan ugari,
etxe ederrak eta polita izugarri.
Horrela deskribatu zidan leku hura
eta sartu zitzaidan hara joateko nahigura.

Nor zara zu? Ni Balem naiz,
Razidd deitzen zela esan zidan pozik,
ez nekien nor zegoen pozago,
uste dut ni, hain lagun ona ezagutzeagatik.

Patera latza zela esan zidan
eta ari zela barku on baten bila,
“Nire gurasoak hilik daude
baina herentzia handia utzi zidaten”

Hura entzutean harritu egin nintzen
bere gurasoak fabrika handi baten jabe baitziren.
Hura saldu ondoren diru asko lortu zuen
eta orain ni gonbidarazi nahi ninduen !!!

Ez dut ezer sinesten, amets bat dirudi,
orain dela ordu batzuk penaz hilda nengoen bakarrik,
ez daukat hitzik hau azaltzeko
baina bakarrik esan dezaket “eskerrik asko”.

Historia hau ez da bukatu,
amaiera itxaroten bazaude
hurrengo urtean bila nazazu.
Hasiara onek
ez dute zertan
bukaera onik
izan behar.



Oihane Martin Basterretxea
DBH 4. Maila

“Malkoek hitzek baino istori gehiago dute kontatzeko”

PENTSAMENDUEN AHOTSAREN AZPIAN

2020. Urte pozoitua. 2019ko uda zoragarria datorkit burura. Une batez biziko banintz, birritan pentsatu gabe, udako egun beroetako batean biziko nintzateke. Urtarrilaren leian guztiok gure mahatsa irensten amaitu genuenean, guztiok pentsatu genuen urte hau sekulakoa izango zela. Baina urtea hasi bezain pronto, konturatu ginen benetan ez zela horrelakoa izango, eta orain lurrian lehertzen diren bonben soinuen azpian, 16 urte hauetan mundu honetan bizitako momentu guztiak ikusten hasten naiz, filmetan norbait hiltzear dagoenean agertzen den bezala. Nire pentsamenduen ahotsaren azpian, haurrak negarrez, emakumeak negar zotinka eta gizonak madarikatzen entzuten ditut. “Aurtengo zein momentutan zaildu dira gauzak?” Galdetzen diot neure buruari, malko isilen artean lo hartzen saiatzen naizenean. Eta pentsamendu beldurgarri horiekin lokartzen naiz. Denbora asko igaro zen hain ondo lo egin nuen azkenetik. Beharbada metatutako lo gauak ziren edo nire gorputza errealitatea saihestu nahian. Niretzat 10 ordu sakon izan zirenak nire ametsen artean, benetan 30 minutu besterik ez ziren izan. Hainbestetan aterpetan hartu nuen amets zoragarri horietatik ateratzen nauena, bunkerraren gainean lehertzen den bonba oso zaratatsua delako.

Bunkerreko jende guztia izutu egin da, eta orduan, inor izartu ez izana nahiko nuke. Baina pentsatutakoa asimilatu bezain laster, lotsatu egiten naiz, eta neure buruari zaplaztekoa ematen diot. Nork zainduko luke nire ahizpa bestela? Nork estaliko lizkioke belarriak gertatzen den guztiaz isolatzeko? Nork laztandu eta belarrietara xuxurlatuko lizkioke gauzak lasaitzeko? Beste besoek ni bezala babes dezaketela pentsatzeak besterik ez haserretu egiten nau. Baliteke larregi babesten dudala, baina ni eta nire ahizpa bakarrik gaude honen guztiaren aurka, eta ez nuke inoiz onartuko bera bakarrik uztearen ideia. Nire gurasoak etxean gelditu ziren hau guztia hasi zenean. Bunkerrera korrikan joateko esan ziguten, atzetik jarraituko zigutela, janaria eta arropa batzuk hartu behar zituztela eta gurekin bat egingo zutela esan ziguten, baina nire gurasoak ez dira oraindik agertu. Itxaropen tanta bat besterik ez dut, hor kanpoan bizirik egon daitezkeela pentsarazten didana. Baina hemen gauden bitartean, gu biak bakarrik, ni izango naiz beldurtzen dioten munstro horietatik babesten duena.

Nire ahizpa nire altzoan dago kiribilduta, burua leunki laztantzen diodan bitartean. Hautsiko den beldur naiz. Betazal horiek atsedean hartzen, eta errugabeko aurpegi horrekin, hain hauskorra iruditzen zait, lo egiten ikusteak gogorarazten dit aurten zein gaizki tratatu dudan; nire ahizpa eta biok oso gertukoak izan gara beti, eta bere munstroengandik salbatzen nuen heroia nintzen. Aurten dena maldan behera joan da, eta nire aldartea eta izateko moduak ez du alderantziz egin. Gogoan dut berarekin jolasteko eskatzen zidan guztietan eta nik atea muturretan ixten nionean. Badakit, agian gorrotoa didazuela orain, baina izan dudan urteak justifikatzen du, edo hori uste dut, behintzat.

Ezin dut imajinatu zer sentitu behar duen 6 urteko ume batek horrelako egoera batean, hain txikia ...

Ez dakit ezer inori buruz, ez naiz inoiz oso soziala izan. Ez da marjinatu bat naizela, lagunak ditut, baina ez naiz egunero irteten ezta sekulako festak izaten dituzten lagun talde horietakoa. Nahiago dut etxean geratu, eta kalera irtetekotan, leku lasaietan paseoak ematea, zinemara joatea edo izozkia hartzea gustatzen zait. Bai, gaur egungo jendearekin konparatuta nahiko desberdina naiz, eta horregatik ez naiz talde horietan guztietan sartzen. Badut lagun bat harrigarria dena. Hain dirudi indartsua, hain ziur bere buruaz. Bera eta biok oso maiz elkartzen ginen, nire lagunik onena zen, dena kontatzen genion elkarri, barre egiten genuen, negar egiten genuen, berarekin aske sentitzen nintzen, eta banekien egiten nuenaz eta esaten nuenaz, ez ninduela inoiz epaituko. Hain berdinak ginen, baina aldi berean hain desberdinak. Baina hori guztia aldatu egin zen berrogeialdia hasi zenean, gure etxeetan giltzapetu gintuzten eta guztiengandik aldentu zen. Ez neukan haren berririk, ez zidan ez deirik ez mezurik erantzuten. Eta horrek kezkatzen ninduen. Bi-hiru astero idazten zidan, dena ondo zegoela esateko eta lasaitzeko. Baina banekien hori ez zela horrela. Hala ere, ezin nuen ezer egin. Noizean behin bere amari deitzen nion, bere neskato goxoari zer gertatu zitzaion galdetzeko.

Nire mundua apirilaren 18an gelditu zen. Dei bat. Gauza hain sinplea baina hainbeste sentimendu gurutzatuz betea. Lailaren amak deitu zidan. Bere alaba ospitaleratuta zegoela esanez. Minbizia detektatu zioten. Lailak bazekien. Hilabete batzuk zirela zer gertatzen zitzaion jakiteko proba batzuk egitera joan zen. Emaitzak eman zizkieten berrogeialdia hasi eta egun batzuetara, ez zion inori esan. Jendeak bera pertsona indartsu gisa ikusten jarraitzea nahi zuen. Baina amak goiz batean gela garbitzen ari zela aurkitu zituen emaitzak. Momentu horretan mugikorra lurrera erori zitzaidan. Ez nuen nire mugikorrak lurtean jo zuenean egin zuen zarata entzun ere! Hutsak hartu ninduen, eta hutsik eta belaunikatuta gelditu nintzen nire gelaren erdian, hori da gogoratzen dudana azkena. Horren ondoren dena zen iluntasuna eta bakardadea. Aste osoa eman nuen nire gelatik irten gabe, inorekin hitz egin gabe. Laila oso larri zegoen, ez zituelako botikak hartzen edo ospitalera joaten tratamenduren bat egitera. Eta horrela gaur arte. Ez dakit beste ezer. Ondo egotea espero dut. Gutxienez ez dago Gernikan. Ospitale handiago batera eraman zuten, hobeto egon zedin.


Aurten pandemia globala jasan dugu, inoiz ez dugu hain egoera larririk bizi; birus hain indartsu batengandik, hainbeste familia hautsi dituen birusa. Jauzi handiz hedatu zen mundu osoa bereganatu arte. Hain indartsua zen, mundu osoa paralizatzea lortu zuela. Ez dut gezurrik esango, denok dakigu ingurugiroari dagokionez ondorio onak ekarri dituela. Dena gelditu zenez askoz ere gutxiago kutsatu zen. Lau hilabete eta erdi eman genituen gure etxeetan. Gauzak apur bat hobeto zirenean irteten utzi ziguten. Baina jendea lasaitu egin zen, eta segurtasun neurriak desagertu ziren, gazteek festak botatzen zituzten, helduak edatera ateratzen ziren eta haurrek jostailuak partekatzen zituzten parkeetan. Hilabete bat baino ez zen izan kaleko haize freskoaz gozatu ahal izan genuena. Handik gutxira, berriro giltzapetu gintuzten. Kasuak gehiegizkoak ziren, eta ezin genuen horrela jarraitu. Bi hilabete luze igaro genituen berriro giltzapetuta. Jendea protestaka hasi zen. Lanera irten zintezkeen, baina horretarako bakarrik. Denak itzuli ziren lanera, ostalariak izan ezik. Arrisku handia zegoen. Manifestazioak eta borrokak hasi ziren. Ez zen haien errua, eta bazen jendea haien menpe bizi zena. Ez zuten dirurik etxera eramateko eta askoz okerragoa zen familietan bi gurasoek hortik lan egiten zutenean; inork ere ez zuen dirua etxera eramaten. Eta gure familia horietako bat zenez, oso hilabete kritikoak igaro genituen. Eta ezerk okerrera egin ezin zezatela pentsatu genuenean gertatu zen.

Abuztuaren 27an, 15: 52an, hegazkinak gure herriaren gainetik hegan egiten hasi ziren. Jendea kezkatu egin zen. Hegazkinak gure herriaren gainetik egin zuten hegan 3 minutu inguru, nondik hasi planeatzen baleude bezala. Kanpaiak jotzen hasi ziren, eta sirena handik segundo batzuetara batu zitzaion. Eta zoritxarrez guztiok uste genuena zen. Bonbardaketa. Nahastuta eta beldurtuta, denak etxetik irten eta bunkerretara joan ziren lasterka. Beste batzuek ihes egitea hobe zela pentsatu zuten. Beraz, autoak hartu eta herritik irten ziren. Nire ahizpa besoetan nuela lasterka joan nintzen gertuen zegoen bunkerreraino, gurasoen promesa entzun ondoren. Maskara jantzi behar izan genuen, nahiz eta momentu hartan garrantzirik gabeko gauzetako bat izan. Eta 3 minutu horiek amaitu zirenean, lehenengo bonbak lurtean jo zuen gure herrian. Eta, beno, uste dut gaur arte ezagutzen duzuela gainerako istorioa.

Abuztuaren 28ko goizeko 09:15 dira. Ia egun bat igaro dugu bunkerretik irten gabe. Bonbak hain maiz lehertzen entzuten ez diren arren, batzuetan baten bat entzun dezakegu. Nire ondoan zegoen gizona duela ordu erdi joan zen. Bere haurtxoari jaten eman behar ziola edo bestela hilko zela esan zuen eta, horrela, ingurua nola zegoen ikertu ahalko zuen. Oraindik ez da itzuli. Nire ahizpa boligrafoarekin jakako poltsikoan aurkitu dudana paperean zerbait marrazten ari da. Batzuetan gure gurasoengatik galdetzen dit. Bakarrik beste leku seguru baten daudela esaten diot, espero dut egia izatea, hilda egongo balira, ez dakit zer egingo nuen.

Hiru ordu igaro dira, eta gizona oraindik ez da itzuli. Bere emaztea dena uste dudana, isiltasunean ari da negarrez haurra loak hartzea saiatzen ari den bitartean. Itxarroteaz nekatzen ari naiz. Azken bonbak 10:02an jo du, eta dagoeneko 12:20ak dira. Ez dugu ezer jan, poltsikoan nuen gaileta ahizpari eman nion bart, eta andre jator batek eskaini zigun ura ere edan zuen. Nire pazientzia agortzen ari da, eta jaiki eta kanpora ateratzea erabakitzen dut. Arreba besoetan hartu eta aterantz abiatzen naiz. Bidean pertsona batzuk oso arriskutsua dela eta ez irteteko esan didate. Ni gelditzen saiatzen dira, baina nik ez entzutea erabakitzen dut. Nire ahizpak aurpegi oso zurbila du, eta ez nago ziur hemen askoz gehiago iraun dezakeela. Atea irekitzen dudanean hauts asko

sartzen da bunkerrera eta azkenean kanpoan gaudenean denbora pixka bat behar dut nire ikuspegia hauts lainora ohitzeko. Begiak argitzen zaizkit, eta dena ikusten hasten naiz. Etxe guztiak suntsituta daude, batzuk baita sutan ere. Nire herri preziatua suntsituta ikusten dudanean, malko batzuk nire begietatik aterako direla mehatxatzen dute, baina gelditu ditzaket. Ezin dut negar egin, orain ez. Beraz, etxerako bidea hartzea erabakitzen dut, zaila da bidea aurkitzea, guztia hondatuta dagoelako, baina 16 urte daramatzat hemen bizitzen eta inkontzienteki uste dudak lekurantz oinez abiatzen naiz. Nire ahizpa isilik dago, gaixotzen ari dela uste dut eta dardaraka nabaritzen dut, beraz, estuago besarkatzen dut eta nire pausoa azkartzen dut. Ibili eta ibili gaude, baina nire etxea ez da inoiz agertzen. Eta larritzen hasten naiz denbora guztian kale berdinean nagoela konturatzen naizenean. Hori bakarrik balego bezala.



Larritasuna eta frustrazioa nire gorputzaren jabe bihurtzen dira eta korrika hasten naiz, baina ez da ezer aldatzen, behin eta berriro pasatzen naiz kale berdinetatik. Gauza bera egiten dut 8 minutu eman ondoren, hainbeste denbora irtetzear egon diren malkoak ateratzen dira eta ikuspegi lausoarekin estropezu egin eta belauniko erortzen naiz. Ezerezaren erdian negar egitera

hausten naiz eta ahizpak ere gauza bera egiten du. Are eta estuago besarkatu eta begiak estu ixten ditut ilunpean aterpe hartuta ...

Begiak berriro irekitzen ditudanean, kolore zuriak berriro ixtera bultzatzen nau. "Zuria? Non nago?" galdetzen diot neure buruari. Berriro irekitzea erabakitzen dut, eta gela guztiz zuri eta garbi bat agertzen zait aurrean. Eroso eta bero dagoen zerbaitean nago eserita, eta orduan gogoratzen dut. Dena ametsa zen. Ez dago ez bonbardaketarik, ez hondakinik, ez hautsik, ezta bunkerrik ere. Dena nire buruaren lana izan da. Ospitaleko gela batean nago. Goizean Laila bisitatzera etorri naiz, eta loak hartu nau. Eskertuta nago dena amets bat izan delako. Baina hala ere gurasoei deitzea erabakitzen dut dena ondo dagoela ziurtatzeko. Gelatik irteten naiz Laila ez esnatzeko. Eta deiari erantzuten didatenean, nire ahizparen ahots goxoa entzuten dut. Txiste batzuk egin eta dena ondo dagoela ziurtatu ondoren, deia moztu eta gelara itzultzen naiz. Dena askoz hobeto dago orain. Birusaren kasuak gutxitzen ari dira, nire familiarekin harremana inoiz baino hobea da eta Laila hobetzen ari da. Oraindik aste batzuk geratzen zaizkio kimioterapia tratamenduarekin baina medikuek ziurtatzen digute hobetzen ari dela. Badira egun batzuk nekatuago dagoela eta atsedean hartu nahi duela. Gaur ez da horietako bat. Baina jan ondoren beti egiten du lo. Sartzen naizenean esnatuta dagoela konturatzen naiz. Bere ondoan eseri eta besarkada estu bat ematen diot, eta eguna pasatzen dugu hizketan, istorioak kontatzen, nire ametsa barne.



Peio Enbeita Kaltzada
DBH 4.maila

“Ezagutzak egiten gaitu erantzule”

EMAGALDUA

Galtzada nagusia 48, 3A. Heldu bezain laster kendu dizkit gainean nituen kapa guztiak, bera dagoeneko galtzontziloetan zegoenez ez dut lan handirik izan. Ez zeukan tontakerietan ibiltzeko gogo handirik, ohe gainean etzatearekin batera bere tripa handiak ezkututzen zuen zakil nimiñoarekin jolas egiteko eskatu baitit. Ikustearekin batera gogo guztiak joan zaizkit baina, beno, banekien zerk espero zidan mundu honetan murgildu nintzenez, horregatik keinurik egin gabe aho barruan sartu dut begiak ixtearekin batera, horrek egiten nenbilena ezabatuko balu bezala...

Oraingoan zorte handia izan dut, minutu pare batez mingainarekin jolastu ondoren amore eman baitu, egia da urteak nabari zaizkiola gainean, baina harrotasun pixka bat eman dit dirua berak eman arren kontrola nire eskuetan dagoen sentsazioak. Artzain batek bere ardia jezten duenean bezalaxe, hurrengoaren zain. Trajez jantzitako dirudun artalde baten artzain sentitzen naiz. Horixe da nire bizitza, egun batean jetzi, bihar berriz eta etzi zer dakit ba, agian lan bikoitza... Dagoeneko behera begira irteten naiz kalera, inongo esperantzarik gabe, badaezpada ere otoitz eginez atarian, itxaroten hemendik aterako nauen mirariari.

Ez naiz dagoeneko aurkeztu, baina ez daukat nitaz askoz gehiago esaterik. Utzi nituen ikasketak murgiltzeko kaleetan, erabaki horren ondorioak nabarmen dira nire begietan. Kokaina eta anfeta asko, boligrafo bat zer den ere ahaztu zait. Kale izkinek erakutsi didate baztertuta bizitzen, kale izkinetan ikasi dut zaurituta bizitzen.

Kaleko urdanga bat baino ez naiz, emagalduta batzuentzat, zuretzat agian prostituta huts bat.

Gaurkoak ez ditu eguneroko gorroto eta mespretxuak islatu, ez baitu asko tardatzen hormaren kontra estanpatuko zaituen harropuz ergel baten deiak. Momentu honetan ohartzen da bat oraindik azpian dagoela, gora begiratu eta behe lainoaren gainetik dagoela zure jomuga den tontor hura.

Baina nola ez, ezin dezaket ezetzik esan, guztia ondo doa zure ametsetako gelara sartzen uzten dizunean, trajez jantzitako gizona da, guapoetan guapoena. Une horretan burua korapilatzen zait, ez dut ulertzen nola izan dezakeen nire beharra, atzamarrera begiratu eta hara hor, ezkon eraztunaren marka sumatzen dut. Dena den, soinean daraman harropuzkeria horrek, bere tipo itxurosoarekin batera, morbo pixkak sartu dit, normalean leun ditudan bihotz taupadak gorabehera, behingoz lanbide hau aukeratzearen amorrutan izango ez naizen eguna. Erabakia hartuta dut, gaur buruan nekarren pisu guztia alde batera utzi eta ni neu izaten saiatuko naiz.

Inuzente hutsa, zer pasa da nire burutik? Ihes egin nahi dut. Kontua da greziar jainko batek zizelkatua dirudien gorputzaren atzean, ez dakit nola azal nezakeen, menperatzaile nazkagarri bat baino ez dela, bera ondo sentiarazteko jostailu antzera erabiliko duen emakumeren baten beharrezana duela, eta gaurkoan niri tokatu zait bere premia hori asetzea.

Gorrotoa, burutik atera ezinaren ondorio. Ispilu aurrean aurkitu nahian, ez naiz inondik ageri.

Eta egunen batean nire buruarekiko guda irabaziz gero, hor izango da nire sorbalda, tatuaturik gelditu zaizkidan orbainak. Horiek, horiek joango ez diren usteetan nabil, eta nabilelako nabil hain neketsu.

Iritsi da berriz gaua, eta egunean zehar jasotakoak leher egin du, gomekin gertatzen den bezala, luzatzen ibiliz gero horrelako batean... Agur! Paper zuri baten aurrea ateratako guztia nola nire begietan malko bihurtzen zen jakitun izanik, lumaz idatzitako hitzak ere negarren itsasoak disolbatu ditu. Ohean sartu eta ez dago eguna luzatzea merezi didan ezer ere.

Gaur egun berri bat da, baina ez beste edozein egun. Jada badakizue nire bizitzan egun berri bana Euskal Herrian neguan egiten duen ekaitz egun bat baino ilunagoa izaten dela, baina gaurkoan... Egun berezia da, beltza den horretan ageri den argia. Bada mutiko bat noizean behin nire beharra sentitzean dei egiten didana, ni baino pare bat urte nagusiagoa beharbada, mutiko xinglea lehen bistan. Mmmm nola da? Gogoratu nahian nabil, ziur izan gabe esango nuke Mikel duela izena edo horrelako zerbait entzun nuen noizbait. Besterik gabe nire bezero gustukoena da. Baliteke ilusioa egiten didan bisita bakarra izatea, horrekin guztia esanda dago.

Atetik pasa bezain laster etxean izango banintz bezala sentiarazten nau, eta ez nau bera baino gutxiago banintz bezala tratatzen, bai, horixe pasatzen zait besteekin, sabanako lehoientzat inpalak diren eran. Berarekin dena da desberdin, esango nuke lanak dakarretetik at doala, behartu gabe ere egingo nuen hura, horixe da Mikel. Ez dakidan arren, niretzat putetan ibiltzen den gizona baino gehiago da. Bakarra ez naizen arren, espero dut bere gustukoena izatea, jada badakidalako nire lankide batzuekin ere badabilela, horregatik izaten garen gutxietan gauza zehatz batzuk baino ez dizkit eskatzen eta marra gorri hura zeharkatzeaz gaudenean... Kito, bukatu da gaurkoz. Hori gertatzerako gure azalen igurtziek txinpartak aterata dira eta ez dut gehiago eskatzen, nahiko izaten da irribarre bat sumatzeko igogailuko ispiluan ageri naizenean bere etxetik irteteen.

Gogoan dut azken bisita, bisita berezia izan zen hura, hainbestetan desio izan nuen hura egia bilakatu zen. Txikia nintzela Gabonetako umeen parkean aurkitzen ziren zezen mekanikoen antzera, bere gainera igo nintzen... Hura bai gozamina. Zerutik begira dudan nebak esan zidan bezala, “Zenbatekin egin duzu larrutan, baina horietako zenbat maite izan dituzu?” Galdera itzela dirudi, eta honekin konturatu naiz balitekeela Mikel maitatzen hasia izatea nik nahi ez arren. Gainera, azken bisita honek ilusioa hirukoiztea egin zidan, besteekin egiten zuena nirekin egiten hasia zela eta orain besteen lekukoa ere neuk izango dudalakoan; eguzkia ezkutatzean amets egiteko arrazoa. Hala izan da, kontrola galdua naiz, eta horren adibide dira goizean blai eginda ageri diren kuleroak. Egunsentiak estresa baino ez du ekarri berarekin, tunel bukaerako argia berriz estaltzen hasia balitz bezala, buruak Zeusekin bat egin balu bezala ageri da eguna, iluntasuna gehi ekaitza, eta emaitza etxean geratzeko gogo. Igeldoko parkean aurki ditzakezun errusiar mendiaren antza hartzen nabil, goian naizen bakoitzean ohartu baino lehen berriz ere behean... Ba al dago nire burua kokatu dezakeen iparrorratzik?

Astea bukatutzat eman dugu pisukideok, bizi dugun egoera ikusita ez zait aste txarra iruditu arlo pertsonalean, atera kontuak nola izan ohi diren nire asteak... Iparraldean lau astegunetako jardunei buruz debatitzen dabiltzan bitartean “asteburu” deituriko hura ezagutzear nago oraindik. Arratsaldea solasean igaro ondoren, nuen poz txikia ere joan egin zait lankide malerusen kontuekin. Bata jipoitua izan dela salatuz, bestea ez dakit norengana joan behar izan dela eta horrela eguzkia gutxika-gutxika ezkututzen joan den arte. Hau guztia entzutean ondorio bakarra atera dezaket, baliteke dagoeneko ohartu izana, baina zoritxarrez bada ere, jostailu hutsak gara guztientzat. Beno, ez naiz gustura geratzen esandakoarekin, baliteke Mikel libratzea... Kasuak kasu, argi dago gaur egungo gizartean dugun errespetu eza, eta are gutxiagoko onarpen maila.

Ez dut hausnartzen jarraitzeko denborarik izan, halako batean leihotik sartu diren argi izpi urdinek egongelan geunden bost emakumeon ideiak deuseztatu dituelako. Eta aurretik eginiko gogoeta guztiak sirenen zaratekin sintonian ihes egin baitute. Bai, polizia da, Ertzainak hobe esanda, nire inguruan “zipaio” edo “txakur” bezala izendatzeaz ohituta banago ere. Ezustean harrapatu gaituzte, eta hasiera batean lasai asko baginen ere berehala menperatu gaitu urduritasunak guregana zetozela ohartzean. Lehendabizi, itxurak soilik harritu egin nau, furgonetatik ekipo osoarekin jaitsi baitira, 1990eko hamarkada gogoraraziz. Ez zaizkit beraien erak gustatu, harroputz sartu baitira, zarata egitearekin batera, egongelan geunden bost emakumeak hormaren kontra jarriz, bazirudien indarra erabiltzeko beldurrik gabe zeudela, bitartean negar artean arrazoi bila galdezka genbiltzala. Esfortzuak ez du saririk izan eta banan-banan ertzain kotxeetan sartu gaituzte lepoaldean nituen eskuburdinek eskumuturrak estutzen zizkidaten bitartean. Amaigabea egin zait bidaia, gertatzen ari zena errealitatea zela ohartzeko denbora nahikoa izan zen, halako batean hara non eta Guardia Zibilen kuartel nagusiaren aurrean agertu nintzen. Ate bikoitzetik hainbat pikoleta atera eta ertzainek “aqui vienen, todas vuestras” esan ondoren, buelta erdi eman eta berdezko banda honen eskuetan geratu naiz, literalki. Behin kuartelera sartuta, ziegak zeuden tokira eraman gintuzten. Birentzat prestatuak zirenez hiru ziega desberdinetan sartu gintuzten, bata bestearen ondoan; nola ez, niri hirugarren ziega suertatu zitzaidan, hau da, bakardadean.

Denbora luzea pasa genuen bertan, erlojua geldituko balitz bezala, paretetan idatzitako oroitzapenei zentzua bilatu nien. Antsietateak irentsi nauenerako iritsi dira bi guardia atea irekitzen, baina ez, ez naiz libre, lur-azpian aurkitzen den gelara eraman ninduten, isolaturik, egurrezko aulki xume bat baino ez hiru metroko lodierako hornez inguratuta. Aulkian ere ezin eseri nintzen, dardarek aulkiaren hankek baino indar handiagoa zutelarik. Bertara heldu orduko nire buruan atxiloketaren arrazoiaren ideia bat egina nuen. Ekialdetik ekarritako urdangak garela, ilegalak garela atzerrian baikaude eta abar, eta abar... Orduantxe hasi ziren galdera guztiak, imajinatzen nuen norbaitentzat ez ginela batere atseginak eta deiren bat egingo zuten gutaz ohartarazten. Nola iritsi nintzen, noiz, zer egiten nuen,... Erantzun guztiak zekizkiten arren, nire konfesio edo horrelakoren baten bila zebiltzan, bide bakarra hitz egitea zela aitortuz. Espero zutena baino sendoagoa nintzen antza denez, eta kolpe eta irain batzuekin ahultzen saiatu ondoren beste guardia zibil bat etorri zen deskarga elektrikoekin, giltzurrunen parean gerriko hura jarri eta erantzunik jasotzen ez zuen galdera bakoitzeko bere telekomandoaz baliatzen zen. Negar egitea ere kostatzen zitzaidan une hartan. Kokoteraino zeuden erantzunik ez jasotzeaz, baina nik argi nuen nire duintasunak tratu txarren emaile horiek baino gehiago balio zuela, azken bihotz taupadara arte egingo niela uko. Agian nik ez nuen nire gorputza zen bezala berriz ikusiko ispilu baten aurrean, baina gaur ez, gaur esku hutsik irtengo ziren. Azkenean, nazkaturik zeudela, kolpe guztien artean biluzten joan ziren, larrugorrian eta hotzak uzkuratuta bukatu nuen arte. Behin puntu honetara iritsita, azken aldiz nire gorputzaren jabetzaz gozatu ondoren, banan-banan irteten ziren, azkenak “una sorpresa te espera” esan zidan arte, eta konortea galtzear nengoen arren “comandate Miguel, adelante” edo horrelakoren bat entzutearen ustea izan nuen. Ez, ez da posible. Ametsa dirudi. Hara non, Miguel komandantea, nor eta nire amodioa den Mikel, ez dut ezagutzen bertsio hau. Hainbestetan nire jostailua izandako hura atera du segituan, nire ugazaba bilakatuz. Baina hau ez da lan kontua, ez du nire onarpenik. Noiz pentsatuko nuen nik Mikel guardia zibil bat zela, nor eta ni bortxatzen ari den bortxatzailea, ez da nire begi handi eta moreetara begiratzeko gai izan, oilobusti halakoa! Nazkagarri askok sartu izan dit zakila, ez dut bizitza erraza izan, baina hau, hau beste maila bat da. Nire etsai handienari ere deseatu ez diodan eguna. Zenbatetan begiratu dugu beste alde batera, Nekane Txapartegi bezalakoak hizketan izan ditugunean. Bat ez da arazoaz ohartzen, bizi duen arte, eta hara hor aldatu beharreko lehen gauza; uste ez dugun arren hor dira torturak 21. mendean, hor dira hainbat eta hainbat emakume bortxatu, gutxien espero duzunak batzuetan, ez du axola, baina hor darraite kaleetan, beste alde batera begiratzen dugun bitartean. Hemen naiz berriz ere, korridore estu honetan zehar, ziegara bidean berriz ere. Mikelek giltzaperatzen nauen bitartean “mañana más y mejor, y así hasta que tengas respuestas” esaldiarekin mehatxatu nau.

Egun pare bat pasa dira, hiru ere agian, ez naiz ezertaz ohartzen. Konortea galtzear nago, ezin dut horma ilun eta hotz hauez inguraturik lo egin, eta egunean ematen didaten ogi puskarekin zutik eusteko esperantza baldin badute, gaizki dabilta.

Halako batean norbait niregana datorrela nabari dut Begiak ere ia ireki ezin ditudan arren, esango nuke guardia bat datorkidala, mantxa berderen bat ikusten dut-eta ziegako atera hurbiltzen. Hitz egin dit, tonu aspergarrian “tienes visita, levanta” esanez. Ondo entzun al dut? Norbaitek ikusi nahi al nau?

Hasiera batean nire irudimena izan dela pentsatu dudan arren berriro altxatzeko esan didanean sinestu egin dut, eta zutik jartzea kostatu bazait ere hemen naiz, berriro korridore luze honetan. Betierekoa egin zait, ia buruak leher egin dit, ez baitut ez familiarik ez lagunik Euskal Herrian, ez baita nitaz arduratuko den inor ere kuartel honetatik at.

Heldu naiz gela berri honetara, bistak kristala lausotzen didan arren badakit emakume bat ageri dela bestaldean, baina ez naiz ahoa irekitzeko gai. Aurkeztu egin da, eta lehen ere ahul banengoen, bere begiradak ia konorterik gabe utzi nau; Mikel edo Miguel ergelaren emaztea da. Badirudi lema etxetik ikasia ekarri duela. Honela dio andereak; zaindu maite duzun hori, borrokatu merezi duzun hori, egin irribarre, borrokatzera goaz, eta borrokatzen badugu, irabaziko dugu! Txunditurik utzi nau, ez dut ezer ulertzen, norbaitek azalduko al dit?

Emakumeak buelta erdi eman eta etorri den lekutik itzuli da, “bihar arte” esanez. Biharko eguna iristeko irrikaz nago. Nire itxaropen bakarra izanik, zer kontatuko dit? Eta orain zer?





June Zameza
BATX 1. maila

“Elkarrekin azken horretara arte.”

BAT-BATEKO ALDAKETAK

Erlojua biraka zebilen beti bezala. Orduak, egunak, urteak... aurrera zihoazen; 2020a iritsi zen arte. Urte katastrofikoa batzuentzat; beste batzuentzat berriz, ahaztezina bihurtu da urte hura. Beste urte batzuk bezala hasi zen 2020a. Familiarekin afaldu, eta ezin hobeto hasi genuen urtea. Ez genekien egun batetik bestera, birus batek gure bizitza aldatuko zuenik. Dena geneukan baina ez geneukan baliozko ezer. Ez ginen konturatzen geneukanaren balioarekin alboan geneukan jendearen garrantzia galtzeko arriskuan egon ginenera arte.

2020ko martxoaren erdialdean hasi zen dena. Covid-19 izeneko birusa gureganaino iritsi zenean. Birus ezezaguna zen. Genekiena oso kutsakorra zela zen eta gure ingurukoei kutsatuz gero, hiltzeko arriskua geneukala zen. Berria entzun eta jarraian bidali gintuzten etxera; ezin ginelako klasera joan eta horrela hasi zen konfinamendua. Hasieran, bi asterako zen, baina laster luzatu zuten hiru hilabetera. Konfinamenduan geundela, hainbat gauzez konturatu ginen eta garrantzia ematen ez genizkien gauzez konturatu ginen. Hainbat denbora lau hormaren artean egondakoan, konturatu nintzen denborak duen garrantziaz eta momentu bakoitza azkena balitz bezala bizi behar genuela erabaki nuen, ez genekien-eta noiz utziko gintuzten gehien maite genituenek. Gaixotasun honek hainbat pertsona hiltzera eramanez, baina indartsuagoak izatera ere bihurtu gaitu. Nik, behintzat, momentu bakoitzari garrantzi gehiago ematen diot, eta maite ditudan pertsonekin nagoenean momentu haiek betirako izoztuak geldituko balira bezala hartzen ditut.

Konfinamendutik irten eta gutxira, uda iritsi zen. Uda ezohikoa. Egundatik bestera, konfinamenduan bizitako parentesi hori amaitu eta libre ginen ahal zen neurrian. Denok aprobetxatu genuen uda benetan. Momentu txikienak ere baloratzen genituen, eta esango nuke inoiz ahaztuko ez dugun uda izan zela 2020koa.

Hau guztia esanda, urte arraro horri buruzko hausnarketa idatziko dut jarraian:

2020ko abenduaren 31n.

Hainbat jendek senitartekoak galdu ditu gaixotasun hori zela eta. Asko sufritu dugu, egoera oso latza izan da, baina denok batera aurre egingo diogu. Momentu bakoitza azkena balitz bezala bizi behar genuela ikasi dugu, ez dakigulako noiz izango den azkena. Bizitza ibai baten bezalakoa da. Mendiaren goian hasi eta jaisten doa apurka-apurka. Bidean zehar gora-beherak daude, baina haiekin bizitzen ikasten goaz gutxinaka. Sentimenduz beteriko bidea da denok daukaguna, amorruez, maitasunez, irribarrez, malkoz... beterikoa. Bakoitzak bere bidea izango du, baina denek garamatzate toki berdinerara: hiltzera. Inork ez daki noiz hilko den, ez dakigu urte, hilabete, egun ez segundo zehatza, baina denok hiltzen gara; beraz momentu bakoitza maite ditugunekin azken eguna balitz bezala bizitzea da nire gomendioa, badakit zaila dela praktikan jartzea, baina hori da nire ustez egin behar duguna.

Urteak igaro ahala sentimendu desberdinak sentituko ditugu, pentsatzeko modu desberdinak izango ditugu, baina hasi egingo gara. Denok batera mundu hobeago bat eraikiko dugu.

Egunen batean garai hauek gogoratuko ditugu. Ez dakit zehazki zer den sentituko dudana, baina sentimendu nahasiak izango direla uste dut. Nola hasi zen gogoratuko nuke lehendabizi. Esku hutsik geunden eta denon izenean esango nuke guztiz garai latzak izan direla ez dugulako ideiarik ere izan gertatzen ari zenaz.

Hurrengo urtera begira, ez naiz urte hau ezabatzen saiatuko, urte honetan ikasitakoa moldatzen saiatuko naiz, nik nahi dudan horretara iritsi arte maite ditudanekin eta ezagutzeko gelditzen zaizkidanekin. Sinisten dudan horren zain ari naiz. Bizitzan izan nahi ditudan lorpen guztiak izango ditudan egunaren zain, ez dakit zenbat denbora beharko dudan baina nire eskuetan dagoen guztia egingo dut lortzeko.

Bakoitzak bere istorioak izango ditu bere bizitzako liburuan idazteko; nirean, behintzat urte honek asko markatuko du istorioa. Asko ikasi dudan urtea izan da, eta prest nago martxan jartzeko mundu hau ezagutzeko eta gutxinaka bizitzaren puzzle hau osatzen joateko maite ditudan haiekin eta ezagutzeko gelditzen zaizkidan haiekin.

Ez daukagu denbora galtzeko, ez dugu urterik utzi bizi gabe. Erlojuaren orratzek biraka jarraitzen dute eta noski zaila izango dela bizitza. Baina ez ahaztu, denbora aurrera doa eta denborak ez dezala itzali aspaldi piztu zuen sugarra, egunetik egunera loratzen joan eta bizi, topera bizi!



Leizuri Barruetabeña Larruskain
BATX. 1. maila

“Ikusten ez duen begiak negarrik ez”

HAURRAREN ESKUAK

Istorio honek orain dela urte asko izan zuen hasiera. Orain dela 85 urte zehazki. Gaur egun Gernika inguruko gazteoi asko hitz egin digute garai horri buruz. Garai zaila Euskaldun guztiontzat. Baita Espainiar guztientzat ere.

Istorio honen protagonista Bizkaiako herri txiki batean jaio zen, Ibarurin. 1937aren hasieran. Espainiako Gerra Zibila pil-pilean zegoen urtean. Herriarengan elizak eta apaizek eragin handia zuten urte batean. Ama ezkongabe bat zen berea, txikitatik igandero elizara joaten zena. Inoiz bertan arazorik izan ez zuena. Apaiz berria etorri zen arte. Itxuraz gizon guapo eta atsegina. Baina benetan promesa eta engainuekin nahi zituen emakumeak manipulatzeko zituen. Ingurugiro horretan jaio zen nire amona.

“Egunero bezala, Celestina soroan zebilen. Ama, aita eta neba biekin. Larunbata zen, eta eguna amaitzear zegoen. Begirada altxatu eta eguzkia mendien artean nola ezkututzen zen ikusi zuen. Naturak ordu horretan eskaintzen zituen kolore bereziak miretsi zituen. Etxera bueltatzeko ordua egingo zen laster, behin eguzkia ezkutatuta ez baitzegoen kanpoan zer eginik. Egun horretan idi-buzterriekin zebiltzan lanean, aitak aurretik gidatzen zituela. Ordu erdi bat pasatu ondoren, soro alboko iturrian eskuak garbitu eta etxera joan ziren. Bertan, ahizpa txikia afaria prestatzen ari zen Celestina eta baita ama ere laguntzera joan ziren.

Afaria prestatzen ari zirela, aita eta bi nebak agertu ziren. Gazteenak beheko sutara botatzeko gurrak zekartzan, 36ko urte hasi berriak hotza zekarren eta.

- *Tabernan esan didate apaiz berria datorrela herrira Francisco zaharra ordezkatzera* - esan zuen aitak, suari begira bertako beroa gorputzera sartu nahian.

- *Arin aurkitu dute beste bat. Egin dezagun otoitz berria Francisco bezalako deboziozkoa izan dadin. Baina, egia da herriari aurpegi gazte eta berri bat ez zaio gaizki etorriko...*- erantzun zuen amak, sei pertsonarentzat mahaia jartzen zuen bitartean.

Afaria guztiek batera jan ostean, mahaian geratutako plater zikinak garbitu eta ohera joan ziren denak. Celestinak bere ahizparekin partekatzen zuen logela. Egunero erabiltzen zituen gona, alkandora eta amantala kendu eta domeketako arropak prest utzi zituzten belaunalkiaren gainean hurrengo egunean mezatarara garaiz heldu ahal izateko. Barruko gona eta txanbra aldean zituela ohe-atorra jantzi eta tapaki artera sartu zen.

*

Hurrengo egunean garaiz jaiki zen familia osoa. Mezatara joan baino lehen hainbat gauza egiteko baitzeuden oraindik. Behiei azpiak egin eta eratzi, arrautzak batu, animalia guztiei jana eman eta bazkaria egin. Dena amaitutakoan arropa eta zapata berriak jantzi eta eleiza aldera joan ziren oinez. Bertan ezagunekin hitz egiteko aukera zuten guztiek. Gazteek lagunekin denboratxo bat pasa zezaketen. Baina domeka hartan giroa desberdina zen. Apaiz berri bat zegoen herrian eta ohikoa baino zurrumurru handiagoa nabaritzen zen airean.

Barrura sartzerakoan atean zegoen apaiz berria, herriko familiak ezagutu eta eguneko mezatarara ongietorria emateko. Gizon garaia zen ilehoria, 30 urte ingurukoa eta herritarrak irribarre handiz agurtzen zituena. Begi marroi alaiak zituen, baina hala ere misterioitsuak.

Celestina bere familia eta lagunekin batera sartu zen elizara. Abadea herriko andre guztiekin bezala bere amarekin ere hizketan geratu zen. Neskak elizara sartzeko aukerarik izan baino lehen, amak eskutik hartu eta apaiza ezagutzera eraman zuen nebarrebeekin batera. Elizgizonak inpresio ona eman zion. Hizketaldia amaitutakoan barrura sartu eta meza entzun zuten.

*

Hurrengo egunean, etxe aurreko lorategian arropak esekitzen zegoela, ama etorri zitzaion ondora hauekin laguntzera. Haize atsegin eta fin batek jotzen zuen.

- *Gaur Pedro abadearenera joan naiz ditugun lur batzuei buruz hitz egitera, eta zapaturu eliza garbitzeko norbait behar duela esan dit. Egia esan, zugatik galdetu dit espreski. Zu elizarekin laguntzera joatea nahi du eta sos txiki batzuk emango dizkizu trukean- bota zuen amak, aurpegian keinu arraro bat zuela* - Harritu egin nau espreski zu joatea nahi izateak, baina, ez litzaiguke diru hori gaizki etorriko.

- *Ondo da ama joango naiz, baina, ez nauzue etxean behar bertoko gauzak egiteko?*

- *Lasai laztana, egingo ditugu besteon artean.*

*

Aste oso bat igarotakoan zapatuan elizara joan zen. Heldu eta ate zaharra bultzatu zuen. Sartutakoan apaiza ikusi zuen aldarean eta bere zain zegoela zirudien. Agurtutakoan gizonak begirada jaiki zuen eta hurbiltzeko eskatu zion.

- *Mila esker etortzeagatik. Domekan ikusi zintudanean neska jatorra iruditu zintzaizkidan* - azaldu zion abadeak, begiradarekin eskerrak emanez- *Nahi duzun tokitik has zaitezke. Zerbait behar baduzu hementxe egongo naiz organoa jotzen.*

- *Bai, ondo da.*

Abadea organora jesarri eta lehenengo nota jo zuenetik musikak Celestina harrapatu zuen. Ez zekien ze kanta zen, ez baitzuen bere hamazortzi urteetan horrelako ezer entzun. Ez zen domekaro elizan jotzen zen horietakoa ere. Emozioz beteriko kanta zen. Beste mundu batera eramateko kapaza zen abestia. Abadeak begirada iheskorrek eskaintzen zizkion bien artean atmosfera desberdin bat sortzen zuena. Mundu paralelo bat. Instrumentua jotzen aritu zen denborak beste mundu batera eramateko ahalmena izan zuen. Beste pertsonengandik milioika kilometrotara zeudela sentitu zuen neskak.

*

Horrela igaro ziren hilabeteak. Aste guztia izaten zen zain Celestina zapatu arratsaldea heltzeko. Melodia berezi horiek errepikatzen zituen bere buruan behin eta berriro. Eguna iristen zenean, gizon misteriotso eta atsegin hori organo parean eseri eta arratsalde osoak hasperen batek irauten duena bezain arin igarotzen ziren. Noizean behin, irribarre edo laztan txiki bat partekatzen zuten. Eta horrela beraiek soilik ezagutzen zuten mundu bat sortu zen. Biena. Sentimenduek osatzen zutena. Berezia. Parekorik gabea.

Hilabete batzuk igaro ziren. Hilabete magiko eta ahaztezin batzuk. Baina egun batean, Celestina soroan lanean zebilela ezin izan zituen botaka egiteko gogoak jasan. Orduan jabetu zen ume bat zeramala barruan. Maitasunetik sortu zen umea. Bizitzako momentu onena izan zuen hura. Apaizak eta berak familia bat osatuko zutela pentsatu zuen. Beragatik eta umeagatik dena utziko zuela. Baina abadeak ez zituen bere intentzioak partekatzen.

*

Zapatuan abadearengana joan eta berria eman zion. Munduko poztasun guztiarekin aita izango zela esan zion Pedrori. Celestinak irribarre bat espero zuen. Besarkada bat. Dena ongi irtengo zela esaten zuen laztan bat. Baina horren ordez ez zuen erreakziorik jaso. Aurpegi zurrun batekin topatu zen. Hotzikarak eragin zizkion jarrera batekin. Hurrengo esan zuenak masailetik behera irristatu zen malko bat eragin zion:

- *Libratu zaitez horretaz* - izan zen esan zuen bakarra. Bere aurpegiak emozio gabe jarraitzen zuen. Axola ez zitzaion gauza batez ari zirela iruditu zitzaion neskari.

- *Zer?*- erantzun zuen Celestinak. Ahotsean indarririk ez zuela- *Nola egingo dut hori? Gure umea da...* *Gurea* - jarraitu zuen. Bere ahotsa indar gabe sumatzen zen. Gizonarengana hurbildu zen eta esku bat masailean jarri zion begirada berarengan zuzendu zezan. Baina bere begiek ez zuten inolako sentimendurik adierazten. Orduan konturatu zen bidea berak bakarrik jarraitu beharko zuela ordutik aurrera.

*

Egun horretatik aurrera Celestinak ez zion inori ezer esan. Bere baitan ezkutatu zen. Ez zuen ia hitzik egiten, baina elizara joaten jarraitu zuen. Ez baitzuen inork ezer susmatzerik nahi. Ahizpa bidaltzea pentsatu zuen, baina apaizak berari egindakoa hari egiteko beldur zen. Eta berari ez zion dagoeneko ezer txarragorik egingo. Ez zuen bere ahizparen poztasuna izorratu nahi. Elizan igarotzen zituen arratsalde osoak ilunak bilakatu ziren, triste eta luzeak. Ez zen abadearengana gehiago hurbildu.

Lehenengo hilabeteak horrela igaro zituen. Baina sabelak ez zuen itxaroteko astirik. Arropa lasaiagoa erabili zuen denbora batez, baina, iruzurrarekin jarraitu zuen arren, azkenean, beste zerbait egitera derrigortua ikusi zuen bere burua.

Oso gaizki zegoenaren plantak egin zituen eta amak ohean geratzeko esan zion. Tenperatura hartzera zetorren guztietan, termometroa kandelaren gainean jartzeko moldatzen zen, horrela amak ohean jarraitzeko agintzen zion.

Egun batean, egunak eta egunak ohean igaro eta gero, familia basoan zegoela aprobetxatuz jaiki egin zen. Txanbra zuen aldean soilik eta perfektuki ikus zitekeen sabela. Borobil-borobila. Ispiluaren aurrean jarri eta laztandu egin zuen. Denbora luzez lehenengo aldiz, umea bizitza guztiarekin maite zuela sentitu zuen. Beragatik edozer egingo zuela. Besoen artean izateko gogo ikaragarriak zituen. Bere beroa sentitzeko. Ume jaioberriaren usaina hartzeko irrikitan zegoen. Bizitza berarekin partekatzeko. Bere ondoan zoriotsu izateko. Bidea gogorra izan arren, umea babestuko zuela zin egin zion bere buruari.

Bat-batean, atea ireki zen. Bertara begiratu eta ahizpa ikusi zuen. Zuri-zuri zegoen. Dena pikutara joan zela pentsatu zuen. Baina momentu horretatik aurrera, eskutik heldu eta bidean lagunduko zion pertsona bat aurkitu zuen.

*

Goizeko ordu bata zen. Celestinak lehenagoko egunetik min-sastada batzuk sentitu zituen, baina lotan zegoela, jasanezinak bihurtu ziren hauek. Begiak itsumustuan zabaldu eta maindireei indarrez heldu zien. Denbora luzez bakarrik sentitu zen eta ezintasunezko kolpe batzuk eman zituen ohe gainean. Min-zitadak geroz eta sarriagoak ziren, geroz eta indartsuagoak. Garrasi bat zetorkion eztarrian gora eta ezin itota oihu egin zuen. Ahizpa itzarrarazi zuen oihuak. Ahizpa gazteak begiak ireki zituen bat-batean. Beldurrezko hotzikara batek zeharkatu zuen bere gorputza. Ahizpa galtzeko beldurrak. Baita umea ez ezagutzeko ikarak ere. Ahizparen hanken aurrean jesarri eta arnasa hartzeko eskatu zion. Zer egin ez zekiela eskutik heldu eta guztia ongi aterako zela xuxurlatu zion.

- *Dena ongi aterako da eta laster umea eskuen artean izango duzu. Guztiei aurre egingo diegu. Gurea izango da. Gure txikitxo* - Celestinak horrenbeste denboraz itxaron zituen hitzak ziren horiek. Dena ondo aterako zela eta umea eskuen artean izango zuela. Zoriotsu izango zela eta txikia nola hasten zen ikusiko zuela.

Baina bat-batean, mundua lauso bilakatu zen. Begiak ixteko gogoak izan zituen. Lo gelditzeko gogoak. Dena lasaitasunera bueltatzea nahi zuen soilik. Orduetik aurrera gandutsu ikusi zuen guztia, urrunean ahots batzuk entzuten zituen. Amaren itzala logelara sartu zen eta ahots batzuek bultzatzeko eskatu zioten. Ahizpak eskua heltzen ziola ikusi zuen. Azkenengo bultzada emandakoan eta umearen negarra entzundakoan begiak itxi zituen.

*

Begiak zabaltzen ahalegintzen zebilela zama bat sentitu zuen gainean. Orduantxe ikusi zuen lehenengoz. Horixe izan zen besoen artean izan zuen lehen aldia. Neskatxo bat zen. Ile kizkurreko neska. Ezin zion pertsona txiki horri gainetik begirik kendu. Arima osoarekin maite zuela sentitu zuen. Begi txiki horiei, beraiengatik edozer egingo zuela hitz eman zien. Atzamarra sendo heltzen zien eskutxoei muxu eman eta ezer ez zitzaizela faltako zin egin zien. Maitatua izango zela. Betiko.

Orduan inoiz pentsatu ezinezko gauza gertatu zen. Neba zaharra, Jose, sartu zen logelara. Celestinak begirada jaiki eta nekez beteriko begiak zabaldu zituen. Ama lo zegoen ohe ondoko besaulkian, eta ahizpa neskaren ondoan ohearen izkinan. Goizeko hirurak ziren oraindik. Umea mugitu zuen anaiak ikus zezan. Nebaren aurpegiak leuntasuna islatu zuen momentu batez, baina, keinua azkar aldatu zuen. Aurpegiara gogorrera aldatu zen eta Celestinak zerbait egitera zihoala sentitu zuen. Berarengana joan eta hitzik esan gabe, umea eskuetatik kendu zion. Gutxinaka aterantz zihoala ikusi zuen neskak, umea begi ilunekin begiratzen zuela.

- *Nora zoaz?*- esan zuen neskak- *Ekarridazu umea hona mesedez*- jaikitzen ahalegintzen zela- *Mesedez... Ez iezaiozu ezer egin mesedez. Ekarri hona. Mesedez...*- geroz eta ozenagoa zen bere ahotsa. Ama eta ahizpa ere iratzarri egin ziren. Nebak astiro aterako bidea jarraitu zuen- *Nire txikia da. Ez ezazu eraman, arren* - mina handia zen arren, zutik jarri zen eta berarengana joaten ahalegindu zen. Neba geroz eta urrunago ikusten zuen. Baita umea ere. Ez zuen denbora gehiago umearengandik horren urrun egon nahi - *Ekarri hona, arren eskatzen dizut. Ezingo dut bera gabe bizi.*

- *Ume hori ezin da hemen gelditu, pekatuaren fruitu da! Geratzen bada herriarentzat ez zara urdanga bat baino izango! Familia guztia kondenatuko duzu!*- amak inoiz inok esandakoak bota zizkion. Begietara begiratu eta erabakia hartuta zegoela ikusi zuen.

- *Barkatu, benetan, barkaidazu* - nebak. Umea eraman nahi ez zuela.

Berriro esku txiki horiek ikusi ezingo zituela jakin zuen. Umearen ilea ezingo zuela gehiago ukitu. Neba joaten ikusi zuen, eta atzetik jarraitzen saiatu zen, baina, indarrek ez zioten lagundu eta lurrera erori zen aurpegia malkoz bustitzen zitzaizela. Bere izena oihukatu zuen atea ixten zela. Nebak garrasi lazgarri hori entzun zuenean, momentu hori bizitza osoan buruan sartuta izango zuela sentitu zuen. Ez zuen bere arrebaren ahots urratua inoiz ahaztu. Ezta umearen negarra ere.

Poztasuna. Umea eskuen artean izatean sentitzen den poztasuna, ahaztezina dela diote. Pertsona txiki hori babesteko nahia. Momentu horrek betiko irauteko esperantza. Baina Celestinak sentitutako ezintasuna. Eta hutsa. Bakarrik zegoela gogorarazten zion umearen usainaren falta. Atzamarra tinko heltzen zion esku nimiñoen falta.

Ahizpak korrika egin zuen berarengana. Besarkatu egin zuen. Barkamena eskatu zion. Ezer ez egiteagatik. Konplize izateagatik.

*

Celestina logelako lurrean negarrez zegoen bitartean, nebak Bilborako bidea hartu zuen iluntasunean. Ordu batzuk beranduago iritsi zen Bilbora eta urrunean eliza bat ikusi zuen. Celestinak lurretik altxatzeko indarrrik ez zuen bitartean, sabelean korapilo bat egin zitzaiola sentitu zuen Josek, etxera bueltatzeko bihozkada izan zuen. Umearen eta arrebaren bizitza bakean uzteko bultzada. Biak batera zoriontsu izateko. Baina amaren begirada gogorra etorri zitzaion burura, begirada zehatz eta opakua.

Elizako sargunera heldu eta ate handira begiratu zuen. Umea leku ezezagun eta hotz hartan uzteko beldur zen. Baina arrebaren bizitza zegoen jokoan. Bekokian muxu eman eta eskuen artean tristuraz kulunkatu zuen, amak inoiz egin ezingo zuen bezala. Agur esan nahian.

- Beti maiteko zaitugu. Beti izango zara gure familia - malkoak aringarri gabe isurtzen zitzaizkiola eta oraindik umea leunki kulunkatzen zuela.

Orduan, besarkada eta muxu batekin batera lurrean utzi zuen bere jakaren gainean. Atea jo eta korrika ezkutatu zen. Arnasarik hartu ezin zuela eta zer egiten ari zen pentsatu gabe. Minutu batzuk geroago apaiz zahar bat irten zen kalera. Ile zuri eta aurpegi xumekoa. Umea ikusitakoan eskuen artean hartu, eta jakarekin gorpu txikia ondo bilduz. Ingurura begiratu zuenean Josek burua ondo ezkutatu zuen, eta abadeak zerbait xuxurlatzen zuela entzun zuen:

- Nork utzi zaitu hemen, txiki polit hori? Egon lasai, ez zaizu ezer faltako - Joseri, bere ezkutalekutik sorbaldak lasaitu eta malkoak atsedean gabe irteten hasi zitzaizkion berriro. Atea nola ixten zen entzun zuenean atera zuen bere burua ezkutalekutik. Ez zuen umearen aurpegitxo berriz ikusi.

Seguruenik umezurztegiren batera eramango zuten, ez bere arrebak baino gehiago, baina, maiteko zuen familia batek etxera eramateko. Familia horri dirua emango zioten umea hartzeagatik eta txikiak bereak izango ez ziren abizenak eramango zituen aldean bizitza osoan. Urte horietan ez baitziren adopzio familiaren abizenak jartzen, abizen espainiarrak baizik. Horrela, umeak arazo gutxiago emango zituelakoan edo.

Familiak ez zituen gehiago bere ukabil txikitxoak ikusi. Baina, gauero amesten zuten umearen negarreakin. Egunero iratzartzen ziren, etxean eduki ezin izan zuten negar horrekin.

*

Celestinak hilabeteak eman zituen logelan sartuta. Inorekin hitz egin gabe. Hutsik zegoen. Emozio guztiek bere barnetik alde egin zuten. Ez zuen ezer sentitzen. Ez zuen negarrik egiteko gogorik jada. Egunero ohetik altxatzen zenean, logelan zuten leihora hurbildu eta egun onak ematen zizkion bere txikiari. Izenik izan ez zuenari. Beti izango zelako etxeko txikia. Hain urrun, baina aldi berean hain hurbil sentitzen zuen umetxoari. Betiko maiteko zuen ile kizkurdun haurtxoa. Eskuetatik kendu ziotena” .



Itsaso Olea Urionabarrenetxea
BATX. 2. maila

*“Norberaren zoriontasuna bilatzen duena
soilik izango da benetan zoriontsu”*

GOGOAREN BAITAN

Neguko goiz hotz eta umel horietakoa zen, ipar haizeak bortizki astintzen zituen baserri inguruko arbolak, eta behe laino geruza sendoak estaltzen zituen goiak, lurra erdi ilunpetan utziz. Egongelan ordea giroa guztiz desberdina zen, sutondoko kontuak nagusi, etxekoen usaina eta suaren epeltasunaren harmonian. Amaigabeko orduak emango nituzke sutondoan.

Ondo gogoan ditugu pare bat urte atzera aitona ere gurekin sutondoan igarotzen zituen uneak. Zoritxarrez, mundu honetan gauzak pentsatu baino lehenago aldrebesten dira eta gure aitona maiteari Alzheimerra diagnostikatu zioten. Etxekoak ezagutzen uzten ez dion dementsia latza dela eta, zahar-etxean dago gizarajoa.

- Aita zer dago egurrezko kaxa honetan? - Galdetu dit nire seme txikiak.
- Ez dakit, ireki ezazu! - Erantzun diot tinko eta fermuki.

Haritz egurrez egindako kaxa zaharraren soinu karraskaria entzun eta mutikoaren aurpegia ikustean harriturik geratu naiz une batez. Baina segundo bat igaro ostean, burua altxatu eta hautsez betetako koaderno zahar mordoa besterik ez dagoela esan dit atsekabeturik. Eskuen artera bat ekarri didanean guztiz txunditurik zera erantzun diot:

- Aitonaren egunerokoak dira; irakur dezagun zatitxoren bat sutondoan gauden bitartean!

"Gogoratzeko idazten dizut; nire sustraiak non finkaturik dauden jakiteko. Ez daitezen denborarekin oroitzapenen gordelekuan zimeldu. Erlojuaren orratzak aurrera doaz etengabe eta ozta-ozta eusten diot idaztea ahalbidetzen didan metalezko ziriari, laurogeita zazpi urte lepoan hartu eta konturatu naiz bizitzak haizeak bezala, eskuen artetik ihes egin behar didala. Nire ibilbidea existentziaren periferiara heltzear dago. Pentsatzen jarrita, 87 udaberrir luze eta misteriotsu hauetan gozatu ez dudanaren irudipena daukat, Jaungoikoak emandako aukera zaborretara bota dudan sentimendu nazkagarria. Nire amaiera gertu dago. Agian, gurasoekin elkartzeko garaia heltzeko zorian dago, beraiekin bizi ezin izan ditudan une alaiak pasatzeko momentua. Urrundu gintuenak berriz batuko gaituela entzun izan dut sarritan. Zer izango ote da zerua? Sarritan entzun izan ohi dugun legez leku miresgarria, ederra, liluragarria... ala mundu honetan egindako bekatuak ordaintzeko toki latz baten antzekoa? Itaun honek hainbat buruhauste sortu dizkit bizitza guztian zehar eta orain ere, pentsatze hutsarekin barruak nahasten zaizkit. Gaiarekiko dudan ezjakintasunak nire gorputz zaharkituan egonezina piztea dakar. Irtenbide gabeko buruhauste madarikatua. Azken hilabeteetan zaharren egoitzan igaro dudan denbora guztian igarkizunarekiko pentsamenduak besterik ez ditut izan.

Etxekoen bisitekin soilik utz nezake arlo hau. Jainkoari eskerrak, seme-alabak ia egunero etortzen dira ni ikustera. Egunerokotasunaz hitz egin eta iloben gorabeherak kontatzen dizkidate. Badira bi aste Dana eta Abdul ikusi ez ditudala. Badakit, zaharren egoitzara etortzea baino plan interesgarriagoak dituztela, baina astean behin behintzat aitona ikusten etortzeak ez die txarrik egingo. Ikusi nituen azken bisitaldian Danaren aurpegian minduta eta arduratuta zegoela nabaritu nuen. Goibel zegoen, ikastolan bere azalaren koloreagatik barre eta burla egiten diotelako. Badirudi, besteen epaiketen beldur dela, ondokoaren onarpenaren zain dagoela. Bistan da ez duela Bashira bere herenamonaren ausardia oinordetu. Nire amonak bazituen bai adorea eta baita kemena ere; Garai hartan arraza beltzekoen eta emakumeen egoera ez zen batere erraza. Baina bere esentzia sekula galdu gabe, adoretzu borrokatu zuen bidegabekeriaren aurka. Gose greba mordo egin zituen eta jende asko hurbildu zitzaion bide latz horri aurre egiteko. Nire begiek ez dute sekula ahaztuko amonaren sufrimendua. Baina benetako indarra bere alabak eman zion, nire amak, hain zuzen ere.

Nire ama maitea hori guztia gertatu baino hilabete gutxi batzuk lehenago Jaungoikoaren erreinura joan zen. Baztangak eraman zuen beste mundura, 1937ko abenduaren 23an. Nafarrerian edo Baztanga oso gaixotasun gogorra zen eta nire amak izugarri sufritu zuen betiko lokartu aurretik. Zorionez, gaur egun gure planetatik gaixotasun madarikatua deuseztatzea lortu da, horren kontrako txerto miresgarriari esker. Ume moko bat nintzen ama galdu nuenean, baina oraindik gogoan ditut bere begi marroi ilunak, Burkak ikusten uzten zizkidanak. Guztiz abaildurik geunden, momentu hartan gure etxeari etorkizuneko ate guztiak itxi zitzaizkion. Ez ditut amaren laztanak sekula santan ahaztuko. Hutsune izugarria utzi zuen etxean eta aita gizagaixoak gorriak pasatu zituen familia eta etxea aurrera ateratzeko. Ahalegin hauek guztiak ordea, indarra galduz joan ziren gerra hasi zenean.

Somalia gure lur maitearen independentzia 1960ko uztailaren 1ean eman zen, baina hamazazpi urte beranduago gerra sutu zen Etiopia eta gure lurraldearen artean, Ogaden hartzeko helburuz. Garai gogorrak haiek, hurrengo urte luze eta gogor horietan pobrezia nagusitu zen Somalia osoan. Zenbat lagunengorpu, zenbat harreman galdu eta zenbat familia suntsitu ziren hura bizi genuenok soilik dakigu. Nire ustez, errugabeak errudun bihurtzea izan zen gerraren ondorio bakarra. Gerraren ondorioz, milaka pertsona hil ziren eta besteok hainbat jenderen alde egitea ekarri zuen. Gu geu izan ginen horietako batzuk. Aitak, Somaliatik Euskal Herrira itsasontziz bidaiatzeko hiru txartel eskuratu zituen: amonarena, berea eta nirea. Gerretatik urruntzeko nahia aspaldidanik zuen, diru ezak, aldiz, desioa zapuzten zion. Bi urte gogor lanean jo eta ke aritu ostean, kostata lortu zituen txartelak. Aitaren ametsa Euskal Herria ezagutzea zen, bere lagun Mohamed Bermeora joan zen gerra hasi aurretik eta sekula ezagutu duen lurralderik ederrena dela esaten zion beti, guztiz maiteminduta zegoen. Gainera, arrantzale lana lortu zuen bere lagunari esker.

Bidaiari hasiera emango zion Marokoko portura iritsi arte ordu mordoa eman genituen autobusean. Ibilbide guztian zehar Euskal Herriko bizimodua zer-nolakoa izango zen imajinatzen genuen. Gure etxetxo berria ikusteko pozarren geunden. Itsasontzia eguerdiko ordu bietan abiatu zen Bermeoko porturantz, oraindik gogoan dut bidaiarik nekagarri hura, amona koitaduak bidaiarik osoa zorabiatuta igaro zuen. Bitartean, aita eta biok ahozabalik itsaso zabalaririk begira geunden. Bizitza berriari hasiera emango zion kostaldeko herritxora heltzeko desiratzen geunden, pozez zorutzen.

Kantauri itsasora sartzean eta Ogoñoko lurmuturra ikustean gure begiak guztiz ireki ziren, txundituta geunden lurralde berde eta fresko hartaz. Bermeora heltzean, eta gure alokairuko etxetxora heltzean sentitu genituen lasaitasun eta segurtasuna neurgaitzak izan ziren. Nahi genuena eta behar genuenaren arteko distantzia izugarri murriztu zitzaigun herri liluragarri hura ikustean.

Erlojuaren orratzak aurrera joan ahala, aita Bermeoko “Jesusen semeak” arrantza ontzian lan eta lan aritu zen. Bere falta izugarria zen etxean, sei hilabete itsasoan ematen baitzituen. Baina aitak bidaltzen zigun diru apurrarik esker amonak eta biok aurrerarik jarraitu genuen elkarrekin, kostata, baina jarraitu genuen. Goizetan, ni unibertsitatean ikasten nengoen bitartean, amonak janaria prestatzen zidan. Arratsaldetan, aldiz, karta jokoa joaten zen Lamera parkeko txokora. Hala ere, egoera horrek ez zuen luzaroan iraun. Handik bi urterik Bashira, nire amona maitea, hil baitzen zahartzaroak jota. Bakar-bakarrik geratu nintzen, beno, ia bakarrik; Enara nuen.

Enara nire neskalaguna zen. Neskato oso umila eta apala, ezagutzen nituen euskaldun gehienentzako antzera, baina Enara berezia zen niretzat. Nire amaren antzeko begi marroiak zituen eta marrubiak bezalako ezpain gorriak. Bermeoko portuan lan egiten zuen, bere aitaren itsasontziko lan taldeak arrantzatutako arrainak saltzen. Hantxe bertan ezagutu genuen elkar udako egun eguzkitsu batean. Orduetik hona, nire egunak hobeak dira berarekin batera. Oraindik gogoan dut gauerdian nire etxean agertu zen egun hura, berri pozgarri bat emateko asmotan. Bizitzak inoiz eman zidan oparirik onena zen: bizia. Haurdun geunden!”

- Aita, horrelakoa izan al da aitonaren gaztaroa? - Galdetu zidan semeak aho zabalik.

Baietz erantzun nion, pelikula bateko istorioa dirudien arren, aitonak gerra, maite zituen pertsonen heriotzak, pobrezia, immigrazioa, bakardadea eta beste milaka gertaera bizi izan zituen gazte-gaztetatik, Euskal Herrira heldu aurretik, baina bertan, bere bizitzako maitasuna ezagutu eta familia zoragarria sortu zuen. Egungo gaixotasun mentala dela eta, aitonak ez du ezer gogoratzen, baina idatzi zuena ez da sekula galduko, nor garen eta nondik gatozen ez dugu sekula ahaztuko.

Betiko, gogoaren baitan.



Izaro Ezkurdia Beaskoetxea
BATX 2. maila

*“Nire esku dago betidanik izan ditudan
ametsak errealitate bihurtzea”.*

ZU NI ZARELAKO

Erre egiten dizu. Hainbeste erretzen dizu, non zure gorputz guztitik hedatzen den.

Amorrua bat-batean agertzen baita. Iragankorra, iheskorra eta kiskalgarria da. Momentuan sentitzen dituzun sentimendu guztiak bere baitan hartzen ditu, gorputzaren arima kontrolatuz eta bihotza piztuz.

Nik sentitu nuen nire barruan nola hedatzen zen eta nola egiten zuen ihes, ahoa irekitzen nuen bakoitzean. Horregatik, ezin izan nion aurre egin kontsumitzen eta arrastaka eramaten ninduen energiari. Amorruak kontsumitu egiten ninduen, baina gainditzeko ahalmena nuela ziur nengoen. Azkenean, hari esker, pertsona indartsuago eta gogorrago bilakatuko nintzen.

Kontrolpean nuen nire zainetan zehar. Neurea egin nuen, gerrakidea baitzen. Gainera, sua, orain arte piztutako guztiak bezala, indarra galtzen joan zen. Sugarrek geroz eta gutxiago berotzen zuten. Nire gorputza infernuko gorritik lurreko laranja igaro zen. Gero, udaberriko hosto horira, eta azkenik, zeruko hodei zurixkara pasatu zen.

Mina sentitu nuen, inoiz ez bezalakoa.

Eztandaren ondoren bularra urratzen zitzaidala sentitu nuen. Nire gorputzak amore eman zuen gure arteko harremana euskarri zuen soka eusteagatik. Orain, sokari tira eta tira hainbeste egin ondoren, nire eskuak gorrikkak, nekatuak eta hautsiak dira, hain urrun geratzen zaien askatasunaren zain. Nire gorputza pixkanaka-pixkanaka lurrera erortzen utzi nuen. Nire zangoei ere utzi nien atsedean hartzen bainu gelako alfonbraren gainean, non hainbestetan nire malkoak isilarazten nituen.

Atsedena.

Atsedena.

Atsedena.

Inork ez du inoiz lortuko besteen mina ulertzea, zurea ez den zerbait beti izango delako, neurri batean, ulertezina. Oinazea hainbat adarretan adarkatzen da eta gutariko bakoitzak modu ezberdinean sentitzen du. Nik, itsasoan barrena egongo banintz bezala, sentitu nuen, blai eginda eta ur ezezagunen artean harrapatuta banengo bezala. Oinazeak arnasa eta bizitzeko gogoa kendu zizkidan eta hondoraino urperatu nintzen, berriz gainazalera ateratzeko indarrrik gabe.

Etsai gupidagabea eta indartsuegia da, hain aldakorra eta bizkorra, zure ahulguneak ezagutzeko gai dena, eta salbu mantentzen gaituzten hormak eraisteko gai dena.

Mina garaiezina da borrokatzen ez dakitenentzat, eta nik, jaio nintzenetik zoriontsu bizi izan naizenez, ez dut inoiz haren aurka nola borroka nezakeen ikasi. Horrela esnatu ninduen olatu handiak zoriontasunetik. Irentsi nuen ur guztia nire ariman sartu zen, lehen dir-dir egiten zuten begietatik ihes eginez.

Barkatu.

Barkatu.

Barkatu.

Ispiluan ikusiz, errepikatu nion behin eta berriz nire gorputzari.

Barkatu nire bihotz zentzugabea, kolorezko ametsez eta errealtate eder, baina faltsuez kutsatu izanagatik. Barka ezazu nire ergelkeria guztia. Mina gela guztietatik atera zen, ate guztiak zabalik utzi nituelako. Haren aurrean amore eman nuen eta horregatik, ikasi nuen haren aurka borrokatzen eta bere tranpetan berriz ez erortzen. Baina orain... Nola libratuko naiz berarengandik?

Amodiotik hutsera edo desamodiora ez dago ezer, oroitzapenak baino. Ilusio handia eta konplizitate itzela eskaini genion elkarri tarte batean, horretarako gai izan ginen. Baita hori guztia desegiteko ere. Izandako maitasunaren seinalearen parekoak dira maitasunaren porrotak uzten dituen *amorrua eta mina*.

Orain ez dago minik, ezta amorrurik ere.

Zure baitan ez dago jadanik inolako sentimendurik, eta horregatik ikusten duzu zeure burua galduta, orri zuri eta huts bat bezala. Gustatzen zaizu, neurri batean, horrela sentitzea. Galtzeak beti dakarrelako berriz irabazia. Zuk galduta, irabazi nahi duzu bakarrik hain atzean utzi zenuen ni hura.

Badakizu, zuk ez zenuela inoiz gertatutakoaz ezer onartuko, lotsatu egingo zinatekeen hainbeste kritikatzan zenituen zure ekintzez. Hainbeste gorroto zenuena bihurtu zinen.

Faltan botatzen zaitut, aspaldian izan nintzen nia, eta sentitzen dut... Badakit, zuk ez zenukeela hau inoiz onartuko, ez ulertuko, ezta errespetatuko. Berriro eduki nahi zaitut, zure esentzia nire baitan behar dut. Lehengora itzuli nahian, kemena, indarra eta irribarrea behar ditut berriro. Zer gertatu zaigu? Nora joan zara? Jada ez zaude nirekin eta teknikoki ezinezkoa da, zu ni zarelako.

Agian, orain galduta egongo naiz nire bizitzan jada ez dagoelako agintaririk, etorkizun oparoaren gidari bakarra ni neu naizelako. Nire esku dago betidanik izan ditudan ametsak errealitate bihurtzea, eta hori egin behar dut, nire beldurra garaitu eta jaiki egin behar naiz. Horrela, ni neu izango naiz berriro.



Oier Negro Alegria
BATZ 2. maila

*“Gure beldur eta akatsek
egiten gaituzte berezi”*

ZEIN ARRAROAK GAREN

Maiz pentsatu izan ohi dut, zein arraroak garen
zenbat aldiz egin dugu atzera zerbait egitean
eta ze aldi gutxitan egin dugun aurrera beldurra sentitu dugunean.

Beldurra,

Hezurak geldiarazten eta azala izozten digun sentipen hori

Askotan horrela dela uste badugu ere,
mugitu ezin garen momentu horiek ez dira txarrenak.

Txarrenak,

aurrera egiten uzten bagaituzte ere
berriro hasierako tokira ekartzen dizkiguten horiek dira,
aurre egiten uzten ez zaituzten beldur horiek dira txarrenak,
txarrenak eta aldi berean errazenak,

Errazenak,

zentzugabekeria bat ematen badu ere, hauetatik ihes egin behar da
izan ere, ihes egitea delako, aurre egiteko modu onena batzuetan.

Eta honek erraza ematen badu ere, horixe da zailena.

Zailena.

Zailena da, onartu egin behar delako askotan arazo bat dugula,

Eta zaila da onartzea

Onartzea,

nor garen,

zer nahi dugun

nola lortuko dugun hori.

Behin hori jakinda bidea ez da horren zaila,

bidea inoiz ere ez da zaila izan.

Guk.

Gizakiok.

Egiten ditugu gauzak konplikatu

beharrezkoak ez diren gauzak sortuz

txorakeriak diren gauzei beldurra edukiz

eta buruari bira gehiegi emanez.

Izan ere zein arraroak garen gizakiok

HITZAK

Nik.

Gizakiak.

Egiten ditut gauzak konplikatu

beharrezkoak diren gauzak sortuz

Txorakeriak diren gauzei beldurra edukiz

eta buruari bira gehiegi emanez.

Pentsatzen aritu naiz,

nola gauza ederrenak sortzen ditugun

ondoren suntsitzeko

Nola maitasuna den hiltzeko arma eraginkorrena

Nola hitzek egiten duten min gehien,

orain dela hamar urtetatik duzun lagun bat

bost hitzen buruan galduz.

Baina hitzak ez dira denak mingarriak
betiko ematen dituzten zauriak
senda daitezke denboraren laguntzaz.
Erderaz esan ohi den bezala
1000 hitzek baino gehiago dio argazki batek
gezur hutsa dena nire ustez,
hitz goxo batek eguna alaitu diezazuke.
Hitzen barruan ditugun suak sumendi bilakatu ditzakete
hitzen sentimenduak pentsamenduak aldatu ditzakete.
Gu ez al gara erakutsi dizkiguten hitzak gordetzen dituen gorputz biluziak ?
gure arbasoei jakin uste zuten erakutsi ziguten
eta horrela egingo dugu guk ere
hitzen bitartez.
Gehien gozaten ditugun gauzak
gehien amorratzen ditugunak ere dira.
Sarritan oparitzen ditugu esanguratsuek ez diren gauzak
prezio altuak opari onaren sinonimo bezala hartzen ditugu,
gehienetan opari horiek txikitako jostailu apurtuekin batera ahaztuz,
bi hitz nahiko badira ere.

ZURI, NIRI

Bi hitz nahikoak badira ere,
nik 10 milioi esango nituzke
guk biok soilik ulertzen ditugun gauza korapilatsuei buruz,
kolpeka, negar malkoak dariola pozagatik edo tristuragatik, bata bestearekin nekatuta...
bukatu badugu ere. Zu izan zara beti nirekin egon den gorputz bakarra
Zuri dedikatzen dizkizut beharrezkoak diren bi hitz hauek
Maite zaitut,
Zu, Ni.



Aitor Bilbao Landa
BATX. 2. maila

“Beldurti denaren ezpatak punta motz”

NAHIAREN ETA EZINAREN BORROKATOKI EKAITZEZ BETEA

Etxera bidean nengoen, betiko kale desolatueta zehar. Gaua zen, gau iluna. Dena den, laino beltzen artetik goizeko lehen argi-izpiak ikus zitezkeen. Baina izugarritzko hotza zegoen, edo agian, hotz nintzen. Banekien ez zegoela ongi egiten nenbilena, baina zer erremedio. Dena den, azkenengo aldia izango zen edo behintzat, hori sinestarazi nahi nion neure buruari.

Ate aurrean nengoen jada. Giltza zerrailan sartu eta hiru aldiz biratu ostean ireki zen. Atea zeharkatzean arazo eta kezka guztiak libratuko nituela pentsatu nahi nuen. Beraz, pauso bi aurrera eman eta kalea atzean utzi nuen. Baina ez zen ezer aldatu. Nola pentsa nezakeen ezer aldatuko zenik? Mozkor nengoelako izango zen, ez bainintzen superstiziosoa.

Sukaldea, egongela eta logela zeharkatu nituen, ihesi banengo bezala. Hala, komunera iritsi nintzen. Erropak erantzi nituen, egin nuenaren pisua kendu nahirik. Dutxan sartu eta ur-tanta potoloak ene gorputza bonbardatzen ari zirela zirudien. Hasieran hotzak, baina laster epeldu ziren. Hertzainak-en “Salda Badago” abestiaren hitzak ekarri nituen gogora: “...egun grisa, hotza kalean, negu gogorra herri honetan, bizitzak emandako plazer txiki hauengatik ez balitz...”. Hala zen. Nire egunerokotasun usteleko une bare eta on bakarra ur-zaparrada epelaren azpian zen. Herritik alde egin behar nuen.

Naretasunari bizkarra eman eta errealtate latzera itzuli behar izan nuen. Pijama jantzi eta logelako leihoa ireki nuen, txerri-korta zikinenean baino kirats handiagoa baitzegoen. Gela aireztatu bitartean, balkoira irten nintzen eta erosi berri nuen “Cohiba” kaxatik txokorra atera nuen. Ez zen giro kalean, lauzpabost kotxe eta hiruzpalau gazte mozkor. Amaitzean, leihoa itxi eta ohera egin nuen salto, maindireek irents nintzaten.

- *Goazen Nerea! Azkar, badatoz!* -zioen Mikelek
- *Banoa, banoa!* -nik

Urduri-urduri, ahalik eta bizkorren, motxilan sartu nuen beharrezkoa. Pistola hartzera nindoan armairutik, granada, tiro eta abarren zaratek gelditu nindutenean. “BOOM! BOOM!”

- *Mikel? Mikel, erantzun arren!!!* - nioen atsekabetuta.

Nire aurrean zeuden. Berrero entzun nuen “BOOM! BOOM!” eta guztia ilundu zen...

Amesgaizto bat zen, ez besterik. Ohetik altxatu nintzen buruko min galantarekin, aurreko gauean Ballentines-ez ito nintzelako Pedroren tabernan. Sukaldean nengoen kafea berotzeko prest, osterara ere “BOOM! BOOM!” entzun nuen arte. Korrika hurbildu nintzen atera, beldurtuta. Mikel zen. Irrifarre faltsua egin nion.

- *Egun on laztana!* - esan nion ahal nuen gozoen.
- *Egun on* - erantzun zidan lehor, burumakur.
- *Zer gertatzen da?* - galdetu nion
- *“Txiki” harrapatu dute.*
- *Nola?* - nik, aho zabalik
- *Atzo gauean bere etxean sartu zen polizia eta atxilotu egin zuten.*

Orduan oroitu nuen amesgaiztoa. Polizia kupidarik gabe tiroka eta bortxa izugarria erabiltzen imajinatu nuen. Amorrua eta ezintasuna sentitu nituen. “Txiki”, Jon, pertsona ona zen. Hurrengoa Mikel izan zitekeen, Irati edo Ugaitz edo, agian ni. Ihes egin behar nuen urrun, eta bizi berri bat hasi. “Irlandara joango naiz, beti nahi izan dudana bezala” nioen nere baitan. Banuen dirua, banituen baliabideak, ezagunak Galway-en. Haatik, nire bila zebiltzan. Bestalde, ezin nituen atzean utzi, nire gogo guztiez desio nuen arren.

Mikelekin herri osoa zeharkatu nuen. Aitortu behar nuen goizez beste xarma bat zuela herriak. Abandonatutako eta erortzear zegoen etxera sartu ginen elkarrekin, bilera baitzegoen atxiloketa zela eta. Han geunden laurok: Irati, Ugaitz, Mikel eta ni. Orduak pasa genituen eztabaidan.

- *Lekua aldatu behar dugu, hau ez da jada leku segurua!* - esan zuen Iratik.
- *Nora eramán dezakegu, ba? Nik uste erre egin behar dugula eta alde egin* - erantzun zion Ugaitzek.
- *Erre? Ezta pentsatu ere! Ahaztu egin al duzu zenbat diru irabaz dezakegun?* - Iratik, amorrus
- *Iratik arrazoia du, ezin dugu Joseba atxilotu dutelako amore eman. Nerea eta biok gorde genezake oraingo,* - esan zuen Mikelek eta begiratu egin ninduen, nire onspena eskatzen balego bezala- *beste toki bat aurkitu arte.*
- *Bai, hori da* - esan nuen, kontrakoa uste nuen arren

Berrogeita hamar kilo kokaina nire etxera. Falta zena...

Bost urte ziren Mikel ezagutu nuenetik, RIPen kontzertuan, Arrasateko gaztetxean. 17 urte nituen orduan, baina, lehenengo momentutik maitemindu ninduen. Batxilergoa amaitu eta biokimikako gradua hasi nuen Leioako unibertsitatean. Hortaz, etxe bat alokatu genuen bion artean. Dena den, Mikel sarritan gurasoen etxean geratzen zen lotan, Portugaleten, lanetik nekatuta iristen zenean. Horrez gain, lan egin beharra nuen alokairua ordaindu ahal izateko. Horregatik, Leioako herriko tabernan egiten nuen lan asteburuetan. Etxea alokatu eta hilabetera, Mikelen aita hil zen. Honek izugarrizko eragina izan zuen Mikelengan. Laguntzen saiatzen nintzen arren, ez nuen bere umorea aldatzerik lortzen. Gainera, arazo ekonomikoak ekarri zituen, izan ere, Mikel eta biok lan egiten genuen, baina, ez zenez nahikoa alokairua ordaintzeko, bere gurasoen laguntza genuen. Hala hasi zen dena...

Hasieratik esana nion Mikeli bazeudela beste zenbait irtenbide, nik ikasketak uztea esaterako. Ezin ginela droga saltzen hasi. Berak, aldiz, bazekien oso gustuko nuela biokimika eta ez zuen nik karrera uzterik gura. Ez dakit nola konbentzitu ninduen. Aste bi igarota, kilo bat kokaina geneukan. Azkar saldu genuen eta etekin itzela atera. Dena zen poza eta zorientasuna. Baina handinahikeriak gainditu gintuen...

Hasteko, bost kilo gehiago, erraz saldu genituen. Geroago, hamar ekarri zituen eta saldu genuen, ez horren erraz, baina guztia saldu genuen. Nik aski zela pentsatzen nuen, baina, Mikel zorientsu ikusten nuenez ez nuen ezer esan. Gainera, diru-sarrerak besterik ez genituen. Hala, lana uztea erabaki genuen. Mikelek saltzaile eta erosle askorekin harremanak egin zituen. Haietako batzuk atxilotu egin zituzten, batzuk saltzeagatik, beste batzuk erosteagatik. Hala ere, Mikelek aurrera egin nahi zuen. Diruak itsututa ez ote zegoen galdezka hasi nintzaion nire buruari. Ez zen betikoa. Ez zen RIPen kontzertu hartan, garagardoa eskuan, lehen lerroan zegoen kresta berdedun mutil hura. Orain, ez zetorren ia etxera, beti zegoen negozioan. Ni noizean behin joaten nintzen haiekin eta taldekotzat hartzen ninduten, baina ez nengoen erabat murgilduta. Hala, nire tristurari aurre egin ezin eta Pedroren tabernako barran aurkitu nuen gordelekua. Zenbat eta gehiago edan, orduan eta lasaiago nengoela iruditzen zitzaidan.

Ihes egin nahi nuen. Ihes Leioatik. Ihes bizi honetatik. Ihes narkotrafiko nazkagarritik. Baina Mikelek nirekin batera ihes egin zezan nahi nuen. Garai bateko Mikelek. Mikel mozkor, baina zentzudunak. Mikel indartsu eta bihotz onekoak. Zer egin behar nuen? Esan egin behar al nion? Agian kasu egingo zidan. Agian haserretu egingo zen. Batek jakin. Ez nuen arriskatu nahi. Ihes egin nahi nuen, baina ezin. “Nahiaren eta ezinaren borrokatoki ekaitzez bete” zioen Xabier Letek. “Noiz etorriko ote dira barea eta bakea?” galdetzen nuen nik.

Esana zidan 50 kilo erosi zituela lagunekin batera. Ez dakit lagun dei daitezkeen ere. Are gehiago, azken aldia izango zela esan zidan. Horren ostean aberastu egingo ginela eta Irlandara joango ginela bizitzera, nik nahi nuen bezalaxe.

Hauts zuri malapartatu hura nire garajera eraman genuen. Eskerrak garaje handia nuela, zirrikitu anitzekin. Izugarrizko pisua zuen. Han eta hemen sartu genituen poltsak. Hala ere, guztia ez zenez kabitzen, etxeko sukaldean ezkutatu behar izan genituen pare bat kilo. Urduri nengoen, oso urduri. Berrogeita hamar kilo kokaina nire garajea. Ezin genituen saldu, poliziak harrapatzeko arrisku ikaragarria baitzegoen. Beraz, itxaron egin behar zen, kasua artxibatu arte. Ziurrenik laster polizia etorriko zen, galderak egitera edo etxea aztertzeraz.

Dena oso arin gertatu zen. Ez espero nuen bezain bortitz. Azken finean, narkotrafikanteak ginen, ez hiltzaileak. Antza denez, Joseba dena kontatzera behartu zuten...

Atea jo zuten. Ez genuen alde egiteko asmorik izan. Ireki nien. Gure izenak esan zituzten, lehenengo Mikelena, ondoren nirea. Eskuburdinak atera zituzten eta eskumuturrak inguratu zizkiguten. Polizia-etxean egin genuen gainerakoekin topo.

Narkotrafikoa leporatu ziguten. Hiruna urte, bakarra Josebarentzat kolaboratzeagatik. "Kolaborazio" behartua, alegia.

Lau hormen artean pentsatzeari eta hausnartzeari ekin nion. Bizitza osoan zehar egindako guztia ezabatua zela zirudien, haurtzaroa, nerabezaroa, ikasketak, lana. Guztiaren gainetik baitzegoen narkotrafikante adjektiboa. Poltsa zuri batzuk saltzea izan zela bizian egin nuen gauza bakarra zirudien. Askok jota izena nuen. Egunkarietan eta kalean ez nintzen beti izan nintzen neska gaztea eta ikasle ona, orain droga saltzailea nintzen soilik.

Ez zuen ardura historiak. Ez zuen ardura zer uste nuen, nire ideologiak, ezta egin nuenaren zergatiak ere. Kartzelan ohartu nintzen, gaizkile gehienak, guztiak ez esatearren, pertsona normalak zirela, askotan kontrakoa uste dugun arren. Askok dena konta zezaketen lotsarik gabe, beste asko isilagoak eta itxiagoak ziren. Zuloan gehienek bizi zaila izan zuten edo zailtasunen bati aurre egiteko egin zuten egindakoa. Beste batzuek beraien pentsaera muturreraino eraman zuten.

Espetxean bakoitza pertsona bat zen, historia bat, bizi bat. Espetxetik kanpo, ordea, guztiok ginen gaizkileak, maltzurak eta nazkagarriak.

Erraza da ezagutzen ez denaz gaizki mintzatzea. Ibizan luxuzko etxeetan bizi eta bazkaltzeko angulak jaten dituenarentzat erraza da hilabete-bukaerara iristen ez dena, gose dena seinalatzea. Erraza da enpresari esplotatzaile batentzat kaleko lapur bat seinalatzea. Ez gara ohartzen benetako lapurra, benetako gaizkilea nor den, guri kalte egiten digun arte. Injustizia da egungo justizia. Noizbait ohartuko gara, noizbait...



Ekaitz Martín Pérez
BATX. 2. maila

“Erregeak nahi duena, herritarrak ahal duena”

BOTEREAREN DANTZA AMAIGABEA

Tik-tak, tik-tak, tik-tak...
Denbora aurrera doa...
Tik-tak, tik-tak, tik-tak...

“Botereak ez du hutsunea onartzen, beti betetzen da zerbaitekin:
Jainkoekin, ideologiekin, istorioekin edota agintariekin. Ez dago tronu hutsik.”

Utz iezadazu neure burua aurkezten.
Hemendik nabilta orain dela mendeetatik,
baina ez dut ez izen, ez goitzen.

Bertan nengoen traditu zutenean Zesarra,
hogeita hiru zenbatu nituen sastadak,
hura bai bere aurpegian nekusan ikara.

Bertan nengoen traditu zutenean Salbadorea,
kaletik arrastaka galdu zuen ohorea,
eta gurutzean entzun zitzaiokeen deitorea.

Bertan nengoen Erroma sutan zegoela,
enperadoreak etzanda ikusirik,
umeak erredurekin ihesian zebiltzala.

Nire izena jakin nahi izanez gero,
ez ezazu nigandik askorik espero,
ez galdetu nora noan ezta nondik natorren,
nire erantzuna ez baita izango batere dotore,
adi! Kontatuko dizut gero zer datorren...

Bertan nengoen Europara heldu zenean izurri asiarra,
abadeek predikatzen zuten salbazioa lortu nahian,
herrietan hiltzen zebiltzala, bai gazte eta bai zaharrak.

Bertan nengoen gudara zihoanean herria,
erregeek asmatutako erlijioa jarraituz,
salbatu nahi baitzuten beraien bizia.

Bertan nengoen aurkitu zenean Mundu Berria,
gogoratzen ditut itsasoaren erasoaldiak,
eta behin gabiako zelatariak botatako irrintzia.
Nire izena jakin nahi izanez gero,
ez ezazu nigandik askorik espero,
ez galdetu nora noan ezta nondik natorren,
nire erantzuna ez baita izango batere dotore,
adi! Kontatuko dizut gero zer datorren...

Bertan nengoen hasi zenean hedatzen ezagutza,
eta erregeei izua sartu zitzaienean gorputzean,
ikusi baitzuten bukatzeaz zegoela herriaren esklabutza.

Bertan nengoen hil zutenean errege frantsesa,
“askatasuna” izan arren beraien lema,
erregearen ostean etorri ziren milaka hileta.

Bertan nengoen langileek lor zezaten duintasuna,
laburragoa izan zedin beraien laneguna,
erreguek behingoz izan zezaten erantzuna.

Nire izena jakin nahi izanez gero,
ez ezazu nigandik askorik espero,
ez galdetu nora noan ezta nondik natorren,
nire erantzuna ez baita izango batere dotore,
adi! Kontatuko dizut gero zer datorren...

Moskutik nenbilen egoera aldatzeko unean,
errege-etxean sartu eta tsarra hartu genuen,
herriarrek bukatu nahi zuten enperadorea.

Tankean igo nintzen *blitzkrieg*-aren garaian,
milioiak izan ziren hildakoak eta batailak,
urte horietan guztiz belztu zen paisaia.

Gogoratzen dut gertatutakoa Hiroshiman,
hodei artean Heriotza azaldu zen, eta,
istant batean joan ziren ehun mila arima.

Hortik aurrera badakizu zer datorren.
Kubatarren haserrea eta Munduaren ikara,
tirokatutako presidentea eta Ilargirako bidaia,
“I have a dream...” eta zapalduen matxinada,
harresi baten erorketa eta bloke baten beherakada,
zentral baten leherketa eta heriotza nuklearra,
Interneten sorrera eta distantzia ororen amaia,
bi dorreen eraisketa eta mendekuaren indarra,
zomorro asiarraren agerpena; eta zu.

Zu, istorio honen parte;
zu, ziklo honen parte;
zu, beste txotxongilo bat.

Denbora aurrera doa eta zu ezin asmatu,
istorio honetan erruduna nor den,
urtez urte eta mendez mende,
istorioa errepikatzen da amaigabe,
eta ezin izango duzu zure patua aldatu,
baitzara boterearen dantzaren parte.



Elai Oleaga Goikolea
BATX. 2. maila

“Gaitz gogorrenak ere badu bere azkena”

BILUZTUTAKO ARIMA

Bai... ala ez. Ausartu... ala ez. Nire biziari beste aukera bat eman... ala ez. Ez dakit. Ez dakit zer egin, zer pentsatu. Egia esan, ez dakit ezta nor naizen. Ez dut neure burua ezagutzen.

Bihar, otsailak 7, 36 urte beteko ditut, bai, 36, nik ere ez dakit ze momentutan igaro diren 35 urte hauek. Hala ere, ez ditut 36 urte bete nahi. Ez ditut 36 kandela itzali nahi, laneko ezagunen artean, aurpegian irribarre faltsu bat irudikatzen dudan bitartean, ez dut nahi.

00:00

Inork ez ditu 36 urte bete eta nire moduan ospatzen, txandalean, ile orraztu gabeekin, eta begiradako islada galduarekin. Inork. Inork ez du bere eguna, 12 solairuko eraikin baten gainean hasten, izkin batean eserita, barruko mina, bihotzekoa, Ron botila batean ito nahian.

Lurrera begiratu dut, 50 metro baino gehiagoko altuera. Hemendik botaz gero, ez dago atzera itzultzerik. Ez zaizkit hegoak aterako. Bide hau aukeratuz gero, ez dago itzultzerik.

Sakon hartu dut arnasa, eta begirada, izarretan barrena galdu dut. Galdu... Argi dago, ez dela galdu dudan gauza bakarra izan. Txikitatik galdu izan ditut gauzak, pertsonak batez ere. Ama, aita, lagunak, neska-lagunak,... denak galdu ditut, den-denak. Maite ninduten guztiak, joan egin dira, nire bizitzatik ihes egin dute. Batzuk zerura, eta beste asko nigandik urruti, aurkitu ezin ditudan toki batera.

Ez daukat inor. Ez nau inork maite. Denak joan dira. Agian orain, ni joateko unea da.

Burua jaitsi dut, izarren argitasunetik, lehenengo pisuaren parean dagoen zuhaitzera. 11 solairu beherago. 46 metro beherago.

Minutuak igaro ditut zuhaitzari begira, haizearen eraginez, hosto eta adarrek nola dantzatzen duten begira. Ama gogoratu dut. Bera zen haizearen mugimenduarekin dantzatzen zuena, bihotza alaitasunez betetzen zidana, bera. Nire biziaren bihotza, egunero nire zain zegoena, eta aurpegia musuz estaltzen zidana.

Baina nik, nik ez nuen baloratzen jakin. 20 urte nituen, hogeiki besterik ez, eta nagusia nintzela uste nuen. Drogen munduan sartu nintzen, bai, droga madarikatuen munduan, eta erabaki honek, dena sutsitu zidan. Ni sutsitu ninduen eta gehien maite nuen ere bai.

Lagunak eta neska-lagunak, joan egin ziren, nigandik urrundu ziren, agian nik bota nituen. Baina ama ez, amak bertan iraun zuen, nire alboan, gau eta egun, ordu eta minutu, ni laguntzeko prest. Baina ni, inozo samarra nintzen, eta amaren esfortzu denak pikutara bidali nituen, horrelakoa nintzen ni, horrelakoa naiz ni.

Apirilaren 4an, orduan bai geratu nintzen bakarrik.

Esan dudan bezala, drogen munduan nenbilen, eta diru asko, gogoratzen dudan baino gehiago zor nien gizon batzuei. Denok dakigu non bukatzen duten kontu hauek, irteera gabeko kale batean. Nire kalea, nire etxea bera izan zen.

Gizon haiek, nire etxean agertu ziren apirilaren 4an. Eta zer gertatu zen? Ez nengoela etxean. Ni, taberna batean nengoen, nire minak edarian itotzen. Beti bezala. Arazo batean sartu nintzen, eta beste behin ere, amak ordaindu zuen nik merezitakoa.

Gaueko hamaikak aldera, etxera iritsi nintzen. Barre egin nuen atea ireki eta amaren buruan pistola bat ikustean, gizon bi haiek eusten zuten bitartean, berak zerbait esaten zidan. Barre. Mozkor nengoen, oso mozkor, eta ez nintzen konturatzen, ez nekien nortzuk ziren gizon haiek eta ez nekien ama arriskuan zegoenik. Hala ere, horrek ez dit errurik kentzen.

Zerbait galdetu zidaten, diruaren kontuagatik izango zen, eta nik, zerbait ulertu izango banu bezala, baietz esan eta eskailerak igotzen hasi nintzen, barrezka. Bi eskaileretan behin jausteaz gain, ezin nion barre egiteari utzi.

Hamar minutura, berriz jaitsi nintzen, diru gabe, noski. Bi gizon haiek arraro begiratu zidaten, eta zerbait esan zidaten. Ez naiz gogoratzen zer. Halako batean, hots ozen eta latz bat entzun nuen. Belauniko erori nintzen lurrera amaren buruan zulo bat ikustean, odola. Ama ez zen mugitzen, ni ere ez. Lurrean geratu nintzen, hari begira. Ahoa irekita zeukan, begiak ere bai, eta horrela geratu zen, ez zen gehiago mugitu, bere bihotzak ez zuen taupada gehiagorik eman. Berari begira egon nintzen, minutuak eta minutuak, nire begietatik itsaso bat erortzen zen bitartean.

Ez nekien zer egin, zer pentsatu, amesgaizto bat izatea baino ez nuen espero. Laster batean heldu ziren poliziak, ertzainak eta anbulantziak. Etxe barrura sartu ziren eta lurrean aurkitu ninduten, amaren eskua eusten, bera betirako ametsean murgilduta zegoela. Harengandik urrundu ninduten, kontu handiz, eta esfortzu handiz ere, nik ez bainuen bere eskua askatzen. Poltsa antzeko batean sartu zuten ama, eraman egin zuten.

Odolez betetako putzu bat geratu zen lurrean, nire malkoez betetako beste bat ondoan.

Leloa nintzen, badakit. Dena galdu nuen. Dena galdu dut. Ez daukat ezer.

Ez dakit nola biziraun ditudan 36 urte hauek, zu gabe, inor gabe. Nire bizitzeko gogoak, aspaldi desagertu ziren. Nire bihotza, nire amarenarekin batera joan zen, eta ordutik, zu galdu zintudanetik, ezin izan dut bizi.

“Zergatik hainbeste malko?” Nire azken minutuak, ez ditut malko artean igaro behar. Burua igo dut, urrunera begira. Txori bat dago hegan, gora eta behera. Berari begira egon naiz hainbat segundu, eta azkenean, irribarre egin dut. Metafora bat dirudi honek. Txoriak dauzkan hegoak, nireak bihurtuko dira, eta hegan abiatuko naiz gorantz, lainoetarantz, Aingeruen erreinurantz, izarren argitasunez gidatuta.

Irribarre zabala agertu zait ama ikusiko dudala ohartzean, eta inoiz baino seguruago nago, txoriaren hegoak erabiltzeko prest nagoela.

02:34

Zutik jarri naiz, 12. solairutik lehenengora botatzeko prest, azkeneko arnasa arnasteko prest eta bihotzeko azken taupada sentitzeko prest.

Baina... zerbaitek geldiarazi egin nau. Nahiz eta ezagunak bakarrik izan, nire lankideek, auzokideek eta tabernan ezagututako mutilek, azalpen txiki bat behar dute.

Pentsakor egon naiz minutu batzuetan, zer idatzi behar nuen edo eta zer idaztea komeni zitzaidan pentsatzen. Erabaki bat hartu dut, lurreko harri txiki bat hartu eta hauxe idatzi dut hormako alde batean: *“Zu gabe, ezin naiz izan. J.”*

Egia, egia baino ez dut idatzi. Ama gabe, nor naiz ni? Bere azken arnasa, nire bihotzeko azken taupada izan zen.

Orain badakit lasai joan naitekela, oraingoan betirako.

03:07

Gau iluna da, izarrez betetako zerua dago, Aingeruengana gidatuko nauten izar argitsuak, eta haize bortitza nabari dut. Egun bikaina. Pauso batzuk egin ditut atzerantz, txoriari hegoak lapurtzeko prest. Eskuak, izerditan blai nabari ditut, baina ez naiz geratuko. Praketan igurtzi eta lehortu ostean, korrika hasteko prest nago.

Nire arima biluztu dut, sentimendu denak atzean utzi ditut, orain banoa.

Korrika hasi naiz, atzera egiteko denbora ez edukitzeko. Konturatu gabe, lurra zapaltzeari utzi diot eta 50 metro baino gehiagoko jausi batean barneratu naiz.

Gero eta hurbilago ikusten dut lurra, hurbilago zuhaitza.

Agur biziari, nire biziari, beste batera arte.

Lau metro baino gutxiago lurrera heltzeko. Lau metro baino gutxiago betirako amets batean murgiltzeko.

Hiru metro... 2... 1...

Amarengana noa.

Jokin.



Izar Arronategi Mugeta
BATX. 2. maila

“Lehortearen ondoren, euria pozgarri”

DENA HASI ZENEZ GEROZTIK

HASIERA

Abuztuak lau
Joan eta etorri
jaio eta hil
Amaren indarra
nire irteera-argi
Amaren besoetan
nintzen ni oraindik ahulegi
mundua ikusten nuen nik handiegi
Ba al dago erditzea baino ederragorik?
Denbora luzez ekin eta ekin
han zegoen bera ni erditu ezinik
Bertan zen ere aita
urduritasunak janik
Ba al zegoen norbait
irribarre hura kendu ziezaiokeenik?
Nola ez ditut ba maiteko?
Haiengatik ez balitz,
nik ez nuke izango ezta abizenik

AMA

Nire indarra, ama, zure nekea
zu izan zara nire jaiotzaren lekukoa
Irakatsi zenidan izaten askea
eta ezer ez dela alferrikoa
Aurrerantzean izan nahiko nuke
zu bezain kementsua
bizitzak jarritako oztopoen gainetik
aurrera jarraitzen duen horietakoa
*“Bizitzak sarri erakusten du
badena eta ez dena”*
nik argi daukat zu zarena
Inoiz minak irentsiko bazintu
mesedez, ama, oroitu nazazu irribarretsu
zu baitzara nire abiapuntu
egunak bihurtu dizkidana koloretsu
ni zure zama, zu nire ama

AITA

Txikia izan arren aita
zerbait duzu handia
zure hitz jakitunekin
dirudizu Sarrionaindia
Gustatuko litzaidake aurrerantzean
nire egitea aita zuk daukazun ausardia
Zer litzateke ba izarrrik gabeko zerua?
pertsonek faltan duena aburua
Behin esan zenidan bezala:
zutitzeko erori egin behar da,
aurkitzeko bilatu egin behar da
eta bizitzeko sentitu egin behar da
Zuk ereindako hazitik
bihurtu nintzen zuhaitz
zu nire barealdi, ni zure ekaitz

NORBERA

Zein ez da galdu galderetan?
norberaren barneko korapiloetan,
nahasmenetan
Entzuten al nau inork itotzean?
neure buruarekin borrokan hastean?
Huts egin du zerbaitek agian
izango ote da beldurra?
barrean geratzen zaidan indar apurra
Hil ez denak behar du lore sentitu
behar du mina sentitu
kanpoan eta barruan gertatzen ari denaz ahitu
nekatu
Saiatuko dira kanpotik itzaltzen nire sua
baina bakoitzaren sugarrak
barnean betiko dirau

HAN

Etxean
urduritasuna utzi beharreko tokian
gertatu daitekeenaren esperoan
Aurreko gauean
loak ezin harturik buruari hogeitau buelta ematen dizkiozunean
ezjakintasunak itotzein zaituenean
Bidaian
lur arrotz horretara bidean
oroitzapenak nahastean
infinitora begira jartzean
Han
Amets gaiztoen kaiola hotzean
lasaitasuna somatzen dut zure begietan
hitz egin gabe ulertzen garen laukian
Bueltan
Hitz egindakoak denak gogoan
loak hartu beharrean



Paule Zugaza-Artazar Anitua
BATX. 2. maila
“Hark berak bezala uste”

ETA HORREXEGATIK GORROTO ZAITUT

Izartu bezain pronto argi zurixka batek inguratu nau guztiz eta une batez lo egiten jarraitu ahal izatea izan da nire desio bakar eta gorena, izara bero hauetatik ez irten behar izatea. Izan ere, zera gogoratu diot nire buruari: Nora joan behar duzu? Ba al daukazu zerbait egiteko ala? Gutxienez gogoak bai badauzkat faltan eta. Guztiz oharkabean egin dit ihes begiradak leihorako norabidean, hortik dator eta hain gozoak izan ez diren ametsetatik atera nauen argi hori. Elurra, elur maluta txikiak ari dira etengabe zerutik erortzen eta ikuspegiak guztiz txundituta nauka. Pare bat minutu behar izan ditudan arren, nire begiek ere esnatzea eta behingoz martxan jartzea erabaki dutela dirudi. Gai izan naiz eta azkenean orain arte irudi lausoak besterik ez zirenak desberdintzeko, nire logelaren parte diren horietan jarri dut orain arte kanpoaldeari jarri diodan atentzioa eta hobe nuke egin izan ez banu.

Frustrazioa gailendu da nire gorputzean eta atzera bota dut burua bortizki xamar; hor geratu naiz sabaiari begira nire pentsamenduetan sakonki murgilduta. Begi-bazterretik ikusi izan ahal dut ohe gainean dagoen margolanaren urre koloreko markoa, orain dela urte gutxi batzuk ikusi bezain laster maitemindu ninduen margolanarena. Mihisean ur argiko laku eder bat ikus daiteke, inguratzen dituen arbolen artean milaka izaki fantastiko izkutatzen direla pentsarazten dizuna. Horixe bera izan zen erostera bultzatu ninduen, ni baino mitologia zale amorratuagorik aurkitzea ez da lan erraza eta. Horregatik zapuztu ninduen hainbeste lehen aldiz lamia batekin alderatu ninduzunean, munstro batekin parekatzeak edonor suminduko lukeelako.

Zu bere izaera xarmangarri eta berealdiko edertasunaz hitz egiten ari zinela konturatzean ikaragarri lotsatu nintzela gogoratzen naiz, eta baita nire masailak nire hain gustuko zeneukan ezpainetako gorria baino zertxobait gorriago jarri zirela egun hartan. Eta halaxe egiten zutela zenbaitetan hitz harekin deitzen ninduzunean, izen hark tontakeria bat zirudien arren mundu honetako neskarik ederrena sentiarazten baininduen, bakarra eta berezia. Lamia nire izaki gogokoena bilakatzea lortu zenuela esan beharra daukat, baina baita gorrotatuena ere tamalez. Eta orain ezin ditzaket laku horren ur kristalinoetan begiak gehiegi landatu, zure irudia ekartzen didalako gogora. Eta horrexegatik gorroto zaitut.

Logelan nagusi den argi zurixka nahikoa ez dela ikustean besoa luzatu dut eskuinetara ohe-mahai gainean dagoen lanpara pizteko asmoz. Dena den, beti bezala torpe xamar esnatu naiz gaurkoan ere eta ezinezko egin zait begirada sabaian mantentzen nuelarik etengailu demontrea aurkitzea. Izan ere, beti kexatu izan naiz Eiffel dorre itxurako lanpara horren funtzionalitate ezaz, baina zuk ez nezala bota erregutzen zenidan, oroitzapen politak zenekarzkizula esanez. Orain dela bi urte Parisera egin genuen bidaia hartako gomutak etorri zaizkit bat-batean, eta irribarre indarge bat irten zait zein zorigaiztokoak izan ginen oroitzean. Frantziako hiriburuaz maitemindu eta haren kale zahar eta estuetan zehar gal gintezen irrikaz geunden, ez dut sekula ahaztuko zure poztasun aurpegia azkenean lurra hartu genuenean. Nork esango zigukeen bi ordu geroago ez genuela izango non ostatu hartu iruzur baten ondorioz, hark lur jota utzi ninduen eta negar egiteko gogoia besterik ez nuen. Baina zuk, zugandik betidanik miretsi izan dudan bertuteetako bat optimismoa izanik, ez zenuen utzi eragozpen hark bidaia honda ziezagun. Izan ere, aitortu beharra daukat ahaztezina egin zenuela, eta momentu hartan jabetu nintzela edonora joanda ere zure ondoan banengoen primeran egongo nintzatekeela, ezerk ezingo zidala kalte egin nirekin bazintut. Nire babesleku zinela. Eta horrexegatik gorroto zaitut.

Berriz ere loak hartzen hasita nengoela sentitu dudanean, zaunka ezagun batek kendu dit berehalaxe logura, norbait gosetzen hasi dela uste dut. Azkenik, atrapaturik nindutela ematen zuen maindretatik eskapu egin eta gaur bezalako neguko egun hotzetan ederki datozkidan etxeko zapatila gozoak jantzi ditut. Aterantz nindoala areagotu egin dira zaunkak, nabaria da emozioa; eta ezinezkoa dirudien arren, oraindik gehiago egin dira janaria hartzen nengoela entzun ahal izan denean. Ezin dezaket azaldu nola, baina beren aurpegia ikusi besterik egin ez dudanean ustekabeen dena ongi dagoela sentiarazi nau Nurrek eta bere hain kutsakorra den alaitasunak. Hala ere, horiek guztiek ez dute denbora larregirik behar izan guztiz desagertzeko; txakurraren lepokoari erreparatu diodan arte iraun dute soilik eta. Bertan gu bion izenak grabatuta ikusteak saminduraz bete nau, izan ere, suposatzen zen Nur biona zela, biok elkarrekin zaindu behar genuela. Biziki oroitzen naiz zer nolako emozioz ekarri zenidan, behin eta berriz ea lagun berri bat ezagutzeko prest nengoen galdetzen zenidan ni guztiz galduta nengoelarik, ez bainuen ezer ulertzen.

Gehiago itxaron ezin zenuenez, pelutxe bat zirudien artzain-txakur aleman beldurti bat erakutsi zenidan, inoiz ikusi dudana gauzarik ederrena iruditu zitzaidan gure Nur. Ia ito arte besarkatu eta laztantzen nuelarik esan zenizkidan guztiak, etxe honetan beste inon baino maitasun gehiago jasoko zuela eta txakur handi eta indartsu bat bilakatu arte heziko genuela baina, batez ere gure adiskide izango genuela eta inoiz ez genuela hori baino gutxiago sentituko.

Gaurkoan, zure hitz guztiak irentsi zenituela dirudi, Nurri adiskide bakarra geratzen baitzaio, eta argi dago ez zarela zu. Niri, bihotza mila zatitan apurtu zenidan ezer esan gabe alde egin zenuenean, ez nuen ezer ulertzen, ez nuen ikusten zein arrazoi izan zenezakeen. Baina kontu honekin guztiarekin atsekabetuen dagoena bera dela ziurta diezazuket, ez baitago gau bat uluka egin ostean ate atzean negarrez entzuten ez dudana. Ulu horiek arima urratzen didate, ikaragarritzko estualdia sortarazi; eta inoiz ere ez da izaten Nur negarrez dagoela loak hartzen duen bakarra, nik ere berdin egiten dut eta. Gainera hori gutxi izango balitz bezala, etxeko atea atzean uzten dudana bakoitzean hasten da berriro ere gauetan montatzen dituen ulu saioak errepikatzen. Segur aski nik alde egin ta guztiz bakarrik geratzearen beldur da, abandonuari ikara konponezina hartu diola tematzen naiz. Eta horrexegatik gorroto zaitut.

Minutu gutxi batzuk besterik ez dizkit utzi nire lagun-min jolastak zutaz oroitzeke, elkarrekin bizitako momentuek begietara malkoak ekarri dizkidatela ohartu bezain laster jakinarazi dit eta gosaria bukatu duela. Baita bapo-bapo jan ostean, goiz guztietan egin ohi bezala auzo inguruan paseotxo bat emateko zera baino prestuago dagoela erakutsi. Ezetz esan ezin diodalarik begien itxi-ireki batean dutxatu eta kirola egiteko arropak jantzi ostean kalera ateratzeko erabiltzen dudana uhala hartu dut. Jestu txiki hori nahikoa izan da gure Nurtxo zoratu eta salto eta buztan astintze artean tiobibo baten antzera biraka hasteko. Oraingoan bai ezin izan diodala barreari eutsi, eta lehen aldiz luzaroan poztasunak tristura azpiratzen zuela sentitu dut. “Ai adiskide, eskerrak zu zaitudan; bada, zer egingo nik zu gabe?” esan diot nire buruari. Baina berehala damutu naiz horrela pentsatzeaz; lotsatu eta guzti egin naiz. Izan ere, badirudi zuk nire bizitzatik alde egiteak nire egunerokoan dauzkadan gauza on guztiak ezabatu dituela edo horrela interpretatu dudala gutxienez. Zutaz aparte pozik egiten nauten pertsonak, lekuak eta gainerakoak izango ez banitu bezala! Jakina daukadala! Hala ere, momentu luze eta lotsagarri batetaz beraietaz guztiz ahaztu naizela aitortu beharra daukat. Zu gabe bizitzan galduta egongo nintzela pentsarazi nauzu, ez naizela ezer ondoan ez bazaitut. Eta horrexegatik guztiagatik gorroto zaitut.



Janire Arrizabalaga
BATX. 2. maila

“MUNSTRO”

Batzuek munstro deitzen ninduten, beste batzuek deabru, baina nik nahi nuen bakarra, lagun dei nazaten zen. Nola lor nezakeen hori ordea, guztiak nire beldur baziren? Ez zen beraien errua. Azken finean, nire belarri luze, letagin zorrotz eta begi gorriak ikusita, arraroena ez ikaratzea izango zen.

Hala ere, gauza bat beldur izatea da eta beste bat guztiz ezberdina, ume bat ezberdina izate hutsagatik, harrikatu eta Iratiko basora igaro ziren geroztik eta horrela ere, ez nintzen orduko orbainetatik sendatu. Izan ere, azaleko urratu guztiak desagertu arren, ikusi ezin ziren zauriak ziren sendatzen zailenak.

Hori bai, ikara handia izanagatik ere, lasai etortzen ziren nire ahalmena baliatzera. Basora sartu eta iragarpena egin arte, gorroto guztiak ahazten zitzaizkiela zirudien. Ostean aldiz, ezberdina zen. Beraien heriotza besterik ezin nuenez ikusi, segituan oritzen zitzaien munstro zatarrak baino ez nintzela eta haserre egiten zuten ihes. Eta zer jasotzen nuen nik ordainetan? Mina besterik ez. Ezin zezakeen inork imajinatu zer izan daitekeen horrenbeste jende hiltzen ikusi beharra; bata bestea baino era krudelagoan. Irudi horiek ametsetan ere jarraitzen ninduten.

Banekien konponbide erraza zeukala; ezetz esan eta kito. Azken finean, beraien mespretxua lehenagotik ere baneukan irabazia. Alabaina, nahiz eta sekula ez bete, beti izaten nuen esperantza azken horrek nire ahalegina eskertu eta lagun bilakatuko ginela.

Egun batean, betiko erara andre bat niregana laguntza eske etorri eta bere beldurrak nirekin ordaindu ostean, basoko urmaelera joan nintzen lasai negar egitera. Horrelako uneetan toki hark baino ez ninduen lasaitzen.

Halaber, egun hartan ez nengoen bakarrik; neska bat nik egin nahi nuen bezala malkoak urez garbitzen ari zen. Gaizki sentitzen zela zirudien arren, irribarre zoragarri bat eskaintzeko ahaleginak egin zituen.

Bere jarrerak harriturik, zuhaitz artean ezkutatu nintzen. Banekien, horrelako neska eder guztiek egiten zuten bezala, nire piura ikusita, ziztu bizian joango zela. Oker nengoen ordea. Alde egin beharrean, nigana hurbildu, musuzapi bat eskaini eta ondo nengoen galdetu zidan

- Ez al zara nire beldur? –Galdetu nion txunditurik.

- Beldur? Zergatik?

- Munstro bat naiz.

- Sinetsi iezadazu. Nik ongi dakit zer den munstro bat eta zuk antzik ere ez daukazula ziurtatzen dizut.

- Baina nire itxura...

- Bai, xelebrea da eta zer? Nire ileak ere kolore bitxia du baina horrek ez nau piztia bihurtzen. Nola deitzen zara?

Ez nekien zer erantzun. Izan ere, inork ez zidan sekula halakorik jarri; basoko deabrua baino ez nintzen.

- Beno, ba ez badidazu kontatu nahi, Irati deituko zaitut; baso hau bezala.

Hasieran arraro eginagatik ere, geroz eta gehiago pentsatu, orduan eta gehiago gustatzen zitzaidan. Hortik aurrera, Irati izango nintzen eta ez Munstro edo Deabru. Eza nuen sekula esperoko horrelako xehetasun batek zer nolako aldaketa egin dezakeen zure barrenean.

Orduak igaro genituen solasean. Amaiur deitzen zela eta herrira etorri berri zela azaldu zidan. Ziurrenik, horregatik ez zen nire beldur izan; ez zituelako herrikoek niri buruz kontatzen zituzten ankerkeriak entzun. Hala ere, horrek ez zuen axola; inporta zitzaidan bakarra, une hartan nirekin zegoela zen. Seguruenik, ez zen gehiago itzuliko, baina gutxienez, ordu batzuetan bederen, horrenbeste desio nuen laguntasun hartara hurbiltzeko aukera izan nuen.

Hor ere, oker ibili nintzen. Arrazoiren batengatik, ordutik aurrera, egunero etortzen hasi zen. Nahiz eta ez nuen ulertzen nola izan zezakeen ni bezalako izaki batekin egon, pertsona arrunt batekin baino, ez nintzen kexatzen. Hizketan pasatzen genuen denbora horretan, inoiz lortu ez nuen gauza eragiten zuen nigan; besteek nitaz pentsatzen zuten guztia desagertuko balitz bezala zen. Egun guztia une horren zain igarotzen nuen.

Oraindik ere gogoratzen dut jateko zizareak eskaini nizkion egun hartan jarritako nazka aurpegia; harrituta zegoen horrelako zerbait jan nezakeelako. Horregatik, ordutik aurrera, beti etortzen zen janari pixka batekin, gauza higuingarriak jateari utz niezaion.

Zoritxarrez, bizitzak aurretiaz ongi irakatsi zidan erara, zerbait gaizki irten bazitekeen, hala irtengo zen eta Amaiurrekin ere, horrelako zerbait jazo zen. Hasiera batean eguneroko bisitak zirenak, asteroko bilakatzen hasi ziren eta asterokoak berriz, noizean behinekoak. Bere gauzekin lanpetuta zegoela eta nirekin egoteko horrenbeste asti ez zeukala uler nezakeen, baina ongi nekien hori ez zela arazoa. Gutxiago etortzeaz gain, nirekin zegoen denbora horretan ere, ez balego bezala zen; beste nonbait zeukan bere burua. Sarritan galdetzen nion arazoren bat ote zeukan, alabaina, ez zela ezer besterik ez zidan erantzuten.

Horrelako egun batean, elkarren ondoan eserita geundela, gure arteko isiltasuna hautsiz, honakoa luzatu zidan:

- Zuk jendearen etorkizuna iragar dezakezu, ezta?

Orduan konturatu nintzen ez genuela inoiz nire ahalmenez hitz egin.

- Jendeak hala dela uste badu ere, oker dabilta. Egin dezakedan bakarra beraien heriotza ikustea da.

- Nirea ikusi al duzu?

- Ez da bat-batean gertatzen den gauza. Nire buruari hala egiteko eskatu ezean ezin dezaket iragarri.

- Ez duzu nire galdera erantzun.

- Ez, ez dut ikusi eta ez dut egiteko asmorik ere.

- Eskatuz gero ere ez?

- Ez. Joko bat dela uste al duzu edo zer? Ez al zara jabetzen zeinen gogorra den jendea nola hiltzen den ikustea? Istripuetatik hasita, inoizko hilketarik odoltsuenak ikustera ere heldu naiz eta egia esan, ez da batere erraza hori buruan izanda bizitza arruntarekin jarraitzea. Imajinatzen al duzu ezezagun bat horrela ikusteak horren gaizki egin badit, nola utziko nauen zure heriotzak? Ez dut pentsatu ere egin nahi.

Hitzik gabe utzi nuen. Banekien agian gogorregia izan nintzela, baina gai horrek benetan erasaten ninduen. Behingoagatik nire munstro izatea baztertu zezakeen norbait aurkitu nuela uste nuenean, ahalmenearen kontua ateratzeak ez zidan inolako graziarik egin. Eta aurreko guztia interes kontuagatik baino ez bazuen egin? Zorionez, ez zuen kontuarekin temati jarraitu eta segituan aldatu genuen gaiz, tentsioa pixka bat baretzeko ahaleginetan.

Hala ere, kontua ez zen hor gelditu. Amaiurrek, egunean-egunean arraroago egoten jarraitzen zuen eta une batera helduta, bere jarrera ez zela aldatu zen bakarria jabetu nintzen. Bere begi ederrak zulo batzuek ordeztu zituzten, bere irribarrea aspaldi desagerturiko gauzatat har zitekeen eta batez ere, gehien kezkatzen ninduena, bere azal ubeldua zen. Nola egin zituen galdetuagatik, beti asmatzen zuen erantzuna ekiditeko eraren bat.

Egun batean denak eztanda egin zuen ordea. Nire kobazuloan lo nengoela, ahots aztoratu batek esnarazi egin ninduen; Amaiur zen. Sekula ez zen horrelako ordu txikietan azaldu. Horrekin eta azken boladako guztiarekin, zerbait larria gertatu berri zenaren susmoa piztu zen nire barrenean.

- Zer dela eta zu hemen?

- Oso luzea da azaltzeko eta orain behintzat, ez daukat horretarako astirik. Benetan ematen dizut hitza guztia bukatzean, orain arte gertatutakoa xehetasun guztiz azalduko dizudala, baina lehenago mesede bat egin behar didazu. -Bere ahotsa dar-dar betean zegoen, baita bere gorputz guztia ere.

- Noski baietz. Nire eskuetan dagoen guztia egingo nuke zugatik bada.

Arnasa sakon hartu ostean, eskutik gogor heldu eta hurrengo hitzak luzatu zizkidan, ahotsa irmo mantentzeko ahalegina eginez:

- Badakit oso gaizki pasatzen duzula jendea nola hiltzen den ikusiz eta are okerragoa izan behar dela, pertsona hori zure laguna bada. Hala ere, kontuan izan behar duzu nik

ez nizula horrelakorik eskatuko benetan beharrezkoa ez balitz; ni zuretzako bezain garrantzitsua zara zu niretzako.

Bere argudioek zuzenean jo zuten nire bihotza. Lehen aldia zen norbaitek horrelako ezer esaten zidana. Alabaina, ezin nion esaldi eder batzuekin liluratzen utzi; ez behintzat nire osasun mentala jokoan zegoelarik.

Banekien, mesede hura betez gero, burua galduko nukeela eta egia esan, pixka bat neurekoia badirudit ere, nahiago nuen Amaiurren laguntasuna galdu, bere sufrimendu aurpegia buruan iltzaturik izatea baino.

Eztabaida gogorra izan genuen arren, irmo mantendu nintzen eta azkenean, haserre, ihes egin zuen. “Gorrotu zaitut. Herritarrek ziotena egia zen; bere buruan besterik pentsatzen ez duen munstro bat baino ez zara.” Izan ziren iluntasunean desagertu aurretik esan zidan azkena.

Bakarrik geratu nintzen. Halaber, ez zen azken aldian bizi nuen bakardadea bezalakoa, berriz ere nire hastapenetara itzuli nintzela zirudien. Izugarritzko zurrumbilo bat eratu zitzaidan barrenean; munstro hitza behin eta berriz errepikatzen zuen kiribil bat. Amaiurrek arrazoa zeukan piztia berekoi bat nintzela zioenean. Une hartatik aurrera izango nuen bakardadea ongi merezita neukan.

Orduan, arrazoiren batengatik, oroitzapen jasa izugarria etorri zitzaidan gogora. Batzuetan irribarrez nengoen, beste batzuetan barrez lehertzen eta gutxiengo batean berriz, minduta. Irudi horiek neska hura basoan agertu aurrekoekin alderatuz, zenbat aldatu nintzen jabetu nintzen. Jada ez nintzen ondamura besterik sentitu ezin zuen munstroa; beste edozein gizaki bezalakoa nintzen, eta guztia Amaiurri esker.

Banekien nigatik egindakoa ezingo niola sekula itzuli, baina horrek ez zuen saiatu behar ez nintzenik. Horren orde, inoiz eskatu zidan mesede bakarra ukatu nion, niretzako mingarriegia zen aitzakiarekin, beragan une batean ere pentsatu gabe. Ziurrenik, berak ere bereak eta bi pairatuko zituen niregana etortzearen, desberdintasun bakarra, horrelakorik leporatu ez zidala zen. Ez nuen ulertzen nola ez nintzen jabetu zeinen neurekoia izan berri nintzen.

Horregatik, nire akatsa garaiz konpontzeko esperantzan, laster batean abiatu nintzen herrira. Heltzean, guztiek beldurrez begiratu ninduen eta batzuk ni erasotzen ere saiatu ziren, basora itzul nendin.

- Esadazue non bizi den Amaiur edo ez dut botererik erabili beharko zuen heriotza aurreikusteko! –Oihukatu nien beraien ukabildak ekiditen nituelarik.

Hasieran ezentzunarena eginagatik ere, beraiek baino gehiago nintzela ikusirik, ez zuten erantzutea beste erremediorik izan. Kontatu zidatenagatik, Amaiur ez zen nik uste nuen neska xaloa; herriko jauntxoaren premiak asetzeaz arduratzen omen zen. Hala ere, horrek ez zuen beragan neukan iritzia aldatzen, gehiago babesteko gogoak baino ez zizkidan ematen.

Oihu hotsak entzutea besterik ez nuen behar izan, etxea aurkitzeko. Nire lagunaren ahotsa zen. Gertatzen ari zena gertatzen ari zela, gelditu egin behar nuen eta bizkor gainera. Horrenbestez, hesitik jauzi egin eta zarata zetorren logelako leihora hurreratu nintzen.

Espero bezala, oihuak Amaiurrenak ziren eta jauntxoa zela suposatu nuen gizon batekin eztabaidan zebilen. Ez zen erraza esaten zuten guztia ulertzea, baina tarteka entzundakoarekin eta neskak eskuartean zorro bat zeukala ikusirik, ihes egin nahian zegoela zirudien. Horretarako jakin nahi ote zuen bere heriotza iragartzea? Horrenbesteko beldurra ote zion agure hari?

Nire galderari erantzunez, jauntxoak hormaren aurka bota eta bertan bortxatzen saiatu zen. Nire lagunak ahal zuen guztia egin zuen bere hatzapparretatik irteteko eta esku-hartzeko nengoela, bere ile luzetik heldu eta lurrera jaurti zuen bultzada batez, neskaren buruak mahai baten hertza jotzea eraginez. Minutu gutxi batzuen buruan, lur guztia odolez zipriztindua zegoen eta gorputza berriz, guztiz izozturik.

Nagusia gorpuarengana hurbildu zen bizitzaren aztarnaren aurkitu nahian. Ez zitzaion aurpegia pixka bat ere mugitu, egin berri zuenaz jabetzean. Damua erakutsi beharrean, arropa guztiak kendu eta gorputz zoragarri hari agur esan nahi balio bezala, azken plazera hartu zuen. Inoiz ikusi nuen gauzarik higuingarriena izan zen; hala ere, ezin izan nituen begiak aldendu. Nire burua ez zen jazo berri zen guztia barneratzeko gai.

Berearekin bukatzean, gizon hark, hala dei bageniezaiokeen, zerbitzariei gela hartan zegoen hondamendiaz arduratzeko agindu zien, bere gauzetara itzuli zedin. Ezin nien Amaiurrekin nahi zuten guztia egin zezaten utzi; jada nahikoa eta gehiago egin zuten.

Beraz, leihoa apurtu, logelan sartu eta hilotza eskuartean nuela alde egin nuen.

Nire asmoa basora itzultzea zen; alabaina behin neskatxa hark adierazitako esaldi batek ideia bat eman zidan. Behinola, berak ongi zekiela munstro bat zer zen eta nintzela horrelakoa esan zidan. Unean ongi ulertu ez banu ere, orain banekien zertaz zebilen eta herriak ere jakin behar zuela iruditzen zitzaidan.

Horrela, plazaren erdian jarri eta oihuka hasi nintzen guztiak zer gertatzen zen ikusteko, etxeetatik irten ziren arte. Ni nintzela jabetzean, beraien jarrera oldarkor bilakatu zen.

Ez dut esango horrenbeste jende aztoraturen aurrean beldurru ez nintzenik, hori gezurra izango zelako. Halaber, eskuartean neukan gorpuak izugarritzko indarrak eman zizkidan aurrerapausoa emateko.

- Badakit inori ez zaiola gauerdian esna dezaten gustatzen eta jaikitzen dituen hori ni bezalako norbait bada are gutxiago. Ez zintuzketet esnatuko esateko dudana ez balitz horren garrantzitsua eta horren frogarria da, ez naizela sekula basotik irten arazo oro ekidite aldera. Hala ere... –Norbaitek harri bat bota zidan arren, jarraitu egin nuen. – gaurkoa egun berezia da.

Ez dakit neska hau ezagutuko duzuen; Amaiur du bere izena eta jauntxoaren plazerak asetzea zen bere lana. Ikusten duzuen bezala ordea, orain hilda dago eta badakit, lehenengo pentsatu duzuen nik hil dudala dela, zuen begietan munstro bat baino ez bainaiz. Gehiegi fidatzen zarete zuen begiez eta horren erruz, ez zarete gai benetako piztiak nor diren ikusteko.

- Hiltzailea! –Egin zuten oihu batzuek.

- Esaten nuena. Zuek bezalakoa ez naizelako, gaiztoa izan behar naizela pentsatzen duzue eta ez zarete jabetzen, itxurak ez duela barrukoa azaleratzen. Neska honen kasuan esaterako, sinetsiko ez baduzue ere, akabatu duena horrenbeste maite duzuen jauntxoa izan da eta ez pentsa inolako damurik izan duenik. Hori ez al da munstro bat izatea?

- Gezurretan ari da! Bota dezagun sutara! –Esan zuten nire aurka joan aurretik.


- Badakizue zer? Egizue nahi duzuen. Nahi beste piztia usteko erre ditzakezue, baina zuen arazoak ez dira bukatuko. Erre nazazue nahi baduzue, baina jabetu zaitezte ni baino munstroago direla, zuen barrenean daudenak.

Esanak esan, berearekin jarraitu zuten. Izan ere, askozaz errazagoa da errua besteei egozte, norberagan aurkitzea baino. Hori da gizakiak beti egiten duena.

Ez dakit nola erre ninduten, ez eta minik egin zidan, unean pentsatu nuen bakarra berriz ere Amaiurrekin egongo nintzela izan zen eta behingoagatik, joango nintzen tokira nindoala, inork ezingo gintuela berriz banandu.

PANDEMIAKO ISTORIOAK

HHI/CEPA-ko ikasleak:
Francisco Javier Mendiano
Oier Bacigalupe
Oier Lavin
Aitziber Albizua



**“Nil desperandum”
Ez etsi inoiz.**

Horazio (K.a. 65-8, erromatar poeta)

ZENBAKIAK

15. egunez etxean.

Egunsentia.

Gaurko plana, 5 pausu komunera, 10 pausu sukaldera iristeko. Bertan kafesne bat eta gaileta 2 gosaltzen ditut. 13 pausu balkoira zigarro bat erretzeko, gaurko lehengoa. Berrero sukaldera garbigailua jartzera, 30 minutuko programan. Terrazara 23 pausu. Atzoko arropa batu eta tolestu ondoren, geletan banatu, beste 41 pausu.

Kaleko arropak jantzi eta 103 pausu ondoren, ogia (txapata 1) erosi eta berrero 103 pausu etxera iristeko. Postontzia begiratu baina 0 gutun. 12 eskailera gora, etxean sartu, arropak aldatu, 13 pausu. Garbigailua hustu eta arropak eseki (eskuohial bat 1, 4 pare galtzerdi, praka pare 1). 30 pausu eta sukaldera, bazkaria prestatu behar da, 3 lagunentzako entsalada eta 3 haragi xerra. Platerak garbitu, ontzi bakoitza 3 aldiz igurtziz.

Arratsaldean sofán botata, urrutiko agintea eskuan, telebistak dituen kateak zenbatzen, 150 kate desberdin eta interesgarririk bat ere ez. Zortzietan 100 txalo, esku-barruak gorritu arte. Ostean, eguneko 2. zigarroa erre eta 4 lagunentzako afaria prestatu. 4 patata tortila desberdin: lehengoarentzat patata asko eginda eta arrautza gutxi eginda, bigarrenak patata, gazta eta arrautza oso eginda eskatzen du, hirugarrenean patata, perretxiko eta arrautza erdizka eginda egon behar dira eta laugarrenean txorizoa ere gehitu behar zaio arrautza patata nahasteari.


Berrogeita bost minutuko afariaren ostean, 3. zigarroa eta komunera hotzak garbitzera (10 minutu). 5 pausu eta ohera. Liburuko 3 kapitulu 20 minutuz irakurri eta lo.



NIRE TXAKURRAREN EGUNEROKOA

Eguna hasi du, banoa korrika nire jabearengana goizeko musuak ematera. Bertan nire neba-arreba katuak daude berarekin lotan, ni ikustean korrikan irten dira, barrurantz barre egiten dut. Nire jabea asko kostata ohetik altxatzea lortu dut. Orain, berak gosaria bukatu arte itxaro behar. Jaten duen guztiari begira nago eta niri ez dit ogi zati txikitxo bakar bat ere ematen. Azkenik arropa aldatzera doa, heldu da nire jabea kalera ateratzeko ordua! Ze pozik gauden, nire buztanak haizagailua ematen du, ezin dut bere mugimendua kontrolatu.

Txakur-uhala jarri eta bagoaz eskailerak behera, atzoko euria ekarri zuten lainoak desagertu dira zerutik eta eguzkiak indarrez berotzen ditu hegialak. Euririk ez denez, agian ibai ondoko ibilaldi polita egitera joango gara eta gero parkera hurbil gaitzke, nire lagunekin jolastera edo tabernara, zerbait goxoa jatera. Lehenengo belarrera noa korrika, ezin dut gehiago itxaron nire egin beharrak egiteko (nire amak oso gustuko ditu antza, beti gordetzen baititu poltsa batean).



Baina ez dakit zer gertatzen den aspaldi honetan, gaur ere ez dago ibai ondotik pasiorik, ezta parkean lagunak ikusterik, ezta tabernara bisitarik. Egunotan etxera goaz jarraian, gainera ez dut inor ikusi agurtzeko.

Etxera itzultzean ura aldatu eta jatekoa jartzen dit nire amatxok (gero eta gutxiago ematen dit jateko), albatariak pisu handia hartzen nagoela ibilaldirik egin gabe eta ezin dudala beti bezala jan esan omen dio (zer ote daki berak ...). Jan eta gero nire txokora noa lo pixka bat egitera, nire ama etxetik bueltaka dabil eta ez dit jaramonik egiten ezta nire neba-arreba gizakiak ere, (hau asperdura, etxean daudenetik, denak daude triste bezala, baina ez dute jolastu nahi).

Arratsaldean berriro daramat kalera amatxo, baina nire egin beharrak egin eta jarraian berriro goaz etxera. Orain denak eseri dira sofan lasai-lasai eta beraiekin etzan egingo naiz (oso aspertuta nago eta agian baten batek laztan batzuk egingo dizkit hobeto sentiarazteko). Bat-batean heldu da ospatzeko ordua, etxeko denak abiatzen baitira balkoira txalokatzera, abestera, elkarrekin hitz egitera...) eguneko momenturik alaiena da.

Mmmm...! sukaldetik usain gozo-gozoa datorkit, niretzat ote da? Ez, nire jabe guztiak esertzen dira mahaian baina ez didate ezer ematen. Banoa nire txokora, nekatuta nago lodi nagoela entzuteaz, eta nire betiko jatekoa jateaz. Azkenik berriro kalera (oraingoan ibilaldirik egingo ahal dugu?). Ezta pentsatu ere, berriro jarraian etxera, hau zoramena!. Ez dakit zer egin dudan honela zigortuta egoteko, agian ez naute lehen bezala maite?. Ezinezkoa da hori, ez naiz ni ba maitagarria?, beste zerbait izango da, beharbada egunen baten jakingo dut zer gertatzen ari den.

Gaurko eguna bukatu da eta banoa nire txokora lo egitera.

MINDUTAKO BELAUNAREN BURUKO MINA

Josuk 84 urte ditu. Hiru hilabetez benetan kezkatzen ari da belaunean duen lesio batengatik. Porruak eroatera merkatura zihoala, laban egin eta ur putzu batean erori zen. Istripua gertatu eta hiru hilabetera ebakuntza egiteko hitzordua eman zioten. Izan ere, biharko zen hitzordua Gurutzetako ospitalean, minutako belauna medikuak begiratzeko, baina, zoritxarrez ezin izango da joan. Orain dela hiru aste jaso zuen telefono deia; hitzordua bertan behera geratu behar zen, berriz abisatu arte. Arazoa? Pandemia batek mundua suntsitu du. Ia kontsulta mediku guztiak bertan behera uzten ari dira, Covid-19ak eragindako osasun larrialdia dela eta.

Koronabirusak bere bizitzari ekarri dion isolamenduaz gain, belauneko min jasangaitza dago. Hau da dilema; larrialdietako ospitalera joatea eta kutsatze hilgarri batera arriskatzea ala etxean geratzea, pilulaz hornitzen eta mina nekez jasaten.

Bere seme-alabena da erabakia, ez daukate aukera errazik, baina ziur aski etxean utziko dute.

Koronabirusaren pandemiak zuzeneko biktima asko eragin ditu.

Josu birusaren alboko biktima bihurtu da.



FRUSTATUTAKO LIGEA


Zergatik gertatzen ote zaizkit niri gauza hauek!!! Hori pentsatzen ari naiz itxialdiko lehenengo egunetik.

Kontatuko dizuet zein den nire etsipenaren arrazoia:

2020 polit bat ari zitzaidan geratzen, lana lortu nuen, txakur bat erosi, lagunekin atzerrira bidaiatzeko planak nituen eta errematatzeko, gerta zitekeen gauzarik hoberena gertatu zitzaidan, neska eder eta polit bat ezagutu nuen. Eta non dago arazoa, ba? galdetuko diozue zeuen buruei. Koronabirus madarikatua! Geure etxeetan kartzelaratu gaituzte, ezin dugu ezer egin, ez kalera atera, ez lagunekin geratu, ez bidaiatu, ez taberna batera kafe bat hartzera joan, ezta neska batekin geratu ere!!! Horrexek kezkatzen nau gehien. Behin neska eder bat ezagutuko eta bertan pandemia izugarri batek gure mundua astintzen du!

Orain pandemia madarikatu hau dela eta, ezin naiz berarekin geratu. Ezin dut sinetsi! Hau ez da posible! Guzti hau benetan gertatzen ari da? Orain whatsapparen kontsolamendua bakarrik geratzen zait.

Gai izango ote naiz etxean geratzeko eta konfinamendua ez saltatzeko? Ez dut uste.



88. URTEBETETZE BEREZIA

Gaizkak 88 urte beteko ditu hurrengo domekan eta bakarrik ospatuko ditu, zoritxarrez. Bakarrik bizi da. Bere emaztea orain dela 4 urte hil zen, bere semeak kanpoan bizi dira, bata Ameriketan lanean eta bestea Alemanian, bere unibertsitate ikasketak bukatzen, gainera, pandemiarekin, ezin izango da kalera irten aire librea arnasten.

Dena ez da zorte txarra berarentzat, bere semeek zaintzaile bat hartu dute egunero berarekin hiru edo lau ordu egoteko, Gaizka bakarrik ez sentitzeko. Ana du izena, emakume atsegina eta zintzoa. Arratsalde osoak pasatzen dituzte hitz egiten eta kartetan jolasten. Gaizka oso lehiakorra, ez zaio galtzea gustatzen eta tranpa asko egiten ditu irabazteko, Anak bestalde barre handiak botatzen ditu Gaizkarekin.

Horretaz gain, jatorduak prestatzen dizkio, ohea egin eta etxea garbitu. Harreman handiak sortu dituzte haien artean eta egunak arinago pasatzen laguntzen dio Gaizkari Anaren konpainiak.

Baina Gaizkaren nahirik handiena bere etxe aurreko banku erosoan esertzea da, egunkaria irakurtzea eta bere betiko lagunekin hizketan arratsalde osoak pasatzea. Urte honetan ezin izango da horrela izan. Berak dioen moduan, itxaropena da galtzen den azken gauza.



ARRISKUAREN AURREAN BAKARRIK

Orain dela hilabete batzuk aita izan nintzen, eta gaur da nire umearekin bakarrik pasatuko dudan lehenengo eguna. Nire emazteak ospitalean egiten du lan, erizaina izan arren, harreran lan egiten du. Pandemiaren erruz, Martak arinago itzuli behar izan du lanera, amatasun baja bertan behera utzita.

- Aitor, hor daukazu arropa, esnea hozkailuan utzi dizut, krema amaitzen baldin bada daukazu komuneko armairuan gehiago, eta pixoihal paketeak bere gelako armairuan daude.

- Marta, laztana, joan zaitetz trankil, umea esku onetan geratzen da eta.

Orduan konturatu naiz zein arriskutsuak izango diren hurrengo zortzi orduak.

Lehenengo batean Jurassic Park filma ikusi nuen, eta zerbait erakutsi ba zidan, zera da, tiranosaurio batek oso azkar mugitzen zarenean bakarrik antzematen zaituela. Horrekin ez dut esan nahi nire umea tiranosaurio bat denik, inondik ere ez! Baina zalantzarik gabe antz handia du.

Nire lehen eginkizuna umeari arropa aldatzea da, txandal eroso bat jarri diot eta bere amak jarritako printzesa itxurako arropa “dotore” horiek kendu...

Gero, musika apur batekin lasaitzen saiatu naiz. Musikaz aspertzen denean, bere panpina guztiak hartu eta nortasun desberdinekin jolasten hasi naiz. Paseatzeko umea iritsi da, eta kalera joaterik ez dagoenez, pasilloan egiten ditut normalean kalean egiten dugun distantzia, umea lepoan hartuta, pasilloa gora pasilloa behera.

Umea eta biok nekatu gara, gorputz atal guztiak minduta ditut eta ez zaigu beste posturarik bururatzen. Nonbait utzi behar dut, baina umeak ez du nahi, nire lepoan egotea baino ez du nahi, eta 9 kilo dira. Orduan gogoratu dut jaten ere eman beharko diodala. Goizean nire emazteak bere bular esnea atera du eta hozkailuan gordeta utzi du. Esne hori berotzea erraza izango dela pentsatu arren, dirudiena baino misterio handiagoa du.

Ura kazo batean berotzen jarri behar da, eta biberioia ur barruan sartu, baina denbora kontu handiz neurtu behar da, esnea ez dadin gehiegi berotu. Bestalde, biberioiak uretan flotatu egiten du, eta atzamar batekin sakatzen egon behar naiz berotzen den artean.

Behin esnea berotuta dena dagoela konponduta pentsatu dut, lasaitu ederra hartuz, baina ez da horrela. Nahiz eta bere biberioi epel elikagarria hartu, umea negarrez hasten da berriro. Orduan, Pepa Pig marrazkiak jartzen erreskatera eta umea isil-isilik geratzen da. Zer demontre daukate marrazki horiek umeak lasaitzeko?

Azkenean, zortzi ordu eta hamabost minutu igarota, lo geratzen da umea, eta sofán botatzen naiz luze, atsedén apur bat hartzeko. Une horretan Marta etxeko atetik sartzen da.

- Zer, lo dago umea?- galdetzen du Martak.

- Bai, oso ondo portatu da, ez dit inolako gerrarik eman,- esaten diot emazteari gezur galanta denean.

- Zein ondo, maitea.

Benetako heroi bat ez da bere balentriaz harrotzen.



OSPITALEKO OHEAN

Kostata begiak zabaldu ditut eta jarraian, sabaiaren kolore urdina ikusi dut. Non nago?

Beldurtuta nago eta ahoan deseroso sentiarazten didan tramankulu bat dut jarrita, baina eskuak lotuta dauzkat eta ahokoa zer den igarri ezean nabil.

Une estu hau igarotzea nahiko nuke baina ez dut ezer ulertzen! Bakarrik al nago? Ba al dago inor nire ondoan?

Ohe inguruan mugimendua sumatzen ari naiz, norbait hurbil dagoela badakit. *Itxuraz dena ondo-*, esan du ozenki.

Gizon heldu baten ahotsa dela esan dezaket baina ezin dut bere aurpegia ikusi. Medikua ote da? Erizaina?

Bat-batean berotasuna sentitzen hasi naiz oinetan, norbait masajea ematen ari zait eta ez dakit nor den baina pertsona bat dagoela jakiteak arima lasaitzen dit. Masajea bukatu bezain laster, milaka irudik talka egin didate burmuinean: nire laneko bulegoan arnas estutasuna, gorputzaldi txarraren ondorioz ezin lanik egin, termometroa sutan, emaztea medikuari deika, anbulantziaren sirena desatseginak ...

Eta berriz, oraingo errealitatera bueltatuz, zein ordu izango ote den galdetzen hasi natzaio etengabe nire barruko ahotsari.

Peio etorri zait burura, zenbat aldiz galdetu ote du non dagoen aita?

Medikuak, orokorrean dena ondo dagoela dio baina nik ez dut argitasuna ikusten, ezin naiz ezertarako mugitu. Bakardadearen preso bihurtu naiz, dudan laguntza bakarria nire kontzientzia da, zalantzez eta galderaz beteriko lekua. Etorkizunik ez izateak bihotza urratzen dit eta orain arte sentitu dudan momenturik gogorrenetako eta krudeletako bat dela aitortzen dut.



argitaratzailea:



GERNIKA-LUMOKO UDALA

Hezkuntza Saila
Euskera Zerbitzua

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



babeslea:

